

Zapalkuntzaz, borrokaz eta erresistentziaz: jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak

Zesar Martinez
Beatriz Casado

Lan-Koadernoak / Cuadernos de Trabajo • Hegoa, 60. zbk., 2013
Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua

Erredakzio Kontseilua

Zuzendaria: Patxi Zabalo
Idazkaria: Mari José Martínez
Diruzaina: Eduardo Bidaurrezaga
Kideak: Elena Martínez Tola
Jokin Alberdi
Gloria Guzmán
Amaia Guerrero

Argitalpen Kontseilua

Alberto Acosta. FLACSO, Quito (Ekuador)
Iñaki Bárcena. Parte Hartuz, UPV/EHU
Roberto Bermejo. UPV/EHU
Carlos Berzosa. Madrilgo Unibertsitate Komplutensea
Cristina Carrasco. Bartzelonako Unibertsitatea
Manuela de Paz. Huelvako Unibertsitatea
Alfonso Dubois. Hegoa, UPV/EHU
Caterina García Segura. Pompeu Fabra Unibertsitatea
Eduardo Gudynas. CLAES, Montevideo (Uruguay)
Begoña Gutiérrez. Zaragozako Unibertsitatea
Yayo Herrero. Ecologistas en Acción
Mertxe Larrañaga. Hegoa, UPV/EHU
Carmen Magallón. Fundación Seminario de Investigación para la Paz
Carlos Oya. School of Oriental and African Studies, University of London (Erresuma Batua)
María Oianguren. Gernika Gogoratuz
Jenny Pearce. University of Bradford (Erresuma Batua)
Itziar Ruiz-Giménez. Madrilgo Unibertsitate Autonomia
Bob Sutcliffe. Hegoa, UPV/EHU
José M^a Tortosa. Alacanteko Unibertsitatea
Koldo Unceta Satrustegui. Hegoa, UPV/EHU

Hegoa lan-koadernoak aldizkako argitalpena da, Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa izeneko Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuak, 1989. urtetik aurrera argitara emandakoa, Diziplina arteko eta diziplina anitzeko ikuspegia izanik, argitalpen honek argitaratzen dituen azterketak ikerkuntza berezi, empiriko edo teoriko baten emaitza dira, eta giza garapenaren eta lankidetzeta eraldatzailearen eremuko arazo, esparru analitiko eta jardueri buruzko alderdi zabal bat lantzen dute.

Hegoa lan-koadernoak aldizkariak izaera monografikoa du, urtean hiru aldiz argitaratzen da, eta ale bakoitza lan zehatz bati eskaintzen zaio, beste aldizkari batzuetako artikuluetan ohikoa dena baino hedadura zabalagoz. Paperean ateratzen da, baina euskarri elektronikoan ere eskura daiteke Hegoaren webgunean (<http://www.hegoa.ehu.es>).

Zapalkuntzaz, borroka eta erresistentziaz: jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak

Egilea: Zesar Martínez eta Beatriz Casado
Itzulpena: Irene Hurtado Mendieta - Hitzek
Hegoaren Lan-koadernoak • 60. zbk. • 2013
Lege-gordailua: Bi-1473-91
ISSN: 1130-9962
EISSN: 2340-3187

Hegoa
www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre etorbidea, 81
48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Carlos Santamaría zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa.
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Faxa: 945 01 42 87

Inprimatzea: Lankopi, S.A.
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Hegoa Lan-koadernoak sailean argitaratzen diren artikuluguztiak, Creative Commonsen lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObrasDerivada 3.0 España. Lizentzia osoa:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzaileak:



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesa ekonomikoa jaso du, *Avanzar hacia una agenda transformadora de cooperación para el desarrollo a través del fortalecimiento de los movimientos sociales* izeneko proiektuaren esparruan (2010).

Zapalkuntzaz, borrokaz eta erresistentziaz: jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak

Zesar Martinez. Soziologian doktorea eta Gizarte Zientzietako Metodologiako irakaslea da UPV/EHUⁿ. Hainbat ikerlan egin ditu parte-hartze soziopolitikoari buruz eta ikerketa-ekintzari buruz. Bere oraingo ikerketa-ildoak ekintza kolektiboarekin eta parte-hartzean oinarrituta dauden metodologiekin du zerikusia. Une honetan, gai horiei buruzko proiektuak lantzen ari da Hegoa Institutuan eta Joxemi Zumalabe Fundazioan. zesar.martinez@ehu.es

Beatriz Casado. Antropologian lizentziaduna Miguel Hernandez Unibertsitatetik (Elx). Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenerako Maisutza du egina Euskal Herriko Unibertsitatean (Hegoa Institutua). Une honetan, doktoregia da UPV/EHUren Garapenari buruzko Ikasketetan (Hegoa Institutua). Hegoa Institutuaren Jendarte Mugimenduak eta Lankidetzeta Kritikoa ikerketa-taldean eta Brasiliako Unibertsitateko Ekoizteko Moduak eta Jendarteko Antagonismoak (MPAS) taldean esku hartzen du. beatrizcasadob@gmail.com



Jasoa: 2013/07/27

Onartuta: 2013/09/10

Laburpena

Hegoa Institutuaren 57. Lan-Koadernoan argitaratu genuen lanari jarraipena emanez, herri- eta jendarte-mugimenduen begiratzeko, interpretatzeko eta haiekin elkarlanean aritzeko proposamena edo gonbidapena aurkezten dizuegu. Izan ere, jendarte-mugimenduen aurrez aurre ditugun zapalkuntza eta krisi ugarietarako irtenbide alternatiboak lantzen dituzten eragileak diren aldetik, ezinbestekoa iruditzen zaigu euren jarduerara sendotzeko ahalegina egitea.

Horretarako, La Vía Campesina eta Emakumeen Mundu Martxan ari diren ekintzaileekin elkarlanean, jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen duten elementuei buruzko analisia egin dugu. Baita euren prozesuen izaera askatzailea ahultzen eta mugatzen duten elementuei buruz ere (ahulezia eta erronkei buruz).

Esan bezala, alde batetik, elementu horiek eztabaidatzea lagungarria izan daiteke subjektu politiko horiek sendotzeko. Bestetik, gogoeta mugatua eta partziala izanda ere, ekarpena egiten dio lan zabalago bati; *bestelako nazioarteko lankidetzak* sustatu nahi duen lan-egitasmoari. Izan ere, konpromiso politikoan oinarritutako bestelako nazioarteko lankidetzak batek, prozesu askatzaileak protagonizatzen duten subjektu politikoaren alde eginez gero, aliantzak eraiki beharko lituzke jendarte-mugimenduekin. Eta, horrela, ekarpena egingo luke egungo jendarte-ereduan indarrean dauden zapalkuntza patriarkala, koloniala eta kapitalista gainditzeko lanean ari diren subjektuekin.

Gako-hitzak: jendarte-mugimenduen, emantzipazioa, dekolonizazioa, soziologia, nazioarteko lankidetzak.

Resumen

Dando continuidad a los planteamientos expuestos en el número 57 de la colección *Cuadernos de Trabajo* del Instituto Hegoa, presentamos una propuesta o invitación a mirar, interpretar y posicionarse de manera colaborativa con las movilizaciones populares y los movimientos sociales, buscando así contribuir a su fortalecimiento como agentes constructores de otras salidas alternativas a las diversas crisis que enfrentan nuestras sociedades.

Para ello hemos realizado, junto con activistas de organizaciones articuladas en La Vía Campesina y la Marcha Mundial de Mujeres, un análisis sobre los elementos que contribuyen a potenciar el carácter emancipador de los movimientos sociales, y también sobre las tendencias que limitan y debilitan el potencial emancipador de sus procesos (sus debilidades y desafíos).

Se trata de una reflexión parcial y limitada destinada, por un lado, a que su debate sirva para el fortalecimiento de estos sujetos políticos; y, por otro lado, es un aporte al trabajo más amplio que pretende resaltar la importancia que podría tener *una otra cooperación internacional* que, desde el compromiso político y la apuesta por apoyar procesos emancipadores, adoptase un enfoque de fortalecimiento de sujetos y de construcción de alianzas con movimientos sociales para superar las diferentes formas de subordinación y opresión vigentes en este modelo de sociedad moderna de marcado carácter patriarcal, colonial y capitalista.

Palabras clave: movimientos sociales, emancipación, descolonización, sociología, cooperación internacional.

Abstract

In order to give continuity to the proposals set out in Number 57 of the collection *Cuadernos de Trabajo* of the Hegoa Institute, we are presenting a proposal, or invitation, to observe, interpret and position oneself alongside popular mobilizations and social movements in a spirit of collaboration. In this way, we seek to contribute to strengthening the latter as agents for the construction of other alternative solutions to the different crises that our societies face.

For this purpose, together with activists from organizations articulated in La Vía Campesina and the World March of Women, we have made an analysis of the elements that contribute to strengthening the emancipatory character of social movements, and also of the tendencies that limit and weaken the emancipatory potential of their processes (their weaknesses and challenges).

This analysis is a partial and limited reflection that, on one side, through its debate, is intended to strengthen these political subjects; and, on the other, it is a contribution to the broader work that aims to stress the possible importance of another form of international cooperation. Through political commitment and the resolve to support emancipatory processes, such cooperation would adopt a focus of strengthening subjects and building alliances with social movements, in order to overcome the different forms of subordination and oppression in force in this model of modern society with its markedly patriarchal, colonial and capitalist character.

Key words: social movements, emancipation, decolonization, sociology, international cooperation.

Aurkibidea

1. Hausnarketa kolektiboa egiten mugimenduekin eta mugimenduentzat	7
1.1. Zergatik jendarte-mugimenduak?	11
1.2. Krisialdi sistemikoa eta epistemikoa: kapitalismoa, koloniatitatea, patriarkatua eta inperialismoa	14
2. Jendarte-mugimenduak subjektu askatzaile gisa ezaugarritzen	21
2.1. Ezaugarritze prozesuaren subjektuak	21
2.2. Jendarte-mugimenduen ahalmen askatzailea indartzen eta ahultzen duten elementuak	23
a. Antolakuntza-kultura eta antolakuntza-praktikari dagokienez	24
b. Eraikitzen dituzten ezagutza eta proposamenei dagokienez	34
c. Estrategiei eta erakundeekin zein beste eragile politikoekin dituzten harremanei dagokienez	45
3. Ondorio batzuk elkarlanean bidean jarraitzeko	55
Bibliografia	63

“Beharbada, begikoago ditut belar txarrak,
erasotzen ari diren uztak baino,
hainbesteko kemena adierazten dute-eta.
Haiek dira lurreko uztarik benetakoena”

H.D. Thoreau.

I. Hausnarketa kolektiboa egiten mugimenduekin eta mugimenduentzat

Gaur egun akidura, babesgabetasuna eta amorrua dira nagusi, lorpen sozialetan eta politika publikoetan egiten ari diren murrizketa izugarriak ikusita. Aurrekontu publikoetan egiten ari diren doikuntzek eta erreskateek argi erakusten digute merkatuek dituzten diru-gosea eta irentsi nahia, eta, horiek horrela, ez direla beren burua erregulatzeko gauza. Nabaria da gezur eta zinismo liberalaren jokaera, alde batetik, merkatu askearen alde egiten baitu mozkinak pribatizatu eta aberatsagoak areago aberasteko orduan, baina, beste aldetik, esku-hartze publikoaz baliatzen baita, galerak sozializatu, eta elite ekonomikoek eta politikoek egin dituzten gehiegikeriak herri xeheari ordainarazteko. Enpresa handiek, bankuetako eliteek eta alderdi politiko eta nazioarteko erakundeetako zuzendariak eta teknokratek batera diseinatzen dituzten politika publikoek funts publikoak desbideratzen dituzte, finantza-sistema kapitalista baretzeko eta egonkortzeko. Sistema kapitalistak duen irentsi nahia bere oinarri nagusien ondorioa da: irabaziak ateratzeko, etekinak maximizatzeko eta mugarik gabe metatzen jarraitzeko asmoaren ondorioa. Izan ere, “aberasteko denak balio du” dioen logikari jarraitzen zaio. Logika hori finkatu duen ideologia neoliberalak, gainera, elite

ekonomikoen parte-hartze abantailatsua eta mafiosoak instituzionalizatu du, lobbyak eta are ilun eta ustelagoak diren beste molde batzuk erabiliz: eroskeriak, gutun-azalak, prebarikazioa, egunsariak eta funtsen bidegabeko erabilera, nepotismoa eta abar. Hala galtzaile pribatuek, nola usteldu publikoek.

Bitartean, herri-mobilizazio eta ekintza kolektiboak ez du eragin politikorik izaten, herritarrei dagozkien prozesu erabaki-hartzaile estrategikoetan eta lan-, hezkuntza-, osasun – edota zerga-arloko politiketan. Nabarmena da krisi demokratikoa gero eta gehiago higitzen ari dela demokrazia liberaleko sistemaren badaezpadako sinesgarritasuna eta legezketasuna, bai eta bere engainuzko botere-banaketa ere.

Horiek horrela, jendarte-mugimenduak eta herri-mobilizazioak sendotu, eta gure jendartean dauden krisiei aurre egingo dieten hautabideak eraikitzeko eragile gisa indartu nahian, aurreko zenbakian –57. Lan Koadernoan–, nahasmendu eta krisi horien ezaugarriak zehaztu genituen. Finantza-, politika-, lan-, energia-, klima-, elikadura – eta zaintza-arloko krisiaren ezaugarriak sistema eta zibilizazio osoak duen krisiaren

zantzuak dira, gure jendartea eta sistema-mundu hau, oro har, krisi horretan sartuta baitaude, eta horrek oinazea eta indarkeria sentiarazten baitizkio planeta honetan bizi den jende gehienari.

Horrez gain, ibilbide bat egin genuen 1970eko hamarkadatik hona herri-mobilizazioa eta jendarte-mugimenduak aztertu dituzten ikuspegietatik, eta saiatu ginen argi azaltzen ekintza kolektiboari buruzko ikasketetan nagusitu diren teoriak oso kutsu nabaria izan dutela: mendebaldekoa, androzentrikoa eta objektibista. Hala, esate baterako, jendarte-mugimenduak aztertu eta eraiki dira, aldaketa egiteko agente diren aldetik, eta, aldi berean, *aztertze*ko objektu gisa, baina ez *subjeto* gisa, ez errealitatea aztertzen duten, errealitatea ulertzeko ekarpen kognitiboak egiten dituzten eta, era horretan, menpekotasuneko botereei eta nagusi den ideologiari aurre egiten dieten erresistentzia eta borrokako (eta borroka epistemikoko) botere bilakatzen diren subjektu modura.

Era berean, nabarmendu genuenez, teoria horiek joera kolonial eta generoko kutsu nabarmena zuten, langileen mugimendua hartzen baitzuten jendarte modernoetako ekintza kolektiborako jatorrizko erreferentzia bakar gisa. Aldi berean, ezkutuan uzten zuten kolonialismoaren eta arrazakeriaren aurkako borrokek eta borroka feministek zuten izaera askatzailea. Izan ere, XX. mendeko 60 eta 70eko hamarkadetan azaldutako jendarte-mugimendu berritza hartzen zuten, eta, horrenbestez, balioa kentzen zioten emakumeek eta kolonizatutako herrialdeek aurreko mendeetatik egindako borrokaren jarraipen historikoari eta, era berean, erresistentzia eta borroka horiek egindako ekarpen bereziei.

Bestetik gaineratu genuenez, nabarmena da teoria horiek, mugimenduak aztertzen dituztenean, instituzionalizatutako sistema politikoa hartzen dutela erreferentziatzat, eta, era horretan, protesta egitera eta aldian behin estatuarekin negoziazioan aritzera mugatzen dutela mugimenduen ekintza. Horrenbestez, ezkutuan uzten dute bestelako mundu sozial eta politikoen berri ematen diguten berezko prozesu askatzaileak eta autonomoak sortzeko mugimendu horiek duten gaitasuna. Azkenik, teoria horiek jendarte-erakunde eta talde-saretzat jo ohi dituzte herri-mugimenduak. Egia esan, erakunde eta talde horiek funtsezko zeregina betetzen dute mobilizazio

kolektiboari begira, baina, batzuetan, inimiziazioa-koak diren bestelako mobilizazio-uhinek gainditzen dituzte. Antolatutako sektoreak izaten dira mobilizazio-uhin horiek bultzatzen dituztenak, era askotan eta bide berritzaileak erabiliz jendarteko eta politikako borroketan hasten diren, eta erreferentzia ideologiko eta identitate politiko lausoagoak dituzten sektoreak.

Ibilbide analitiko horretan aditzera eman genuenez, XX. mendearen amaieran biratze epistemologikoa izan zen errealitatearen ezagutza ulertzeko moduan, errealitatearen eraikuntzan eta errealitatean izandako eraginean. Biratze hori gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da XXI. mendeko lehenengo hamarkadan. Izan ere, biratze epistemologiko horrek eztabaidaren mugak aldatu ditu (Mignolo, 2003), gizarte-zientzietan, oro har, eta ekintza kolektiboaz aztertze esparruan, bereziki. Gure ustez, biratze hori lagungarria izaten ari da lehen itxita zeuden eztabaida batzuk pixkanaka zabaltzen joan daitezen. Alde batetik, beste era batera hasi dira ikusten ikertzaileen rola eta horrek jendarte-mugimenduei “buruz” sortzen duen ezagutza. Bestetik, arlo akademikoan zeuden aurkako jarrera batzuei aurre egiten ari zaienez, gaur egun, jendarte-mugimenduak ez dira azterketaren objektutzat hartzen, aztertze subjektutzat –hain gaitasun epistemikoak duen balioa onartuz– eta berezko prozesu askatzailetzat baizik. Hala, beraz, argi onartzen da jendarte-mugimenduak ekintza politikoko subjektuak direla, eta azpiratzen, menperatzen eta baztertzen duten botere-harremanen ondorioz azaltzen diren gatazka sozialen emaitza direla (eta gatazka horiek nabarmentzeko lagungarriak direla).

Biratze epistemologiko eta hausnartzaile horrekin bat eginez, errealitatearen ezagutza eta bere eraikuntzako eta ulerkuntzako prozesu lankideak ulertzeko dugun modutik abiatuta, iradoki nahi dizuegu hemen aurkeztu dugun lan hau gonbidapen edo proposamen gisa irakur dezazuen. Ez genuke nahi ezinbestez horrela egitea, baina, nolana ere, gonbit egin nahi dizuegu harremanetan jar zaitezten jendarte-mugimenduekin eta mugimenduok eraikitzen dituzten errealitateekin, era horizontalean eta lankide gisa aritzeko moduan, eta horrelakotzat ikus, uler eta har ditzaazuen. Izan ere, horrela, laguntza eman ahal izango dugu, mugimendu horiek sendotzeko, gure jendarteek aurrez aurre di-

tuzten krisi ugariei bestelako hautabideak eraikitzeko subjektu diren aldetik¹.

Jendarte-mugimenduak ulertzeko dugun modua eta horrek sorraraziko dituen eztabaida epistemologikoak, metodologikoak eta etiko-politikoak dira, hain zuzen, aurreko lan-koadernoan aurkeztu genuen hurbilpen-lana, eta horretan oinarrituko dugu testu honetan azalduko dugun ikuspegi analitikoak. Horretarako, egokia iruditu zaigu lehen atal honetan labur-zurrean azaltzea lan honen inguruan dagoen ikerketa-prozesua, eta aditzera ematea prozesu horretan aritu diren lagunak zein izan diren. Gero, ikerketa-prozesu honetako gida izan diren jendarte-mugimenduei buruzko ikuspegi batzuei helduko diegu, eta sakon aztertuko ditugu. Lehenbiziko atalari buru emateko, zabal azalduko dugu aurrez aurre dugun krisi ugariko testuingurua ulertzeko dugun modua. Izan ere, testuinguru gatazkatsu hori da gure hausnarketa honen sorburua, hala aztertzeko proposamen gisa, nola esku-hartze moduan. Bestalde, gogora ekarri nahi dugu lan hau hausnarketa eta ikerketako prozesu kolektibo zabalago baten barruan dagoela kokatuta, eta lan horrek bereziki nabarmendu nahi duela bestelako nazioarteko lankidetzaren batek izan lezakeen garrantzia, betiere, konpromiso politikotik abiatuta eta prozesu askatzaileen alde jokatzu, subjektuak sendotzeko eta jendarte-mugimenduekin itunak egiteko ikuspegia hartuko balu².

Mugimenduekin lankidetzan eta baterako lanean aritzeko ikuspegi horri jarraiki, prozesu honen hasieratik kontuan izan dugu La Vía Campesina (LVC) eta Emakumeen Mundu Martxa (EMM) mugimenduek hausnartzeko eta azterketa egiteko prozesuko subjektu gisa hartu behar zutela parte ezinbestez, hainbat arrazoi zirela-eta: 1) nazioarteko jendarte-mugimenduen artikulazioak dira, eta mundu osoko erakunde eta pertsonen kopuru nabarmena hartzen dute barne; 2) prestatzen dituzten azterketak, eztabaidak, agendak eta estrategiak lan kolektibo eta barne-negoiazioako prozesu zabal eta konplexuen emaitza dira; 3) nazioarteko lankidetzaren berri dute, eta gaitasuna dute aldaketak proposatzeko eta proposamenak egiteko, hala alderdi politikoetatik nola teknikoagoak diren horietatik abiatuta; 4) prozesu honetan hausnarketa eta ikerketa egiteko guneak eta prozesuak jarri nahi genituen abian, eta, hor, hala LVC eta EMM, nola Hegoa Institutuko taldea prozesu horretako subjektu izango ginatke. Hortaz, bada, ahalegina egin nahi izan dugu unibertsitatearen eta jendarte-mugimenduen artean bestelako harreman-moldeak eraikitzeko, subjektu ikertzaile/objektu ikertuaren arteko dinamika asimetrikoa hausten, horrela, subjektu-subjektu dinamikara hurbiltzen diren harremanak garatu ahal izateko, eta, era berean, tartean sartuta dauden subjektu guztien arteko horizontaltasunaren, osagarritasunaren eta baterako lanaren logikan oinarritutako jakintzen arteko benetako elkarriketa abiarazteko³.

¹ Lehen atal honetan, jendarte-mugimenduei eta erabili ditugun premisa epistemologikoei buruzko oinarritzko abiaburu batzuk jaso eta sakon aztertu ditugu, baina, hala ere, proposamenaz eta bera eraikitzeko prozesuaz ikuspegi osoagoa izateko, ikusi hau: Martínez, Zesar; Casado, Beatriz; Ibarra, Pedro (2012): *Jendarte-mugimenduak* eta prozesu askatzaileak, 57 zenbakiko Lan Koaderno, Hegoa, Bilbo.

² Ikerketa-prozesu honen lehen urratsak 2009. urtean egin ziren, Jendarte-mugimendu askatzaileei lotutako lankidetzako agenda alternatiboa egiteko proposamena azken helburu gisa hartuta. Lehen aldian, agenda alternatiboaren sostengua izango diren esparru teoriko eta gogoetazkoaren oinarriak eta printzipioak finkatu dira. Horretarako, Hegoa Institutuak bi Lan-Koaderno prestatu ditu –57. zk. (2012) eta hau (60. zk.)–, eta, horien bidez, ereduzko esparru teoriko bat zehaztu du jendarte-mugimenduen izaera askatzaileari buruz. Bestetik, *Cooperación internacional y movimientos sociales emancipadores. Bases para un encuentro necesario* liburuan (Fernandez, Piris eta Ramiro, 2013), zenbait gako aipatzen dira nazioarteko lankidetzaren jendarte-mugimenduak indartzeko tresna egokia izan dadin, mugimendu horiek eraldaketa askatzaileko subjektutzat hartuta. Bestetik, oraintsu argitarara eman den *Movimientos sociales y cooperación*, ideas para el debate (2012) liburuan, oraingo lankidetzako agendaz egiten den balioespina jaso da (tresnak, aktoreak, praktika zehatzak), zenbait mugimendu eta/edo haiengandik hurbil dauden zenbait pertsona aztertuta eta haien esperientzia oinarritzat hartuta, eta, orobat, zenbait argibide edo proposamen finkatu dira, lortu nahi den nazioarteko lankidetzaren gauzatzeko.

³ Bigarren atalean zehatz ikusiko dugunez, testu honetan agertzen diren azterketak eta hausnarketak Hegoa Institutuaren ikerketatalde batek dinamizatu duen prozesuaren emaitza izan dira. Talde horretan, Brasilgo eta Guatemalako Emakumeen Mundu Martxako ekintzaileek (EMM-Guatemala eta EMM-Brasil), eta Hondurasko La Vía Campesina mugimenduko eta Euskal Herriko ekintzaileek hartu dute parte.

Zertaz hitz egiten ari gara jendarte-mugimenduez ari garenean? Ezaugarritzea eta analisisirako dimentzioak

57. zenbakiko Lan-Koadernoan ere, ikerketa-talde honek egin zituen hausnarketak azaldu genituen, hain zuzen, jendarte-mugimenduak egokiak ote diren prozesu askatzaileak bultzatzen dituzten subjektu kolektiboak izateko, hau da, ea zer dela-eta diren estrategikoak jendarte-mugimenduak –gure ustez– eraldaketa sozial askatzaileko prozesuak indartzeari begira. Horrez gain, ordukoan, ekintza kolektibo mota berezi eta desberdin baten ezaugarri orokorrak aurreratu genituen, eta “jendarte-mugimendu” edo herri-mugimendu” deitu genion horri⁴.

Ezaugarri horien bidez, alde desberdin ugaritan bereiz ditzakegu ekintza kolektibo mota hau eta beste molde edo agente batzuk: alderdi politikoak, sindikatuak, gobernuz kanpoko erakundeak (GKE), NYMBY⁵ mobilizazioak, etab. Era berean, ezaugarriok baliagarriak zaizkigu jendarte – edo herri-mugimenduak eta beste ekimen eta erakunde batzuk bereizteko, hain zuzen, mugimendu feministak, ekologistak, LGTB mugimenduak edota pobrezia- eta bazterketaren aurkako borroka-mugimenduak egin dituzten aldarrikapenei eta eskuratu dituzten lorpenei erantzuteko mobilizatzen diren horiek⁶.

EMM eta LVC mugimenduetako kideekin izandako tailerretan definizio kolektiboak eraikitzeke egin ge-

nituen ariketetan, argi egiaztatu ahal izan genuen “jendarte-mugimendu” kontzeptua era kritikoa berrikusten ari dela eta atzera berriz definitzen ari dela praktikatik abiatuta. Alde batetik, nabaria izan zen ezin zela definizio bakar eta itxi bat sortu “jendarteko mugimenduaren” ekintza kolektibo motari buruz, eta, era berean, ezin zela murriztu aurretik eratuta zeuden erakunde eta taldeetara, batzuetan, herri-borrokek eta mobilizazio-uhinek erakunde horiek gainditzen dituztelako. Horren ordez, ezaugarri orokorrak sortu ziren, ekintza kolektibo molde batzuk eta besteak hobeto bereizi ahal izateko. Bestetik, ezaugarri horiek zehazteko egindako bilaketaren bidez, argi ikusi genuen proposatzen genuen nozioa baliagarria zela, eta ezinbestekoa zela irekitasunez eta malgutasunez jokatzeko “jendarte-mugimenduaren” ekintza kolektibo moldeen definizioak ezartzean. Hortaz, berretsi genuenez, askoz ere egokiagoa da ezaugarri zabalak eta malguak erabiltzea, baina, aldi berean, argi jakin ahal izatea zertaz ari garen “jendarte-mugimendua” edo “herri-mugimendua” aipatzen dugunean, ekintza kolektiboko beste molde batzuetatik ondo berezita.

Horrez gain, LVC eta EMM mugimenduetan egituratuta zeuden erakundeetako ekintzaileekin izan genituen eztabaida horien bidez, argi ikusi genuen aurreko Lan-Koadernoan azaldu genuen beste kontuetako bat. Izan ere, koaderno horretan ohartarazten genuenez, joera eta ezaugarri horiek ez ziren inola ere zentzu orokorrean aurkeztu edo ulertu behar, “prozesu his-

⁴ “Jendarte-mugimendu” hitzarekin hizpide dugun ekintza kolektibo mota bereizteko, ezaugarri hauek zehaztu ditugu ikerketa-prozesu honi begira: “1) Ekintza kolektibo mota honetan era askotako erakunde hartzen dute parte, eta normalean oso erraza izaten da erakunde horietan sartzea –zapalkuntza, kontrola edo infiltrazioa dela-eta ezkutuan edo erdi ezkutuan ibili behar ez badute behintzat–, eta haien egitura ez da batere formalizatuta ez hierarkizatuta egoten. Erakunde eta elkarte horiek beren autonomiari eusten diote, baina kide izateko sentimendu edo halako nortasun kolektibo bat dute batera, munduan egoteko eta mundua ulertzeko modu kritikoa eta inkonformista (menderakaitza, errebeldea, disidentea) partekatzen dutelako; eta finkatuta dauden botere-egitura batzuk salatzen eta des-naturalizatzen dituztelako, indarrean dauden konbentzio, itxaropen eta egitura sozialak onartu gabe; 2) Horiek horrela, diskurtsoak, mezuak eta eskema kognitiboak sortzeko duten gaitasuna erabiliz, interes orokorrekoak diren salaketa eta beharizan kolektibo batzuk adierazten dituzte. Eta gatazkako politikaren logikatik aritzen dira, erantzukizun politikoak adierazten baitituzte eta arerioak zein diren zehazten baitute, batzuetan konfrontazioak eta hausleak diren mobilizazio-praktikak eginez. Horren ondorioz, sistema juridiko-politiko instituzionalizatuak errepresioa erabiliz erantzun ohi die; izan ere, mugimenduok normalean ez dute botere politiko instituzionalizatu bereganatzeko asmorik izaten, baina jendartean oro har dauden botere-harremanak eraldatu nahi izaten dituzte; 3) Gainera, proposamen eta praktika alternatiboak garatzen dituzte, menpekotasunik gabeko etorkizun askatzailea eskatzeko eta irudikatzeke, hau da, herrialde, jendarteko talde eta pertsona guztiak barne hartuko dituen etorkizuna eskatzeko” (Martínez et al., 2012:34).

⁵ NYMBY, “Not in my backyard” ingelesezko hitzen siglak, hau da, interes partikularrak babesteko mobilizazioak: adibidez, drogen menpekoei edo etxegabeei laguntza emateko zentroa gure auzoan jartzearen aurka azaltzea, baina beste auzo batean jartzearen kontra ez egotea.

⁶ Hemen, hauek ditugu hizpide, besteak beste: abortuaren aurkako ligak, bikote homosexualen adopzioaren edo ezkontzaren aurkako taldeak, edota hondakinak atez ate biltzearen aurka dauden koordinakundeak –askoz ere gehiago birziklatzeko aukera ematen baitu sistema horrek–. Kasu horiek mugimendu feministak, LGTB mugimenduak eta mugimendu ekologistak egin dituzten aldarrikapen historikoen aurkako mobilizazioak dira; eta aldarrikapen historiko horiek, berriz, interes orokorrekoak dira, eta ez dira inola ere baztertzailak, jendarteko pertsona eta talde guztiak hartzen baitituzte barne.

torikoak eta, era berean, testuinguru bakoitzak duen idiosinkrasia kulturalak eta politikoak ezaugarri bereziz hornitzen dituztelako jendarte-mugimenduaren adierazpen ugariak” (Martínez et al., 2012:35).

Lehen esaten genuenez, sistematikotasun, zorroztasun eta zuhurtasunaren printzipio zientifikoei jarraiki egindako lanaren emaitza gisa, jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen duten ezaugarri edo joera batzuk zehaztu ditugu, bai eta izaera askatzaile hori muga dezaketen joera eta ezaugarri horiek ere. Bistan denez, joeraz ari gara, ez dugulako uste jendarte-mugimenduko erakunde eta sare guztiek ezaugarri horiek edukiko dituztenik, edota ehuneko ehunetan beteko dituztenik. Aitzitik, joerak dira, neurri handiagoan edo txikiagoan lagungarriak direlako ekintza kolektibo mota horien izaera eta ekarpenak zehazteko.

Ildo horretan, ezaugarri horiek sailkatu ditugu, aurreko argitalpenean aurkeztu genuen eta testu honen 2. atalean garatuko dugun eskema analitikoari jarraiki. Eskema horrek alderdi hauek bereizten ditu, herri – eta jendarte-mugimenduek egindako ekintza kolektiboan:

- a) Antolakuntzako praktikak eta kulturak: irisgarritasuna, kide izateko sentimendua, autonomia, antolakuntzaren funtzionamendua, subjektibotasunen eraikuntza eta abar.
- b) Errealitatearen diagnostikoa eta proposamen eraikitzaileak: aldarrikapenak, diskurtsoak, mezuak, sormena eta ekoizpen kognitiboa.
- c) Proposamenekin aurrera egiteko baliagarriak diren estrategiak: praktika mobilizatzaileak, logika politikoak, beste agente politiko eta instituzional batzuekiko harremanak, eraikuntzako praktika alternatiboak, etab.

Bereizketa horrek hein batean jasotzen ditu hainbat ikuspegitatik egitura eta baliabide mobilizatzaileei buruz aztertu diren alderdiak, bai eta interpretazio, diskurtso eta nortasunari lotutako esparruak, eta gatazka politikoaren eta testuinguruaren araberako aukeren dinamikan finkatutako harremanak ere. Hala ere, erabili ditugun ezaugarriak eta azterketa egiteko eskema ez ditugu xede deskriptibo edo analitiko hutsekin erabili, maiz mugimenduek berek dituzten helburuekin zerikusirik ez duten xedeekin, alegia. Aitzitik, proposatu ditugun eztabaiden xede nagusia subjektu horien helburuak

eta beharrianak sendotzea izan da, era horretan, baterako jakintza sistematizatzen eta eraikitzen laguntza emateko, eta jakintza askatzailea sortzeko ahalegina egiteko, hau da, agindu eta arautu beharrean, era kritikoan berrikusi eta askatuko duen jakintza lortzeko.

Era horretan, hausnartzeko eta aztertze eskema hori paraleloan eraiki eta hornitu da Emakumeen Mundu Martxa eta La Vía Campesina mugimenduek egin duten lanaz –oinarrizko subjektuak izan baitira ikerketa-prozesu osoan– eta argitalpen honetaz. LVC eta EMM mugimenduekin egindako lanari esker, ikerketa osorako hartu ditugun premisa epistemologikoak eta metodologikoak praktikan jarri eta berretsi ahal izan ditugu. Horrez gain, lehen urratsak egin ditugu baterako ikerketa-prozesuak eraikitze, ikasbideak atera ditugu, eta hainbat erronkari egin diegu aurre bide horretan. Gure ustez, oinarriak finkatu ditugu LVC eta EMM mugimenduekin lankidetzako eta konfiantzako harremana eraikitzen jarraitzeko, era horretan, ikerketa soziala ulertu eta egiteko era honekin batera sakontzen jarraitu ahal izateko.

1.1. Zergatik jendarte-mugimenduak?

Benetan berresten dugu jendarte-mugimenduak garrantzi bereziko agenteak direla, jendarte guztietan eta, oro har, sistema-mundu honetan sektore sozial batzuek beste batzuk gutxiagotzeko, menperatzeko eta azpitik edukitzeko dauden moldeak ulertzeko, horretaz hausnartzeko eta esku hartzeko garaian. Gure ustez, agente edo subjektu politiko horiek estrategikoki garrantzitsuak dira, zapalkuntzako molde horiei aurre egiteko hainbat agentek egiten dituzten erresistentzia, borroka eta ahalegin askatzaileak indartze aldera.

Jendarte edo herri-mugimenduen bereizgarria den ekintza kolektibo bereziaren ezaugarriak zehaztean aipatu dugun izaera irekia, horizontala, disidentea, aurkakoa eta eraikitzaileak aipamena egiten die inkonformismo eta asaldurazko bulkada batez mobilizatzen diren pertsonen, ekimenei eta erakundeei; bulkada horren ondorioz, sakonki astintzen baitute eta (beren buruei eta besteiei) interpelatzen baitiete zein ote diren sektore sozial batzuek pairatzen dituzten oinaze, inposizio eta menpekotasuneko egoerak sorrarazten dituzten mekanismoak: emakumeak, langabeak eta txirotuetoako maila sozialetako pertsonak, langileak eta nekazariak,

migratzaileak, eta zapalkuntza edo bereizkeria jasan duten pertsonak, hain zuzen, beren arraza, sexu-hautua, funtzionaltasun fisikoa edo mentala, edota hizkuntza dela-eta, edo nazio bateko kide izateko sentimendua izateagatik, natura eta lurra babesteagatik, edota armaden eta esku-hartze militarren aurrean antimilitarismoa babesteagatik zapalkuntza jasan duten horiek.

Zeharka eta gainjarrita dauden bereizkeriazko harremanekiko inkonformismo kritiko eta disidente horrek bultzatuta, aurre egiten diete azpian dauden botere-egiturei eta hierarkiei. Hala, genero, maila eta etnia dela-eta sortzen diren menpekotasunak elkarri lotuta daude, eta, esate baterako, horren ondorioz, gero eta indar gehiagoz proposatzen ari da erresistentzia eta borroka desberdinak elkarri korapilatze dagoen beharra. Izan ere, era horretan bidea zabalduko genuke izaera osoagoa eta intersektorialagoa duten hautabideen praktikak eta proposamenak bilatzeko, betiere, aintzat hartuta ez ditugula berriro errepikatu behar botere-, baliabide- eta aukera-arloko desoreka sozialak areago handitzen dituzten hierarkiak eta egiturak. Adibidez, honela adierazten du Guatemalako Emakumeen Mundu Martxaren antolakuntzan erreferentia den Sector de Mujeres⁷ itun feministako kide batek:

“Sistema zapaltzaile bati egiten diogu aurre elkarrekin, patriarkala, kapitalista-neoliberal, kolonialista, arrazista eta lesbofobikoa den sistema bati. Bere ondorioak nozitzen ditugu gure gorputzetan, banaka eta taldeka nozitu ere, eta aurre egiten diogu pixkanaka, gauzak agerian jarritz, ulertuz eta ikasitakoa ahaztuz, gure hausnarketen, azterketen, eguneroko praktiken eta erresistentzien bidez. Gure gorputzei, komunitatei, lurri eta naturari ezarritako menpekotasun-mota guztien aurka gaude [...] Munduko Martxak kapitalismo patriarkalaz ere hitz egiten du, eta guk behin eta berriz esan dugu kolonialismoa ere sartu behar dela [...] zapalkuntzen artean aipatzen ez baduzu, kanpoan geratuko da, ez da maila berean egongo. Lagungarria zaigu argi ulertu ahal

izateko sistemak eragin desberdina duela gutako bakoitzarengan, baina sistema bera dela azken batean. Areago zabaltzen digu sistemak pertsona zehatzen bizitzan dituen ondorioak ulertzeko aukera” (EMM-Guatemala).

Aurreko Lan-Koadernoan esaten genuenez, gure ustez, agente politiko eta errealitatearen ekoizpen sozialeko gune dira, eta, beraz, sistema sozialaren ertzekin edo periferiako sektoreekin identifikatzeak edo horien kidea izateak, eta, era berean, jakintza, proposamen eta praktika alternatiboak modu proaktiboan bilatzeak sormen soziala eta berrikuntza politikoa akuilatzen dituzte, eta, era horretan, ereduazko subjektu kolektibo bilakatzen dira, gure jendarteetan dauden krisien hainbat alderditatik ateratzeko irtenbide askatzaileak eraikitzeari begira.

Alternatiben bilaketa proaktibo eta sormen horren adibide gisa, hor ditugu proposamen eta praktika ekologistak, feministak, nekazaritzakoak eta indigenak jendarteari buruz egituratzen ari diren ikuspegi berriak, bizitzaren iraunkortasuna eta ugalketa erdiguneari jarri nahi dituztenak. Era horretan, bizitzaren zerbitzuan jarri nahi dute ekonomia, eta, era berean, biosferaren azpisistema gisa, ez alderantziz. Proposamen horiek argi erakusten digute beste bide batzuk egon daitezkeela, zibilizazioaren alternatiba moduan, izaera kolonial, patriarkal eta kapitalista nabarmena duen modernitateaz aparte, eta alternatiba hori modu desberdinean egituratuko dela, testuinguru soziokultural zehatzaren arabera. Elikadura-buruja-betza, desazkundera, ekofeminismoa, ondo bizitzea eta elkarrekin ondo bizitzea landuz, berriz zehaztutako esanahi eta alternatiba horiek, gaur egungo egoera historikoan, kapital-bizitzaren arteko gatazka auzi nagusia dela adierazten digute. Hortaz, agerian jartzen dute estraktibismoa, ekoizpenzalekeria, metaketa eta mugarik gabeko onura bezalako egungo logikak guztiz bateraezinak direla zaintza, (elkarrekin) ondo bizitzea eta baliabide mugatuak dituen planetako bizitzaren iraunkortasuna bezalako logikekin.

⁷ Erakunde hau 1994an sortu zen, Guatemalako Bake Akordioak sinatzeko izan zen negoziazio-prozesuaren esparruan. Emakumeen erakundeak egituratzeko gune gisa eratu zen, eta 1996an Sare Nazionala modura azaldu zen, emakumeen erakundeak eta erakunde mistoak barne hartuta –arloan indibidualean– eta landa-gune eta hiriguneetako eta nortasun etniko desberdineko emakumeak bilduta. Informazio hori haien web orrian dago eskuragarri: <http://www.sectordemujeres.org>

“Jendarte-mugimenduaren barruan ere garrantzizkoa da alderdi filosofikoa, bizitza ikusteko eta ulertzeko modu bat; baina, horrez gain, garrantzi handia du lortu nahi dugun esparru askatzailean gizon eta emakume izateari buruzko imaginario berriei egiten diegun ekarpenak, eta ekarpen hori nola egiten dugun. Imaginario berri horretan, bestalde, funtsezkoa da bizitza den guztiarekiko harremanari eustea” (EMM-Guatemala).

Hortaz, ondo jabetu behar dugu bizitzak izaera hauskorra eta zaurgarria duela, eta, zaurgarritasun horren ondorioz, nahitaezkoa dela elkarrekiko menpekotasuna, osagarritasuna eta elkarren arteko zaintza lantzea, hala gizakien artean, nola gizakien eta naturaren artean. Hala, bada, kapitala ugaltzea, trukeko balioa, merkantilismoa, onura etekintsua edota lehiakortasuna ez dira inola ere gure ahaleginen eta lehentasunen xedea izango. Balio horien orde, bizitzaren ugalketa eta iraunkortasuna kokatu behar dugu, eta zuzentasunean, erabilera-balioan, trukean, laguntzan eta elkarrekiko lankidetzan oinarritutako dinamikak erabili behar ditugu.

Ildo horretan, gure ustez, jendarte-mugimenduek alderdi politikoa zabaltzen dute, eta, beraz, demokrazia praktika gisa biziagotzen eta sakontzen duen gainezkatzeko demokratikotzat jo dezakegu. Izan ere, erresistentzia, aurkakotasun eta sorkuntza propositiboko –teorikoko nahi praktikoko– beren ekintzekin, beste bide batzuk seinalatzen eta urratzen, eta beste bidegurutze⁸ batzuk zabaltzen ari baitira (Ceceña, 2012). Era horretan, ez dute halaberrez onartu nahi baldintzatzen gaituen baina zehazten ez gaituen prozesu historikoen oraina. Prozesu hori, beraz, era nabarmenean hobetu eta alda daiteke, askatzailea izan dadin, eta menperatzeko, gutxiagotzeko edota nagusitzeko harreman edo egoera asimetrikorik eduki ez dezan. Gizakiari dagokion guztia bezala, jendarte antolatze eta arautzeko moduek izaera irekia eta kontingentea dute –giza

harremanen eta erabakien sorkuntza historikoa–, betiere, ondo kontuan izanik jendarte arautzeko eta bertan esku hartzeko ikur desberdinetako oinarriak, ideiak, interesak eta proposamenak aldeztu dituzten sektore desberdinen arteko botereko eragin-trukeak eta indarren korrelazioa.

Hain zuzen, botereko eragin-truke horien izaera asimetrikoa dela-eta, mugimenduak, askotan, bazterreratu egiten dira, hala epistemikoki nola politikoki. Azken batean, desberdintasun, menpekotasun eta bazterketen aurka egiten dituzten borrokek agerian jartzen eta nabarmentzen dituzte nagusi den kulturak ukatu, edota folkloriko edo ikusezin bihurtu duen errealitatearen neurriak. Arlo pertsonal eta pribatuan utzita zeuden eguneroko bizitzako esparruak politizatzen dituzte, eta, beraz, areago zabaltzen dira eraldaketa askatzailea behar duten gunek.

Jendarte-mugimenduak epistemikoki bazterreratu dira –eta bazterreratzen dira–, errealitatearen ezagutzaren eta pentsamenduaren esparrua –eta, zehazki, agerian jartzen dena eta ikusezin bihurtzen dena– liskarrean dagoen eremu bat delako, alegia, borroka-esparru bat, kasu honetan borroka epistemikoen esparrua. Ildo horretan, sarritan esperientzia praktikoak eta esperientzia horiek sorrarazitako jakintzak ikusezin bihurtzen dira, jakintza-iturria izan ez daitezen:

“ [...] Nola berreskuratuko dugun geure esperientzia, geure bizitza, jakintza iturri giza. Izan ere, sarritan arazoa da jakintza hartzen dela zugandik kanpo, bereiz dagoen zerbait balitz bezala. Eta, ildo horretan, aurretik dugun erronka nagusietako bat da bizitzaren hainbat alderdirekin lotura lortzea eta dena sakonki astintzea. Izan ere, kontu batzuk naturalizatu egiten ditugu, ziurtzat jotzen ditugu [...] “Normala” dena erlatibizatzea erronka handi bat da, gauza guztien artean dagoen lotura aurkitu ahal izateko [...] era berean, kritikoki berrikusiz ezagutza

⁸ “Kapitalismoak bere aukeren muga guztiak ukitu ditu. Suntsitzeko duen gaitasuna askoz ere handiagoa da sortzeko duen indarra baino, eta horrek sisteman eragiten duen desorekak bidea ematen die hondamendiei eta bidegurutzei [...] Kapitalismoaren barruan, ez dago irtenbiderik bizitza gauzatzeko; kapitalismotik kanpo ziurgabetasuna dago, baina dena da aukera. [...] Sumak qamaña, sumak kawsay bezalako ikuspegiak, hau da, autonomia eta ongi bizitzea, ziurtasunik gabeko apustua dira. Ikuspegi horiek ezinbestez asmatu behar ditugu, sustrai sakonak izan arren. 500 urte eman ditugu osagarritasunaz genekiena desikasten eta lehiatzeko ondo jabetzen, erresistentzia eta borroka eginda ere. Mundua hainbeste aldatu da, non ez baita aski izango antzina genituen moldeak gogora ekartzea. Imajinatu, sortu eta esperimentatu behar dugu” (Ceceña, 2012:128).

eraikitzeke moduak. Jakintza soilik akademian kokatu beharrean, jakin badakien jende gisa agertuz (EMM-Guatemala).

Horregatik erabaki dugu subjektu horiekin eta horientzat lan egitea eta zaintzea, eraikitzen ari diren praktika, ideia eta imaginario horiek elkarrekin hausnartuz, aztertuz eta sistematizatuz. Hautu epistemologiko eta etiko-politiko hori egiteak ez du esan nahi mugimenduei buruzko begirada idealizatu, sinplista edota losintxaria hartzen ari garenik. Izan ere, bertan gozo geldituta kexatuz gero, ez diogu ekarpen handirik egingo subjektuak eta prozesuak indartzeko ekintzei. Horren ordez, ilun-argiak dituen begirada bat da gurea, dialektikoa eta autokritikoa, kontu egiten baitie hala indar-guneei nola ahuldadeei, eta, beraz, desira eta indar askatzailea mugatzen edo ahultzen duten kontraesanei eta tirabirei ere bai.

1.2. Krisialdi sistemikoa eta epistemikoa: kapitalismoa, koloniatitatea, patriarkatua eta inperialismoa

Azken garai hauetan izan diren krisi ugariak elkarri korapilatuta daudenez, 57. zenbakiko Lan-Koadernoan, bat egin genuen krisi horiek sistema eta zibilizazioaren krisiaren zantzutzat hartzen dituzten ahots ugariekin. Hasieran esan dugunez, finantza, energia, klima, lan, elikadura eta pertsonen eguneroko bizitzan eman beharreko zaintzak bezalako esparruetan dauden ziurgabetasunek eta asaldurek goitik behera zeharkatzen dituzte gure jendarteak eta, oro har, sistema-mundu hau. Haietako bakoitzak dagokion oinaze – eta indarkeria-dosia eragiten die planeta honetan bizi diren pertsona gehienei.

“Krisi ugari horiek ikusita, nabaria da Fukuyamaren historiaren amaieraren nozioa (1992) [...] sinplistegia eta linealegia zela. Izan ere, berrikusketa sakona egiten badugu, argi ulertuko dugu ez garela kapitalismoak, liberalismoak eta demokrazia ordezkatzaileak aurrera eginez gero ezerezean urtuko diren egoeraren araberrako krisien lekukoak eta zatiak. Elikaduraren krisiari dagokionez, munduko milioika lagunak gosea eta heriotza eragiten dituen ez da elikagaiak ekoizteko edo banatzeko dagoen ahalmena. Tresna ekonomikoak eta sozialak dira gose eta heriotza horien eragileak,

biztanle-gune jakin batzuetan metatzen baitute janaria, eta, bitartean, goseak hiltzen uzten baitituzte beste biztanle eta leku batzuk. Gainera, maiz, elikagai horiek ekoizti dituzten lekuak uzten dituzte horrela, elikagaiak beste leku batzuetara garraiatuta” (Daza, et al., 2012:26).

Bestetik, krisi politikoa, protestak, mobilizazioak eta beste modu batzuk ekarri genituen hizpidera, ordezkaritza eta sinesgarritasun aldeko krisi nabarmenean dagoen demokrazia formaleko sistemako botere politikoen gainean botere ekonomikoak eta beren eliteak daudela ikusteak sorrarazten duen sumindura adierazteko moldeak denak.

Krisi politikoa egoteaz gain, finantzako eliteek eta korporazioek ezartzen dituzten merkatuko aginduen azpian gaude, eta, hortaz, sustatzen dituzten politikek are pobregoa bilakatzen dituzte biztanleak, era horretan, eliteek beren egoera abantailatsuei eutsi nahi dietelako. Horrek guztiak alderdi epistemikoa du, Daza, Hoetmer eta Vargasek aipatzen dutenaren ildoan: “jendarteak zenbateko ahalmena duen bere buruari buruzko ezagutza sortzeko, hain zuzen, dituen oinarritzko arazoak konpontzeko baliagarria izango den ezagutza” (Daza, et al., 2012:26).

Ezintasun nabarmena sumatzen da gizateriaren etorkizunari begira dauden erronka nagusiei aurre egiterakoan, zailtasunak daude arazo horiek behar bezala ulertzeko, haietaz jabetzeko eta haiei arreta egiteko. Batez ere, borondate politikorik eza eta arduragabetasuna nabaritzen da, eta, horren ondorioz, arazoak ulertzeko ezintasuna eta, azken batean, arreta gabetza ere bai. Goiko egileek diotenez, krisiaren nozioak berak esanahi bikoitza du. Alde batetik, aipu egiten dio arazo batek dagozkion konponbideak eta erantzunak gaintzen dituenean dugun une historikoari. Bestetik, inflexio-une bat da, eta, une horretan, agerian uzten da gure antolakuntza soziala eta politikoa ez dela aski aurrean ditugun erronka kolektiboei aurre egiteko, eta, hargatik, areago pizten da beti indarrean egon den eztabaida, gure jendarteak antolatzeke dauden modurik egokienei buruzkoa. Egile batzuek proposatzen dutenez, horrek aukera ematen digu krisia, mehatxu gisa hartu beharrean, etorkizunaz liskartzeko garai moduan ikus dezagun. Horrez gain, atzera erakusten digu jendartemugimenduek eraldaketa sozial askatzaileko prozesuak

indartzeko eta haietaz hausnartzeko duten izaera estrategikoa.

Dirudienez, bidegurutze historiko horretan gaude, eta, beraz, egokia iruditzen zaigu epistemologikoki zabalik egotea gorago aipatu ditugun jakintza desberdinen arteko elkarriketara, bereziki, proposamen eta prozesu alternatiboen sorkuntza teorikoan eta praktikoan aritzen diren agenteekin. Jendarteko mugimenduak, bakoitzak bere borroka eta ezagutza bereziekin eta dagokion lekutik arituta, imaginario eta izateko molde berriak sorrarazten ari dira, eta gizakiak bizitzaren gainerako alderdiekin beste era bateko harremanak izatea proposatzen dute. Zentzu berriz hornitzen dituzte jendarteko interdependentzia, bizitzaren zaugarritasuna, ugaltzeko dituen tresna sofistikatu ziklikoak, eta iraunkortasun eta zaintzako prozesuak. Era horretan, aurrerapen modernoaren imaginarioak duen linealtasun eboluzionistatik ateratzen dira, eta bidea urratzen dute beren ekintza kolektiboaren bidez alternatibak saiatzeko, eta, beraz, izan daitezken bestelako etorkizunak lantzeko. Demokrazia eta Eraldaketa Globalerako Programako gure adiskide perutarrek diotenez, praktika teoria baino lehenago izaten da, eta, hargatik, mugimenduen ekintzak bideak zabaltzen ditu, eta kontzeptuak eta berrikuntza teorikoa eta epistemologikoa sortzen ditu.

Langabezia eta ezberdintasun ekonomikoak izugarri areagotu duen finantza-iruzurra gertatu zenetik igaro diren urteetan ikusi dugunez, kapitalismo neoliberalaren nagusitasun hori berriz egokitu da finantza-sistemak dituen beharrianen arabera⁹ –hasierako uneetan, krisia eragin zuen doktrina ultraliberala era kritikoki berrikusi bazen ere–. Orain arte krisiei eman zaizkien erantzunek ez dituzte inondik onartzen nagusi den aurrerapen – eta garapen-ereduak dituen egiturazko ahuldadeak. Gure ustez, areago sakontzen ari da merkatuko logika neoliberaletan eta garapen zaleetan: lehiakortasuna, irabazteko asmoa, espekulazioa, ahalik eta onura gehien ateratzea, metaketa, hazkundera, ekoizpen-zalekeria eta kontsumismoa. Horrez gain, sektore publikoa txikiagotzen eta pribatizatzen ari da, eta horrek areago handitzen du korporazio pribatuen

eta finantzako eliteen boterea. Bestalde, ehun sozialeko eta elkarrekiko laguntzako komunitateko sareak banabanaban desegiten ari dira, eta hori oztopo da jendarteko beharriari autoantolatutako eta merkantilismoaren logikatik ateratako erantzunak eman ahal izateko.

Azken batean, gure iritziz, desarautzeko eta esku-hartzeko logika neoliberalak lasterragotzen ari dira, entzungor egiten zaie krisi ekologikoei, energetikoei eta elikadurako krisiei... eta kapitalismo neoliberalaren sustatzaile nagusiak beren diskurtsoak eta politikak berregituratzen ari dira. Horrek berez dakar berekin fede gehiago izatea merkatu kapitalistan eta aurrerapen moderno eta zientifizistaren imaginarioan; eta, imaginario horren arabera, arrazoi zientifikoak eta aurrerapen teknologikoei ekarriko dute gure jendarte – eta garapen-ereduak dituen arazoan eta krisien konponbidea: “ez da onartzen krisiak duen izaera sistemikoa, hori argi islatzen baita arazo guztiek konponbide teknologikoa dutela dioen ideian (...), hori agerian uzten da, elikagaien krisiaren konponbide gisa nekazaritza transgenikoa bultzatzen denean, krisi klimatikoari ematen zaion erantzuna karbonoen merkatua denean, eta krisi energetikoaren irtenbide gisa energia nuklearra aurkezten denean” (Daza et al., 2012:34).

Ildo horretan, Sonia Álvarezek proposatzen duenez (Álvarez, 2008), kapitalismo neoliberalak izaera politikoa eta kulturala duen eta patroi eta ondorio ekonomikoak dituen jendarteko proiektu baten modura hartu behar dugu, eta ez alderantziz. Hau da, jendartean esku-hartzeko, eta jendartea arautzeko eta aldatzeko proiektu bat da, nazioko eta nazioarteko talde eta maila jakin batzuen nagusitasunaren eta aberastasunaren zerbitzuan jarrita.

Hortaz, badirudi beharrezkoa dela era kritikoa beraztertzea mendebaldeko zibilizazio moderno honek sortu den jendarte-ereduan azken mendeetan eraikitzeko erabili diren oinarri eta imaginarioetako batzuk. Izan ere, krisiak ez dira arriskutsuz hartzen bizitzak planetan jarraipena izan dezan, eta horrek agerian jartzen du, sistemikoak izateaz gain (sistemak

⁹ Aurreko Lan-Koadernoan adierazi genuenez, 70eko hamarkadan jo zuen erasora, eta mugarik gabe hedatu zen 90eko hamarkadatik aurrera, munduko ordena bipolarren bukaerarekin batera.

berak dituen ugaltze-tresnen eta bilakaeraren ondoriozkoak), krisiak erabat lotuta daudela modernitatearen hasierako sustraiekin. Modernitatearen oinarrian, gizateria-naturaren arteko harremanaren, eta botere eta jakintzaren arrazionalizazioa dago, eta hori androzentrikoa, eurozentrikoa/koloniala eta kartesiarra da, hurrenez hurren. Horrek gizakia naturatik bereizi, eta harreman hori hierarkizatzen du, era horretan, menperatzeko eta ustiatzeko. Era berean, krisi hau sortzeko baldintzak ekarri dituzten gutxiagotzeak eta menpekotasunak naturalizatzen ditu, eta, aldi berean, bera ulertzeko modua ezkututzen du.

Aurreko Lan-Koadernoan azalpen dekolonialetan buruz¹⁰ eta eurozentrikoak ez diren eskemak eta pentsaerak lantzeko egiten dituzten ahaleginei buruz aztertutako ikuspegi batzuk berriz hartuz eta sakonduz, Anibal Quijanoren arabera, Amerika konkistatzean, kodifikazio bitarra finkatu zen kolonizatzaile eta kolonizatuaren artean, desberdintasun biologikoan oinarrituta (arrazaren ideian). Ideia horixe dago natural gisa barneratu ditugun beste dikotomia batzuen oinarrian, ez baititugu hartu historikoki bortxaz ezarritako botere-harremanen emaitza gisa. Zibilizatu/primitiba, modernoa/tradizionala, zibilizazioaren egoera/naturaren egoera edo egoera basatia bezalako kodifikazioek zerikusia zuzena dute modernitatean finkatuta dagoen gizateria naturatik bereizten duen ideiarekin.

“Natura menperatzeko ideiak (“zibilizazio” bilakatu ahal izateko) eta horrek subjektu/objektu bereizketan duen baliokidetasunak espazio diskurtsibo bat sortu zuten, hainbat esku-hartze egiteko, nagusi den poloaren arrazoiaren oinarrituta menpeko poloa zibilizatze/eratzeko/eratzeko/diziplinatze. Hau da, logika horri jarraiki, gizonak emakumea gobernatu behar du, zuriak indigena, aberatsak behartsua, helduak haurra, gizakiak natura, arrazoiak emozioak eta zientziak jakintza praktikoak (...), eta, era horretan, lehenengo poloak bigarrena

kolonizatzen du, bere objektibotasunean oinarrituta (historia, kontingentzia, konplexutasuna... kentzen baitizkie naturari, emakumeari, indigenari, etab.)” (Daza, et al., 2012:28-29).

Egile horiek Zygmunt Bauman aipatzen dute, kultura modernoaren sineste sendo nagusiak nabarmen-tzean: gizakiak –eta gero merkatuak, gizakien arteko eragin-truke arrazoizko eta konplexu gisa–, modu arrazionalen esku hartuz, amaierarik gabeko aurrerapeneko zibilizazio-ordena (eboluzionismo determinista) sor dezakeela eta ordena hori zibilizatu dezakeela dioen ideia. Ideia horren ondorioz, zapalkuntza batzuk naturalizatu, eta beharrezkotzat jo dira, eta bidea zabaldu zaio indarkeriari, arrazoiaren izenean, lehenik zibilizatze, gero modernizatze eta gaur egun demokratizatze estrategia gisa.

Arrazoizko aurrerapenean eta garapenean oinarritutako zibilizazio modernoak “beharrezkotzat” dituen zapalkuntza horiei dagokienez, eta mugimenduen ekarpen gisa adierazi dugunaren ildotik; genero, klase soziala, arraza/etnia eta onura komunak/lurralde aldeko zapalkuntzen izaera korapilatua dela-eta, Agustín Lao-Montesek (Lao-Montes, 2012:80) modernitatean finkatuta dauden menpekotasun, zapalkuntza eta gatazkako lau molde hauek sailkatzen ditu: kapitalismoa, arrazakeria, patriarkatua eta inperialismoa. Jarraian, labur azalduko ditugu historikoki mendebaldeko modernitateak eratorri den jendartearen antolatze eta arautze ereduak goitik behera zeharkatzen duten lau “erregimen” horien ondorio batzuk:

1. Kapitalismoa ondasunen eta zerbitzuen trukeak antolatze modu bat da, ahalik eta etekin handiena ateratzeko eta ahalik eta kosturik txikiena izateko logika utilitarista du oinarrian, eta, horren ondorioz, lehia eta espekulazioan sostengatutako merkatu-eredua sortzen da, kapitala etengabe metatzea bilatzen duen eredu. Irabazteko asmoa, diru-gosea eta “denak

¹⁰ Azaltzen ari den pentsamenduaren joera honek modernitate/kolonialitateari buruzko hainbat kontzeptu, erreferentzia analitiko eta arazo partekatzen dituzten pentsalari sozialen multzo bat bildu du bere barnean azken hamarkadan. Latinoamerikan agertu da ikuspegia, baina bere kontzeptualizazioek (besteak beste, boterearen kolonialitateak, jakintzaren kolonialitateak, izatearen kolonialitateak, desberdintasun kolonialak, transmodernitateak) gero eta eragin gehiago izan dute gizarte eta giza zientzietako eztabaidetan, eta, beraz, muga akademikoak eta latinoamerikarrak gainditu dituzte. Arturo Escobar-ek Modernitate/Kolonialitateari buruzko Ikerketa Programa deitu zion joerari honi (Escobar, 2003). Horrez gain, biratze dekoloniala (Cástro-Gómez eta Grosfoguel, 2007) eta, oraintsuago, inflexio dekoloniala (Restrepo eta Rojas, 2010) deitu zaio.

balio duela” bezalako ideiak sustatzen ditu, elkarrekin bizitzeko balio gisa, 2008an, Leman-Brothersek eta diru-espekulaziorako bere engainuzko eta fikziozko produktuek porrot egitean piztu zen ekonomia – eta finantza-krisiak agerian jarri duenez. Gainera, arrazionaltasuna eta eraginkortasuna oinarritzat hartuta, azken hamarkadetako neoliberalismoak beharizan sozial eta bizitzako alderdi guztiak –besteak beste, elikagai-, ostatu-, onura komunak (lurra, ura, basoa...), osasun – eta hezkuntza-arloko beharizanak, eta zaurgarritasuneko egoeretan behar izaten diren zaintza bereziak barne hartuta– merkaturatu nahi ditu, logika utilitarista berberak sustatuz.

Defendatzaileek emandako azalpenen arabera, gizakien beharizanak (hala oinarritzko beharizanak, nola produktuen, zerbitzuen eta salgaien publizitateak eta propaganda fetixistak sorrarazitakoak) betetzeko funtzionamendu eta antolakuntzako logika merkantilista horiek erabiltzea ona da sorkuntza, berrikuntza eta aberastasuna sortzeko, bai eta biderkatzeko ere. Diotenez, aberastasun horrek jendarteko piramide osoa kutsatzen du, eta gero eta “bizitza-maila” hobetoagoak sortzen ditu pixkanaka jendarteko maila guztietan (kontsumitzeko gaitasunaren arabera neurtzen dira mailak).

Hala ere, bi menpekotasun – eta esplotazio-mota behar dira horretarako: alde batetik, natura eta ondasun komun kolektiboena, eta, bestetik, pertsonen lan eta bizitzarena, bereziki txirotutako maila sozialetan jaio-tako pertsona behartsu horiena. Horrez gain, emakumeek zapalkuntza gehiago pairatu behar dute, erabat gutxiesten eta ezkututzen baita hornidura eta zaintza materialak eta immaterialak lortzeko egiten duten eguneroko lanak duen balioa, bizitzaren eguneroko erritmoari eusteko oinarritzkoa izan arren¹¹.

Hortaz, merkatu kapitalistak ezinbestez naturalizatu behar ditu menpekotasuneko eta esplotazioko bi motatako harreman hierarkikoa: kapital eta aberastasunaren metatzaileek naturarekin izan behar duten harre-

mana, eta kapital eta aberastasunaren metatzaileek jendarteko herri-mailen lanarekin dutena.

2. Kolonialitatea eta arrazakeria. Proiektu modernoak, planetan barrena hedatzeko, kolonizatu eta esklabo bihurtu zituen menpekotzat eta hezigabetzat jotzen zituen arrazak eta herriak. Horretarako, odol eta gar ezarri zuen azalaren kolorean eta hizkuntza-erlijio-kulturaren oinarrituta zegoen pertsonen arteko nagusitasun-hierarkia (kolonizatzaileak eta kolonizatuak). Horrez gain, gaur egun ere, kolonizatzaileen ustezko nagusitasuna ezartzen da ezagutzen eta jakintzen esparruan, antolakuntza politikoko formetan, lan-moldetan eta truke ekonomikoan, balio eta praktika sozialetan, arte eta kulturako ekoizpenetan (musikan, zineman, kirolean, etab.), ekoizpen teoriko eta intelektualetan, bizimoduetan, ongizatean, etab.

Hori guztia gutxiagotze kulturala izeneko mekanismoaren bidez egiten da, eta mekanismo hori argi islatzen da herrialde desberdinen arteko harremanetan, eta migratzaileen (eta hainbat belaunalditako migratzaileen ondorengoen) eta bertako biztanleen arteko harremanetan, eta mendebaldeko jendartearen altzoan. Gutxiagotze koloniala eraikitzeke, asimetria hau hartzen da abiaburutzat: “garatuta daudenek”, “lehen mailako munduak”, “aurrerapen-maila handiago eta ongizate gehiago duten modernizatuek” ekoitzi duten horrek gaintu egiten duela “garatzeko bidean daudenek”, “hirugarren munduak”, “aurrerapen eta ongizate gehiago lortzeko garapena eta modernizazioa behar dituztenek” ekoizitakoa.

“Hortaz, menpeko kulturak ez lirateke gai izango jakintza-, kultura-, politika – eta garapen-arloan arrazoizko alternatibak eraikitzeke; hori egin beharrean, mendebaldeko kulturaren bideari jarraitu behar diote, “modu linealean zibilizaziorantz” eta “aurrerapenerantz” jotzeko” (Daza et al., 2012:28-29).

¹¹ Ekonomia feministak azterketa zehatza eta sakona egin du, etxeko esparruan egiten den lana ikusgai jartzeko, eta “etxeko lana” izenaren ordez, “ugaltze-lana” eta, oraintsuago, “zaintzen lana” izenak erabili ditu. Cristina Carrascok dioenez, “zaintzen lanaren” azterketa amaitu gabe dago, ekonomia feministaren barruan eta kanpoan sakon aztertu behar diren alderdi teorikoak, kontzeptualak eta politikoak hartzen baititu barne, eta, horretarako, bistan baita paradigma aldatu behar dela ezinbestez. “Zaintzaren emoziozko eta harremanezko alderdiak zehaztean –alderdi horiek estu lotuta baitaude pertsonen bizitzaren kalitatearekin–, argi ikusi zen gero eta beharrezkoagoa zela jarduera hori berez balioestea, bizitzak aurrera egin zezan funtsezko lana zela aitortzea. Hortaz, paradigma aldatu behar zen ezinbestez: pertsonak izan behar zuten helburu soziala, eta ez kapitalak. Hala, beraz, zaintza-lanek hartu behar ziren ardatz sozial gisa, eta ez merkatuko ekoizpena eta lana (Amoroso et al. 2003, Bosch et al. 2005, Pérez Orozco 2006, 2007a, Picchio 2001, 2009)” (Carrasco, 2013:4).

Ezin da erkatu mendebalde zuria planetako gainerako tokietatik bereizten duen kolonialitate eta arrazakeriazko lerro izugarriarekin, baina, hala ere, ongizate-, aurrerapen – eta garapen-mailan edota hizkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualeen garrantzian oinarritzen diren nagusitasuneko edo gutxiagotzeko eskema hierarkizatzaile horiexek azaltzen dira Europako herri eta herrialdeen artean. Hala, bada, konkistatzaileen eta konkistatuen arteko harreman historikoek goitik behera zeharkatzen gaituztenez, erdigunea eta periferia ditugu, hala “aurrerapen eta ongizate ekonomiko eta materialari dagokionez” –eta, hor, Europako erdialdeko eta iparraldeko herrialdeak ditugu, “aurreratuago” dauden jendarte gisa eta, beraz, berdintzeko moduko eredu modura–, nola “hizkuntza eta ekoizpen intelektualaren garrantziari” dagokionez. Ildo horretan, jakintza zientifiko eta intelektualaren ekoizpena guztiz hierarkizatuta dago, ekoizteko hizkuntzaren arabera. Hala, ingelesa aurreneko tokian duen hierarkiak gutxietsi eta ezkututzen du eremu urriko hizkuntzetan –besteak beste, euskaraz, gaelikoz eta galegoz– ekoizita dagoen jakintza.

3. Patriarkatuak, menperatzeko, zapaltzeko eta gatazka egiteko molde gisa, jendarteko harremanen arautze sexistaren ideologiari eta praktikari egiten dio aipamena; eta haren oinarria hauxe da: gizonak emakumeen eta gainerako generoko identitateen jarduera sozialak, gorputzak eta sexualitatea menperatzea eta kontrolatzea. Jaio aurretik ere abiarazten diren praktika generizatzaileen bidez, gizon eta emakume izateko modu homogeneizatzaileak ezartzen dira. Maskulinoa denak indartsua, gogorra, bere buruan ardaztua, segurua, arrazionala, independentea eta emozio eta sentikortasun gutxikoa izan behar du, emozioen eta sentipenen adierazpidea ukatu behar dio bere buruari, eta arlo publikoan pertsonaia nagusia izatea eta arrakasta edukitzea izan behar ditu xedetzat: ordaindutako lana (enplegua), aisialdia eta jendarteko jarduerak (kirola, taberna), politika, ekintzaitza, etab. Femeninoa denak, berriz, sentikorra, ez-segurua, intuitiboa, hauskorra, menpekota eta erruki-, txera – eta laguntza-emailea izan behar du, besteen zaintza izan behar du xedetzat, lan ikusezinak eta balioetsi eta ordain gabeak, eta etxeke esparruan egunerokotasuna ugaltzeko eta iraunarazteko aukera ematen duten jarduerak egin behar ditu: etxea txukuntzea eta garbitzea, erosketak eta eguneroko janariak prestatzea, zaurgarritasun gehien duten

pertsonen (haurren eta hirugarren adinekoen) zaintza fisikoa eta emoziozkoa, edota menpekokoak diren horiena (gaitzak jota daudenena, eriondoan daudenena, etab.).

Patriarkatuak eta bere terrorismoak, hau da, emakumeen aurkako indarkeria matxistak –eta horren adierazpen gorenek, alegia, emakumeen aurkako sexu-erasoek, bortxaketek eta hilketek– ezartzen dutenez, era bakarra dago sexualitatea bizitzeko: sexu desberdineko pertsonen artean, eta, emakumei dagokienez, jendarteak onartzen dituen harreman monogamoen barruan: “Era horretan, bi motatako harreman hierarkiakoak sortzen dira: gizonak emakumeekin eta dauden beste genero batzuekin duen harremana, eta heterosexualitateak (monogamoak) sexualitatea bizitzeko dauden bestelako formekin duena. Horrenbestez, emakumeen eta disidente sexualen zapalkuntza eta esplotazioa gauzatzen dira” (Daza et al., 2012:30). Hori dela-eta, ekarpen feministen arabera, heteropatriarkatua da emakumeen gorputza eta praktikak arautzen dituen erregimena.

4. Inperialismoa da modernitatean indarrean dagoen menpekotasuna, zapalkuntza eta gatazkako laugarren molde. Lurraldearen, botere politikoaren eta planetako gune geoestrategiko jakin batzuetako baliabideen kontrol militarizatua izatea da haren bereizgarria. Batzuetan, zuzeneko esku-hartzeen eta okupazio militarren bidez gauzatzen da lurraldearen aginte edo kontrol geopolitiko hori lortzeko liskarra. Beste batzuetan, berriz, ezkutuan egiten da, zerbitzu sekretuen, gobernuen eta gune jakin batzuetako natura-baliabideak (ondasun komunak) ateratzeko lehian ari diren nazioz gaindiko korporazioen esku-hartze itunduarekin gainjarrita. Kapitalismo neoliberalak gune geografikoen (lur, ur, lurazpi, itsaso, oihan, mendiaren...) estraktibismoa eta merkaturatze-prozesua globalizatzen ditu, eta, horren ondorioz, komunitateek ezinbestez aldatu behar dute kokalekuz. Lurraldea des-egituratu behar du, lurraldea nortasun berezi bat sortu duten praktika sozial, ekonomiko eta kulturalen gunea den aldetik, nortasun hori baita antolakuntza, truke eta ekintza kolektiborako komunitateko harremanen oinarria. Nazioz gaindiko sareek gune horiek ber-lurralderatzen dituzte, kapitala metatzeko logikei jarraiki, eta, horretarako, komunitateko sareak desegituratzen dituzte eta tokiko kultura turistiko bilakatzen edo desitxuratzen dute, kontsumo globalerako salgai bihurtzeko.

Menpekotasuna, zapalkuntza eta gatazkako lau molde horiek (kolonialitatea, patriarkatua, kapitalismoa eta inperialismoa) arrazoizko aurrerapenaren eta garapenaren zibilizazio modernoarekin elkartu arren, horrek ez du esan nahi kultura modernoa guztiz homogenea denik, edo modu sinplistan zapaltzailea baizik ez dela esan behar denik. Manikeoegiak diren ikuspegiak alde batera uzteko, hau da, gaiztakeriaz beteriko arlo semantikoak eta, horien aurrez aurre, ontasunez beteriko arloak sortzeko joera duten ikuspegiak baztertzeko, ondo kontuan izan behar dugu modernitateak garrantzi handiko borroka askatzaileak sorrarazi dituela.

Liberalismoa bera, eta askatasun, berdintasun, elkartasun eta demokraziaren alde dituen oinarriak, era lausoan zehaztu dira historikoki jendarteko eredu kolonial, patriarkal eta kapitalistan. Hortaz, pentsamendu eta praktika antirrazista, feminista, sozialista, anarkista, ekologista eta antimilitarista sortu dute modernitatearen baitan, eta horiek gizakiek zapalkuntza eta bidegabekeria gainditzeko egin dituzten ahaleginen eta saiakeren zati bat dira, hutsegiteak edo ideia onak gorabehera. Historikoki, balio ilustratuen irakurketa kritikoa eta askatzailea ere ez da atzetik geratzen. Ildo horretan, modernitateak berez dakar berekin sekularizazioa eta menpekotasun transzendentalarekiko haustura, eta, beraz, jendartea eraikitzeke erronkari autonomiatik erantzuteko aukera da. Hortaz, mundua ulertzeko eta bertan egoteko modu horrek pertsonen autonomia sendotzen du, jendarteratzen diren ingurune komunitario eta soziokulturaletan dauden baldintza sozialak, jokabideak eta bizitza-itxaropenak aintzat hartuta, nola bizi eta esku hartu nahi duten –ekintza pertsonalaren eta kolektiboaren bidez– pertsonen erabakitzeke duten autonomia. Baldintza

sozial eta bizitzeko aukera horiek ez dira naturalizat eta aldaezintzat hartzen, eta, beraz, interpelatu egiten digute, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna oinarritzat hartuta berriz eraiki ditzagun¹².

Ildo horretan, Europa eta Ipar Amerikako herri-sektore askoren borrokek eta erresistentziek aurre egiten diete indarrean dauden menpekotasun-moldeak guztiz naturalizatzeko egiten diren saiakereri, eta gero eta ozenago zabaltzen dituzte zibilizazioaren hasiera modernoa zalantzan jartzen dituzten iritziak. Nolanahi ere, horietan sakontzeko, kolonizatutako herri eta mendebaldekoak ez diren kultura guztien begirada eta borrokako esperientzia beharko ditugu, batez ere haien erresistentziak, borrokak eta mugimendurik bizienak. Erreferentzia garrantzitsua izan behar dute nahitaez, erantzun alternatiboak asmatzeko eta eraikitzeke orduan. Izan ere, aurre egiteko molde horietako batzuek konponbidea ematen diete beren beharizanei, estatuaren edo merkatu kapitalistaren logikekin bat ez datozen bestelako jakintzak, naturarekiko bestelako harremanak eta autoantolakuntza sozial, politiko eta ekonomikorako bestelako praktikak abiaburutzat hartuta. Dena dela, beti izan beharko dugu kontuan kolonizatutako herrien errealitate eta erresistentzia horiek ez daudela guztiz bereizita eta bananduta munduan barrena nagusi diren dinamiketarik eta zibilizazioaren hasiera modernotik, eta, beraz, menpekotasun-molde horiek edo beste batzuk dituztela. Hortaz, alde batera utzi behar ditugu idealismoak eta esentzialismoak.

¹² Boaventura de Sousaen sailkapenari jarraiki (2006), oinarri modernoaren irakurketa kritikoa eta askatzaile hau, “modernitate kritikoa” hau hurbil dago jendarte kolonial, patriarkal eta kapitalistaren ereduarekiko “oposizioko post-modernitateetik”. Beraz, irekiago dago “modernitatearen zibilizazio-hasierari buruzko azterketa kritikoa dekolonialaren” aurrean. Hortaz, ikuspegi horiek guztiak –bakoitzak beren fiabardura eta ekarpenekin– urrundu egiten dira “ospakizuneko post-modernitateetik” eta desberdintasuna modu hutsalean eta menpekotasuneko harremanak modu askatzailean aztertu gabe ospatzeko duen bere erlatibismoetik.

2. Jendarte-mugimenduak subjektu askatzaile gisa ezaugarritzen

Lehen puntuan ikusi dugunez, jendarte-mugimenduengana hurbiltzeko, haiek aztertzeko eta haiekin hausnartzeko egin nahi dugun proposamena ezinbestez kokatu behar da zibilizazio eta sistema osoaren krisialdiaren testu-ingurunean. Une honetan, sakonki astintzen ari da nagusi den eredu ekonomikoa, politikoa eta soziala, eta horrek ziurgabetasun eta, aldi berean, aukera ugariaren aurrean jartzen gaitu. Horiek horrela, gure ustez, jendarte-mugimenduek (beste subjektu batzuekin batera) ahalmena dute eraldaketa sozial askatzaileko ezinbestez eta premiaz egin behar diren prozesuetan eragina izateko.

Hargatik, mugimenduengana hurbildu gara, egiten dituzten ekarpen kognitiboak, erlaziozkoak eta materialak aztertzeko; eta, horrez gain, izaera patriarkal, kolonial eta kapitalista nabarmena duen jendarte-eredu moderno honetan nagusi diren menpekotasuneko eta esplotazioko errealitateak gainditu nahian abiarazten dituzten estrategiak eta prozesuak ikertzeko. Eredu hori modu desberdinean gauzatzen da testuinguruaren arabera, eta, beraz, berari aurre egiteko eta bera aldatzeko moduak ere era askotakoak izango dira.

2.1. Ezaugarritze prozesuaren subjektuak

Prozesua dinamizatzen aritu den Hegoa Institutuaren Ikerketa Taldea lan-talde mistoa da. Izan ere, bertan parte hartzen duten pertsona gehienek ikerketa-lanak egiten dituzte, baina beste batzuek elkartasunaren

eta nazioarteko lankidetzaren esparruari lotutako jarduerak egiten dituzte, eta beste batzuek era askotako erakunde, alderdi edo jendarte-mugimenduen sareetan egiten dute jarduera politikoa. Horrez gain, taldea eratzen duten kide gehienek jarduera horiek nahasten eta uztartzen dituzte, norik bere neurrian. Azkenik, kide batzuk Hegoa Institutuan eta nazioarteko beste erakunde, sare edo egitura batzuetan gaude aldi berean, batez ere, EMM eta LVC mugimenduetan.

Jendarte-mugimenduen izaera askatzailea definitzen duten alderdiei buruz egin ditugun azterketak – hala izaera hori indartzen duten osagai eta joerei buruzkoak (haren bertuteak eta indarrak), nola izaera hori mugatzen eta ahultzen duten alderdiei buruzkoak (ahuldadeak, gabeziak eta erronkak)– eztabaida-saioetan eta hausnarketa kolektiboko tailerretan prestatu ditugu. Gure hausnarketa egituratu duten hiru gai hartu ditugu ardatz gisa, jendarte-mugimenduak eta hainbat zapalkuntzatatik askatzeko mugimendu horiek dituzten prozesuak indartzea eta bestelako nazioarteko lankidetzak lotzeko helburu zabalagoari egindako ekarpen gisa. Hona hemen tailerrak eta eztabaidak egituratzeko erabili ditugun hiru gaiak:

- a) Jendarte-mugimenduen egokitasuna subjektu askatzaile izateko: Zergatik hartzen ditugu jendarte-mugimenduak subjektu estrategikotzat, menpekotasuneko harremanak gainditzeko aukera emango diguten eraldaketa sozialerako prozesuak indartzeari begira?

- b) Zein alderdik erakusten digute jendarte-mugimenduen izaera askatzailea? Hau da, zein ezaugarri dute jendarte-mugimenduek, prozesu askatzaileetako subjektu politiko gisa?
- c) Zein osagai eta joera dira lagungarri jendarte-mugimenduen izaera askatzaile hori sustatzeko, eta zein osagai edo bereizgarri dira ahulgarri, jendar-teko talde batzuek beste batzuen gainean dituzten menpekotasuneko harremanak gainditzeko aukera eman dezaketzen prozesuetan?

Lan eta hausnarketarako tailerrak prestatu dira bereziki kontu horiei erantzuna emateko, parte-hartzea bultzatzen duen metodologia horizontala oinarritzat hartuta, jakintzaren eraikuntza kolektiboa sustatze aldera. Hain zuzen, Brasil eta Guatemalako Emakumeen Mundu Martxako ekintzaileak (EMM-Brasil¹³ eta EMM-Guatemala¹⁴), eta Erdialdeko Amerikako –zehazki, Hondurasko (LVC-Honduras)¹⁵– La Vía Campesina mugimenduko ekintzaileak elkarlanean aritu dira, tailer horiek prestatzen. Testu honetan toki aldetik ditugun mugak direla-eta, ezin gara luzatu lankidetzaz horretaz hitz egiten, baina ezinbestekotzat jotzen dugu, labur bada ere, horri buruz kontuan izan beharreko kontu batzuk azaltzea.

Lehenengo kontua nazioarteko bi artikulazioek egin duten lanak duen izaera partzial eta mugatua-

ri dagokio. Oso artikulazio zabalak dira, eta modu berezian gauzatzen dira tokiko eta estatuko testu-inguruaren arabera. Hargatik, egokia iruditzen zaigu argitzea Hondurasko historiaren oso une berezi batean egin dugula hausnarketa LVC-Honduras eta bera eratzten duten nekazarien erakundeekin batera, hain zuzen, 2009ko ekainean, gobernu konstituzionalari amaiera eman zion Estatu-kolpearen eragina bizi-bizi zegoen unean¹⁶.

EMMri dagokionez, zuzenean hartu dute parte une honetan Brasilen dauden EMM mugimenduen Koordinazio Betearazleak eta Nazioarteko Idazkaritzak, eta EMMk Guatemalan duen erreferenteak, hau da, Sector de Mujeres itun politikoak¹⁷.

Lankidetzaz horri dagokionez, bigarrenik, aipatu nahi dugu haxe gaineratu behar zaiela egindako tailerretako eta bileretako parte-hartzaileek izan duten esperientziaren bidez egin dituzten hausnarketei eta eman dituzten lekukotasunei: Hegoa Institutuaren lantaldeak berak hainbat tailer eta lan-saiotan egin dituen hausnarketak, Paul Nicholsonen eta Nico Verhagenek, LVC Europa mugimenduko ordezkari gisa, egin dituzten mintegiak (horietan, LVC mugimenduen sorrerari, funtzionamenduari eta erronkei buruz duten ikuspegia partekatu duten), eta, orobat, Isabel Rauber, Ana Esther Ceceña eta Irene Leonekin egin diren kontrasteko mintegiak¹⁸.

¹³ Lan-saio hauek 2012ko urtarrilaren 16an eta 17an izan ziren Sao Paulon, eta Emakumeen Mundu Martxa-Brasil mugimenduan antolatuta zeuden hainbat erakundetako 18 ekintzailek hartu zuten parte. Taldeko saioez gain, banakako lau elkarrizketa, eta taldeko elkarrizketa bat egin ziren EMM mugimenduko Nazioarteko Idazkaritzako hiru kideekin, saioetan azaldutako gai batzuekin gehiago sakontzeko.

¹⁴ Saio hau 2012ko martxoaren 14an izan zen, Guatemala hirian, eta Guatemalako EMM mugimenduan ereduakoa den Sector de Mujeres erakundeko bost ekintzailek hartu zuten parte.

¹⁵ Saio hau 2012ko martxoaren 22an eta 23an izan zen Tegucigalpan, eta LVC-Honduras mugimenduko hainbat erakundetako 24 kidek hartu zuten parte. Taldeko lan-saioez gain, banakako hiru elkarrizketa egin ziren, saioetan azaldutako gai batzuekin areago sakontzeko.

¹⁶ Estatu-kolpea izan ondoren herrialdean izan den prozesu sozio-politikoaren eragin bizia izan dute hausnarketek; izan ere, Estatu-kolpeak ondorio hauek ekarri ditu, besteak beste: Hondurasko nekazarien mugimenduan haustura larria izan da, kolpea eman duen estatuak gehiago kontrolatzen ditu jendarte-mugimenduak, eta kolpeari aurre egin zioten borrokkak kriminalizatzen dira. Horri erantzute aldera, Hondurasko nekazarien mugimenduak berriz egituratu du bere burua, eta aurre egingo duela adierazi du; eta La Vía Campesina mugimenduak laguntza handia eman dio erresistentzia-mugimendu horri. Ikusi: <http://www.cloc-viacampesina.net/pt/2009/203-vc-cloc-rechazo-a-golpe-de-estado-en-honduras>.

¹⁷ Nazioarteko erakunde eta artikulazio horietara hurbiltzeko hainbat muga daudela jakin arren, lan honek dituen helburuei begira gogoan izan behar dugu, gure ustez, “nabarmentzeko modukoak direla jendarte-mugimenduek Amerikan izan dituzten borroka eta praktika askatzaileak, bereziki desoreka sortzeko izan duten indarra eta sormen propositiboa, eragina izaten baitute mundu osoko ekintzaileengan eta jendarte-mugimenduengan. Horregatik, lan honetan, Latinoamerikatik etorritako pentsamendu kritiko eta borroka-praktikaren proposamenetara hurbildu gara gehienbat” (Martínez et al., 2012).

¹⁸ 2011ko abenduan, bi lan-mintegi egin ahal izan genuen. Mintegi horietan oso eztabaida garrantzitsuak izan genituen hiru pentsalari eta ikertzaile hauekin, eta hori oso baliagarria izan zitzaigun ikerkuntza akuilatze eta kontrastarazteko.

Bestetik, nabarmendu nahi dugun hirugarren kontua bi lankidetzetan azaldu da: prozesu eta multzo osoaren ikuspegitik abiatuta ikusi eta ulertu behar ditugu EMM eta LVC mugimenduak. Horrek esan nahi du bi mugimenduak etengabeko eraikuntzan dauden prozesu gisa hartu behar ditugula arlo guztietan: tokiko, nazioko, eskualdeko eta mundu-mailako esparruan, bai eta arlo pertsonalean, politikoan, egunerokoan eta egunerokotasunetik kanpoan ere. Ikuspegi hori hartuz gero, alde batetik, argi eta garbi izango dugu LVC eta EMM mugimenduak egituratzen diren testuinguru guztietan prozesu hori berezia eta bakarra dela. Bestetik, etengabeko eraikuntzan dauden prozesu sozialak direnez, dinamismo eta aukera ugari biltzen dituzte, bai eta erronka eta desafio handiak ere. Gure ustez, ikuspegi hori hartuz gero, modu errealista eta osasuntsuago batean hurbildu ahal gara LVC eta EMM mugimenduengana, idealizatorik edo itxaropen faltsurik izan gabe, beren egituratze-prozesuak eratzen dituzten errealtateetara joz. Era horretan, laguntza eman ahal izango dugu beren ahulguneak (gutxitzeko), indarguneak (zabalduta eta handitzeko), eta erronkak zehazteko lanetan, indar askatzailea duten subjektu gisa areago sendotze aldera.

Jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen eta murrizten duten joerak aipatzean, zer eraikitzen ari den aztertzeaz gain, joera horiek nola eraikitzen ari diren eta norantz jotzen duten ikertu behar da bereziki. Ildo horretan, Raúl Zibechik egin dituen hausnarketa batzuek testu hau kutsatu duten izaera metodologiko eta epistemologikoko zenbait erronka dute aipagai; eta gure ustez, interesgarria da hona ekartzea, hurrengo atala irakurtzean gogoan izateko.

“Kontua da zentzu askatzaileak dituzten praktika sozialen alderdiak erakustea, menpekotasunetik askatzeko prozesua betegabea baita beti, prozesu guztiak bezalaxe: amaitu gabeko iragaitea, helmugara sekula iristen ez den ibilia. Zergatik? Bada, menpekotasunetik askatzea ez delako helburu bat, bizitzeko modu bat baizik [...] Hala ere, –arrazoiz– esan liteke praktika askatzaileak beren mugak dituztela. Egia da. Baina, non jarriko ditugu muga horiek? Eta nork jarriko ditu? Kanpoko agente batek? Alderdiak? Estatuak? Akademiak? Honekin ez diot ihes egin nahi praktika askatzaileak partzialak edo –hala nahiago bada– osagabeak eta itzulgarriak izan ohi direla erakusten

duen egitateari. Hau da, praktika horiek ez dutela inolako bermerik eskaintzen aurrera jarraitzeko, edo etengabe eta gero eta gehiago zabaltzeko eta hazteko. [...] Orduan, zer egingo dugu jendarteko praktika horien «mugen» aurrean? Praktika horiek indartzea, areagotzea eta ernaltzea baino ideia hoberik ez zait bururatzean, praktiketarik bertatik, hau da, praktiken barrualdetik, beren mugak hauts ditzaten [...] Hori dela-eta, jendarteko praktiken zentzua ulertu ahal izateko, haietan eta haiekin aritu behar dugu; hau da, haien barnealderetik. Horrek funtsezko arazo epistemologikoa ekartzen dio finkatuta dagoen teoriari” (Zibechi, 2008:62).

Hortaz, lan honetako zenbait unetan nabarmendu dugunez, jendarte-mugimenduen praktika askatzaile horiek sustatzeko dagoen erronketako bat hau da: harreman berri bat eraikitzea subjektu epistemikoen artean, jakintza eta lan-logika desberdinen arteko lankidetzan eta horizontaltasunean oinarritutako elkarrizketak eratzea, jakintza eta molde osagarri gisa hartu behar baitira horiek, aurkariak edo arerioak diren moldetzat hartu ordez, betiere, ondo kontuan izanik hasiera epistemikoko alde desberdinetan “kokatutako” jakintzak direla. Hortaz, gure garaian, eraikitze-lanetako hainbat unetan metatutako ahalegin askatzaileak indartu nahi baditugu, behar-beharrezko zeregina da jakintzen elkarrizketa eta baterako ezagutzen eraikuntza horietan laguntza ematea: herri-mobilizazioak eta – ekimenak, mugimenduen erakundeak eta sareak, unibertsitatea eta ikastetxeak, arte eta komunikazioaren esparrua, herri-sektoreekiko elkarrizketari eta baterako lanari lehentasuna ematen dieten administrazio publikoak, etab.

2.2. Jendarte-mugimenduen ahalmen askatzailea indartzen eta ahultzen duten elementuak

Jarraian, hainbat lan-tailerretan zehaztu ditugun joerak eta ezaugarriak aurkeztuko ditugu, joera lagungarriak baitira jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzeko. Era berean, izaera hori mugatu edo ahuldu dezaketen joerak ere zehaztuko ditugu. Gogoan izan behar dugu beti zer-nolako tentsioa sortzen den taldeko gertakariei buruz hausnartu ahal izateko bereizten

eta sailkatzen duten kategoriak zehazteko beharren eta horrek jendarteko errealitatearen kasuistika konplexua, aberatsa eta askotarikoa murrizteko dakarren prozesuaren artean. Hortaz, gure kasuan, hausnarketa orok duen izaera kokatua eta, beraz, mugatua dela-eta oraingoz amaitu gabe eta osagai eta alderdi gehiagori zabalik dagoen taldeko hausnarketa bat dugu hizpide.

Berriro argitu behar dugu joeraz ari garela, ez dugulako uste jendarte-mugimenduko erakunde eta sare guztiek ezaugarri horiek edukiko dituztenik edota ehuneko ehunean beteko dituztenik. Aitzitik, joerak dira, neurri handiagoan edo txikiagoan lagungarriak baitira taldeko ekintza-mota horien izaera eta ekarpenak zehazteko. Atal honetan azalduko dugunez, garrantzizkoa da kontuan izatea ezaugarri bera aldi berean har daitekeela mugimenduen zentzu askatzailea indartzen duen osagai edota mugatzen duen osagai gisa, antolakuntzako errealitate jakin bateko moduaren eta mailaren arabera.

a) Antolakuntza-kultura eta antolakuntza-praktikari dagokienez

Jarraian, lan-tailerretan zehaztutako joerak eta ezaugarriak aurkeztuko ditugu, jendarte-mugimenduek antolakuntzako praktiketan duten **izaera askatzailea indartzen duten** horiek:

- Jendarte-mugimenduak ideiei eta jendeari zabalik dauden guneak dira. Erraz sartzeko moduko erakundeak dira, sartu nahi dutenentzat, eta, ildo horretan, herrikoiak eta integratzaileak dira, eta elkarlanean eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako lan-dinamikak dituzte.
- Partekatutako ikurrak, kontsignak eta sinboloak erabiliz nortasuna taldeka eraikitzea eta sormena funtsezkoak dira. Jendarte-mugimenduetan dauden pertsonen kide izateko sentimendu indartsua dute, gune horiek oso egokiak baitira jendarteratzeko eta nortasun kolektibo alternatiboetarako esperientziak metatzeko.
- Gune horietan sorkuntza ere lantzen da, saiakerak egiten baitira jendartea antolatzeke aldarrikatzen diren proposamen eta molde berriekin.

- Kultura horietan indar handia dute demokrazia deliberatzaileak eta akordio politikoek. Gaitasuna dute akordiorik ezak onartzeko eta gatazkei aniztasunetik aurre egiteko.
- Konpromisoa duten pertsonak dituzte, hau da, inolako baldintzarik jarri gabe beren energiak, ezagutzak, denbora eta baliabideak taldearen esku uzten dituzten pertsonak.
- Beren etika dute, eta, hor, oinarri-oinarrizkoak dira elkarrekiko laguntza, enpatia, elkartasuna eta eskuzabaltasuna.
- Polizentrismora eta lidergora jotzeko eta erabaki zabalak hartzeko joera dute.
- Erakunde hauek mugitzen dira, aldakorrak eta biziak dira, eta, hortaz, txandak izaten dira zereginak, erantzukizunak eta bestelakoak banatzean.

Bestetik, hona hemen jendarte-mugimenduek antolakuntzako praktiketan duten **izaera askatzailea mugatzen duten** joera batzuk:

- Sexu-generoa, adina, esperientzia, ezagutza eta bestelako alderdiak direla-eta botereko asimetriak dituzten ingurune soziokulturaletan sartuta daudenez, asimetria eta desberdintasun horiek birsortzen dituzte mugimenduen barruan, adibidez, egitura informal patriarkalak eta zurrunak edota desiraturakoa irudikatzen ez duten praktikak eginez.
- Zailtasunak izaten dituzte barneko eta kanpoko aniztasuna kudeatzeko, eta zehazten duten ekintzazailer/militantearen soslai itxiegia da.
- Horizontaltasunaren autobaieztapen horri loturik dagoen egitura gabeziak, batzuetan, ifrentzu txarra erakusten du, alderdikoikeriak azal daitezkeen errazten eta erantzukizunak hartzeko jarrera urtzen baitu. Hortaz, demokraziaren aurkako praktikak azaltzen dira, guneak kooptatzen dira, eta norberkeriaz beteriko lidergoak sumatzen dira. Gainera, batzuetan, zailtasunak izaten dira lidergo horiek berritzeko, eta, horren ondorioz, malgutasun gutxi izaten da antolakuntzan edo esplizituak ez diren hierarkiak agertzen dira.
- Horrez gain, nolabaiteko moteltasuna ager daiteke erabakiak hartzerakoan, eta hortaz, gerta liteke aktibismoak eragin-kortasuna galtzea.

- Bestalde, nolabaiteko joera egon daiteke abangoardismo eta alderdikoikeriarako, “hobe pertsona gutxi, baina koherenteak” dioen ideiarri jarraiki. Hau da, dogmatismoetarako eta ikuspegietan zurruntasunez aritzeko joera azal daiteke.
- Gainera, mugimenduetako kide diren pertsonen poliaktibismoarako edo multimilitantziarako joera izaten dute (pertsona berberak toki guztietan). Hori anibalentea izan da daiteke, barneko desorekak eragin ditzakeen 24 orduko militantzia-eredua sor baitezake (informazioa, harremanak, erreferentziak eta abar erabiltzeko desorekak), eta beste harreman eta gune batzuekiko lotura hauts baitezake. Hala ere, loturak eta zubiak eratu ditzake mugimenduen artean, pertsona multiaktibista horiek egindako lanaren bidez lortuak.

Jarraian, hausnarketa eta lekukotasun batzuen bidez, zehatzago aztertuko ditugu sumatu ditugun joera horietako batzuk. Horrela, areago sakonduko dugu mugimenduen irismen askatzailea indartzen duten osagaietan, haien praktika eta antolakuntzako kulturei dagokienez.

a.1) Izaera irekia, herrikoa eta sarbide errazekoa

Lehenik eta behin, gure ustez, aurretiazko eskakizunik gabe, atseginez eta errez, pertsona bati ekimean, mobilizazioan edo erakundean sartzeko aukera ematen dion izaera irekia oso osagai garrantzitsua da jendarte-mugimenduen sarean eta erakundeen izaera askatzailea indartzeko.

Hala, baldintza politikoen horretarako aukera ematen duten bitartean, eta zapalkuntzak, kontrolak eta infiltrazioak sartzeko baldintza murriztaileak finkatzeko beharra ezartzen ez duten bitartean, izaera herrikoi, ez-elitista eta ireki horrek funtsezko zeregin politikoa betetzen du. Izan ere, pertsonak eraldatze askatzaileko subjektu bilakatu ohi gara, kidego eta sozializazio politikoko ingurune batera sartzean, kontzientzia kritikoa eta inkonformista era jarraituan elikatzen badugu ingurune sozialeko inposizioak eta menpekotasunak ulertzeko. Hau da, kidego kolektiboa eta kontzientzia politikoa izateak handiago bilakatzen ditu borondateak, arlo pertsonalean aldaketa askatzaileak sustatzeko behar diren borondateak eta ingurune sozialean mota horretako aldaketak eraikitzeko gaitasun kolektiboan behar direnak.

Hortaz, ez dago emantzipazioko subjektu kolektiborik, emantzipazioko kontzientzia subjektiborik edo intersubjektiborik gabe, eta kidegoko antolakuntzako ingurune batean horiek handiagotzeko bizipen-modurik gabe. Isabel Rauber-ek esaten zuenez, pertsonen subjektu politiko gisa eraikitzen dugu gure burua, borrokatzeko eta menpekotasunetik askatzeko praktika kolektiboetan. Izan ere, praktika horietan, era kritikoa hasten gara desberdintzen barne hartzen gaituen eta zapaltzaile edo zapaldu bilakatzen gaituen errealitatetik: “ez da gizaki berririk, ez kultura berririk egongo, parte hartzeko praktika berririk eta urteen poderioz zentzu komun bilakatu arte etengabe sartu eta beretutako jarrera etiko berririk metatzen ez bada” (Rauber, 2006:82).

Ildo horretan, jendarte-taldeek eta – mugimenduek, edozein pertsonari harrera atsegina egiten badiote, aurrez baldintzarik edo mugarik jarri gabe, laguntza ematen dute pertsonak errazago sar daitezen emantzipazioko subjektuak indartzeko oinarritzko izaera pedagogiko-prestakuntzakoak duten gune eta prozesu politikoetan. Azken batean, subjektibotasun politizatuak, indar eta botere herrikoia duten subjektibotasunak eta nagusitasunaren aurkako subjektibotasunak elkarren artean eratzen dira antolakuntza eta borrokatu prozesu horietan.

“Emakumeak Martxara etortzen dira, bertan gune hori topatzen dutelako, Ondo sentitzen dira, harrera egiten dietela uste dute, eta, aldi berean, programa bat aurkitzen dute, orientabidea ematen duen eta egiturazko gai garrantzitsuetan bandera eta jarrera feministak zein diren adierazten duen plan bat [...] Izaera militanteak eta dinamika horizontal eta irekiak aukera ematen du Martxa antolatzeko” (EMM-Brasil).

a.2) Antolakuntzako egitura arinak, gutxi formalizatuak eta hierarkizatuak

Jendarte-mugimendu askoren ustez, antolakuntzako egituren dinamismoa eta arintasuna auzi estrategikoa eta oso garrantzitsua da, alde batetik, mugimendu gisa eratzeko eraikuntza-prozesuari begira, eta egokitzeko gaitasun handia lortzeko, egoera eta testuinguru desberdinen aurrean, eta, beste aldetik, beren proposamenekin aurrera egiteko, era horretan, handituko baitute izaera iragankorra eta malgua duten, gutxi egituratuta

dauden, eta eraikitzen ari diren prozesu eta proposamenen begira baliaigarriak diren antolakuntzako hautabideak eraikitzeko duten gaitasuna.

EMM mugimenduarekin batera egindako lanean egiaztatu dugunez, kontu horrek mugimenduaren izaera askatzailea indartzen du, mugimenduko egiturei buruzko ikusmolde prozesual, iragazkor, sortzaille, dinamiko eta malgua garatzen duelako. Adibidez, kontu hori agerian jartzen da, EMM mugimenduaren Nazioarteko Idazkaritzaren egoitza txandakatze-ko, praktikan nola egiten ari den jakitean¹⁹, tokiko erakundeek aldi batez egiten baitiote harrera. Horri dagokionez, EMM mugimenduko ekintzaile batek zera adierazi zuen: “Guri oso ondo iruditzen zaigu erata dagoen erakunde batek Idazkaritza barne hartzea, horrek asko errazten duelako finantzako kudeaketa [...] eta, era berean, (Idazkaritzaren) irteera errazten duelako. Izan ere, Idazkaritza iragankorra nahi dugu, pentsa ezazu zer izango litzatekeen joaten garen leku guztietan nortasun-erakunde juridiko bat sortu behar izatea” (EMM-Brasil).

Hala ere, aldi berean, egitura dinamikoak, malguak eta gutxi formalizatutakoak sortzeko gaitasun horrek erronkak ekartzen ditu antolakuntza aldetik, eta horiek nolabait muga dezakete (eta kasu batzuetan mugatzen dute) mugimendua eraikitzeko eta sendotzeko prozesua eta izaera askatzailea. Martxako kideek berek erronka eta muga horiek zehaztu zituzten, besteak beste: Martxarako egitura berezirik ez egotea, eta praktikan EMM eratzen duten antolakuntzako errealitateak aurrez aurre zituzten zailtasunak.

Mugimenduek eraikitzen dituzten egitura informaletatik sortzen diren erronka horiek harreman zuzena

dute antolakuntzako dinamikekin, adibidez, mugimenduaren barnealdean zapalkuntzak, asimetriak eta desberdintasunak birsortzen dituzten dinamikarik ez egitea. Horri dagokionez, erakundeek eta sareek, denik eta funtzionamendurik horizontalena eta berdintasunezkoena duten heinean, informazioari, barneko eztabaidari, erabakitze prozesuei, erantzukizunak banatzeari eta lana antolatzeko moduei dagokienez, orduan, eredu horiek elkarlaneko eta baterako laneko dinamikan sakonduko dute, lehiakorra ez den eta zentralizatuta ez dagoen laneko dinamikan. Demokrazia eta barneko horizontaltasuna zaintzeak beste zailtasun bat dakar berekin, oso zaila baita arintasuna, freskura eta eraginkortasuna ez galtzea erabakiak hartzean eta betetzean, eta frustrazioa eragin eta motibazioa galazti dezakeen funtzionamendu neketsua edo zehaztugabea saihestea.

Ildo horreketan, Bárbara Primok (2011)²⁰ adierazi duenez, “mugimendu iraunkor” gisa hasi zenez, EMMk antolakuntzako estrategiak eta funtzionamenduko logika orokorrak jasotzen eta zehazten ditu, atal honetan azaldukoarekin zerikusia duten lau auziri buruz: a) koordinazio nazionalen autonomia eta independentzia; b) egiturak eta kanpoko nahiz barruko harremanak horizontalak izan daitezen zaintzea; c) erabakiak adostasunez hartzea; bat etortzea ezinezkoa bada, EMMk Nazioarteko Biltzarren²¹ esparruan bozkatea aurreikusten du; eta d) bost urtean behin Nazioarteko Ekintzak egitea, mundu mailako mugimendu gisa duen nortasuna indartzeko.

Hala LVC nola EMM mugimenduek argi erakutsi dute gaitasun handia dutela autogobernurako eta autoantolakuntza kolektiborako guneak, prozesuak eta egiturak sortzeko, erantzukizun partekatuan oinarri-

¹⁹ Orain arte, honela txandakatu da: “Nazioarteko Idazkaritzaren lehenengo egoitza Montrealen egon zen, Quebecen, 1996 eta 2006 artean, eta Quebecoko Emakumeen Federazioak egin zion harrera [...] 2003an, EMMren Nazioarteko Hirugarren Biltzarrean, eztabaida hasi zen Nazioarteko Idazkaritza hegoko herrialde batera eramateko. Azkenik, erabakia 2006an hartu zen, eta Brasil hautatu zen Nazioarteko Idazkaritzaren egoitza har zezan” (Nobre eta Roure, 2012:6).

²⁰ EMMren Coordinadora Nacional Galegako ekintzailea. Informazio hori berak egindako ikerlan honetatik jaso dugu: “El acceso a los fondos públicos para la financiación del movimiento feminista Marcha Mundial de las Mujeres en el ámbito local: el caso de la Coordinadora Gallega” (Masterreko txosten argitaragabea).

²¹ EMM mugimenduaren Nazioarteko Biltzarrak bi urtean behin izaten dira, munduko hainbat eskualdetan egiten dira txandaka, eta koordinakunde nazionaletako ordezkariak joaten dira haietara. EMM barruan erabakiak hartzeko dauden egituren artean, hau da parte-hartze gehien duena. 1998 eta 2012 artean nazioarteko zortzi biltzar izan ziren: lehena eta hirugarrena Montrealen (Quebec), eta bigarrena New Yorkeko ekintzaren ondoren. Laugarren biltzara 2003an izan zen, eta, harrez geroztik, EMM nazioarteko bihurtzeko prozesua biltzarrak egin diren lekuetan ere islatu da: India, Ruanda, Peru, Galizia eta Filipinak (Nobre eta Roure, 2012:5).

tutako logika horizontalak eta lankideak abiaburutzat hartuta. Ildo horretan, EMMk bezala, LVC mugimenduak ere Nazioarteko Idazkaritza Betearazlearen²² egoitza txandakatzen du, eta lau urtean behin egiten ditu nazioarteko biltzarrak²³. LVC mugimenduaren nazioarteko biltzarrak dira erabaki kolektiboak hartzeko organo gorena. Biltzar horietan, eztabaida garrantzitsuak egiten dira, haien estrategiak balioesten dira eta mugimendu gisa dituzten indarguneak eta erronkak aztertzen dira. Era berean, oso garrantzitsuak dira elkartzeko, kide diren erakundeen autoezagutzarako, prestakuntza lantzeko eta nortasun kolektiboa eraikitzeko guneak.

Hori gorabehera, jendarte-mugimenduen esparruan barneko asimetriak eta zentralizazioa eta hierarkizazioa bultzatzen dituzten joerak daude. Hortaz, joera horiek onartu eta ahuldu behar ditugu, autokritika egiteko gaitasuna mugatzen duten joerekin bertan gozo gelditu gabe. Hala, bada, joera horiek zehaztu eta landu behar ditugu, horizontaltasunak behar dituen arauen eta prozeduren bidez, parte-hartze demokratikoa eta berdintasunezkoa sustatzeko, aniztasuna babesteko, eta gatazkak era eraikitzailean eta indartzailean kontrolatzeko. Bestela esanda, joera-mota horiek zein mailatan agertzen diren kontuan izan behar dugu, litekeena baita prozesuen irismena eta iraunkortasuna bera mugatzea, bai eta erakundeek berek dituzten bideragarritasuna eta garapena ere.

EMM mugimenduan kontu horren adibide edo zehaztapen egoki bat ikus dezakegu. Izan ere, hausnarketa batzuek baztertzailak, zentralizatzaileak edo hierarkizatzaileak izan daitezkeen joerak identifikatzen dituzte, eta argi uzten dute ezinbestekoa dela antolakuntzako mailen arteko komunikazioa hobetzea, oinarriak mobilizatzean eta erabakiak hartzean parte-hartze eta arintasun gehiago eta bi noranzko joera egon

dadin lortzeko. Horiek guztiak erronka gisa zehazten eta onartzen dira, gainditzeko bidean aurrera egiteko borondatez hartzen baitira, mugimenduko kide batzuek diotenez:

“Nik uste dut mugimenduek eta guk bezalako erakundeek (Sector de Mujeres) oro har dugun erronka hauxe dela: lurraldetasunaren alderdi desberdinak lotzen asmatzea [...], lotura hori lortzea erronka handia da, denak subjektutzat – eta ez soilik ordezkariatzat – hartuko gaituen mugimendu bat sortu ahal izateko. Guk hori baitugu hizpide, parte-hartzean oinarritutako mugimendu bat egin nahi dugu, ez ordezkariatzako mugimendu huts bat. Nolabait ere, beti egoten da ordezkariatza, baina parte-hartze gehiago behar da” (EMM-Guatemala).

LVC-Honduras mugimenduarekin egindako lanean ere argi aipatzen zen joera hori saihestea erronka handia dela. Horrez gain, hainbat zailtasun, tirabira eta erronka zehazten ziren, LVC-Honduras eratzen zuten erakundeen antolakuntzako funtzionamenduan eta kulturaren eragina zuten nekazari zuzendarien eginkizunei eta zereginei dagokienez. Izan ere, haien izaera askatzailea muga baitezakete, nekazari zuzendarien estilo “tradizional” batzuek mugimenduen barruko asimetriak eta desberdintasunak birsortzen dituztelako. Hala, LVC-Honduras mugimenduan, kezka eta erronka hauek zeuden: boterea erabiltzeko “molde zaharrak” era kritikoan berrikustea –molde zaharrak, batetik, postu horiek urte luzez bete izan dituzten pertsonen inguruan jiratzten direlako eta, bestetik, antolakuntza-mota tradizional, hierarkiko eta estatikoago batera eramaten gaituztelako–; belaunaldi arteko txanda hartzeko eta zuzendarien artean generoko zuzentasunaren esparruan aurrerapenak egiteko zeuden zailtasunak; erakunde batzuetako zuzendari eta

²² Maputoko V. Biltzarrean (2008) Jakartako (Indonesia) SOI 2013an Afrikara eramatea erabaki zen. Afrikako bi eskualdeetan kontsultak egin ondoren, LVC mugimenduko Afrikako kideek baterako proposamena egin zuten SOI Zimbabwen kokatzeko, ZIMSOFKek harrera eginda. Proposamena Jakartan jaso eta berretsi zuten, LVC mugimenduaren Nazioarteko VI. Biltzara izan zenean. Informazio hau hemen hartu dugu: <http://viacampesina.org>

²³ Mundu osoko 70 herrialdeetako 150 erakunde baino gehiagokoak diren 1.500 nekazari inguruk hartu dute parte LVC mugimenduak Jakartan (Indonesia) egin duen Nazioarteko VI. Biltzarrean. Biltzar horren aurretik, Gazteen Nazioarteko III. Batzarra eta Emakumeen Nazioarteko IV. Batzarra izan ziren. Aurreko edizioetan, leku hauetan egin ziren biltzarrak: Mons, Belgika (1993); Txacala, Mexiko (1996); Bangalore, India (2000); Sao Paulo, Brasil (2004); Maputo, Mozambique (2008). Nazioarteko VII. Biltzara 2017an izango da Euskal Herrian. Biltzarrei buruzko informazio osoa hemen dago eskuragarri: <http://viacampesina.org>

oinarrien artean zegoen komunikazio gabezia; eta, oro har, joera bertikalistak eta norberekeriazkoak ezartze-ko arriskua.

Joera horiek “praktika txartzat” hartzen ziren, batez ere adinean aurreratuta zeuden eta gehienbat gizonezkoak ziren zuzendarien belaunaldiei lotuta. Zenbaitetan, onartu egiten zen praktika horiek zeudela, eta lan egin behar zela joera horiek gutxitzeko eta ahultzeko, neurri batean, etika-prestakuntza arloko erronka gisa hartuta (hurrengo atalean aipatuko dugu berriz). Hala, beraz, ez zen bertan gozo geratzeko joerarik sumatzen; aitzitik, onartzeko eta autokritika egiteko joera nabaritzen zen. Hori aipatzen duten hausnarketa batzuk paratuko ditugu:

“LVC mugimenduak gazteen alde egiten du, gazteak beren lekua eskatzen ari direlako, eta hemendik denbora gutxira haiek izango direlako erakundeetako hurrengo zuzendariak eta buruzagiak. Hala ere, orain, hori berria da haientzat, buruzagi zaharrak uste du lekuz aldatu nahi dutela, gazteak etorriko direla berari lekua kentzera... Lan egiten ari da horretaz kontzientzia pizteko” (LVC-Honduras).

“[...] buruzagi berrien, gazteen eta emakumeen kultura dugu hizpide, orain arte erakundeetan ez baita sortu emakumeek parte hartzearen aldeko jarrera ireki hori. Bultzatzen ari garen prozesuaren bidez sortzen ari da, prestakuntzako prozesuen bitartez, emakumeek eta gazteek bat egiten duten guneetan, beren erakundeetan inguruan aurkitzen dituzten guneetan” (LVC-Honduras).

Hausnarketa horietan ikus dezakegunez, lidergo eta zuzendaritzetan dagoen joera horrek antolakuntzako beste tentsio edo zailtasun batekin du zerikusia, bar-

nealdean asimetriak birsortzeko eta malgutasunez jokatzeko jarrerari lotura. Gazteek eta emakumeek erakundeetan barruan betetzen duten lekuari eta jarrerari buruzko eztabaidaz ari gara.

Ezbairik gabe, nazioarteko LVC mugimenduak zailtasun hori zehaztu du aspalditik, eta hala islatzen da 2008an Mozambiqueko Maputon izan zen Nazioarteko V. Biltzarraren emaitza izan zen Documentos políticos de La Vía Campesina (2009) argitalpenaren. Argitalpen horretan, La Vía Campesina mugimenduak 2004. urtetik aurrera egindako lanaren balioespina egiten du, eta zenbait erronka finkatzen ditu, barneko funtzionamendua hobetzeari begira. Erronka horietako bat da “emakumeak eta gazteak mugimendu barruan txerta daitezten lortzea. Izan ere, haiek ezinbestekoak izango dira, La Vía Campesina mugimendu indartsuagoa eta eraginkorragoa izan dadin egin beharreko eraldatze-prozesuan” (LVC, 2009:61). Era horretan, LVC mugimenduaren ustez, helburu estrategikoa da laguntza ematea emakumeak²⁴ eta gazteak²⁵ sar daitezten eta modu zuzenean parte har dezaten. Bestalde, ezinbestekoa da prestakuntzako prozesuaren bidez (gai hau dokumentu honetako b atalean aztertuko dugu) aurrera egitea partekatutako lidergoak eraikitzeke, horrenbestez, sexu – eta adin-aldeko asimetriak murriztu, eta zuzendaritzetan belaunaldiko txandakatze egokia lortzeko.

Partekatutako lidergoak eraikitzeari dagokionez (gizon eta emakumeen eta heldu eta gazteen arteko lidergoak), LVC-Honduras mugimenduak aditza ematen du aurrera egin dela, batez ere diskurtso mailan, eta aldaketa handiak suma daitezkeela azken urteetan, baina proposamena praktikan gauzatzekoan, oztopoak eta erresistentziak azaltzen direla erakundeetan barruan, aldaketek zalantza jartzen baitituzte Hondurasko

²⁴ LVC mugimenduan antolatuta dauden erakunde gehienek eztabaidatu eta onartu dituzte helburu estrategiko horiek. Lan hau egiteko LVC-Honduras mugimenduaren esperientzian oinarritu gara, baina helburu estrategikoen egiturazko irismena hobeto ulertzeko, bereziki nabarmendu behar dugu mugimenduak berak zera adierazten duela bere dokumentu politikoetan: “La Vía Campesina mugimenduak lortu nahi du emakumeen eskubideak onartzea eta osorik errespetatzea. Emakumeek, beraz, sarbide berbera eduki beharko lukete baliabide produktiboak eskuratzeko. Horrez gain, emakume guztiak baldintza berberak izanik gure erakundeetako gune eta maila guztietan parte har dezaten lortu nahi dugu. Hitz ematen dugu emakumeen aurka egindako mota guztietako indarkerien eta bereizkerien kontra arituko gara” (LVC, 2009:66). Argitalpen horren barruan dagoen “La paridad de género en La Vía campesina” dokumentuan, zehatz aztertzen da gaia, eta LVC mugimenduak nazioarteko zenbait konpromiso finkatzen ditu etorkizunari begira.

²⁵ “Ezinbestekoa da gazteak –gizon zein emakume– gure mugimenduan barne hartzea, eta gure komunitateetan ikuspegi positibo bat sortzea haientzat. Izan ere, haiek, etorkizuna izateaz gain, oraina ere badira, sutsuki hartzen baitute parte gure erakundeak eraikitzeke eta indartzeko lanetan. Hortaz, gazteak dira aldaketa sozialerako agenteak landa-guneetan” (LVC, 2009:66).

nekazarien mugimenduen barnean dauden botere-harremanak²⁶.

Azken batean, botere-harremanetan eta erabakiak hartzean sexu-genero, adin, esperientzia, ezagutza, aktibismoan aritzeko denbora edo gure jendar-tean agertzen diren beheratzeko eta menperatzeko bestelako estatu-ardatz batzuen arabera asimetriak eta desberdintasunak birsortzen dituzten antolakuntzako dinamikek ez dute islatzen lortu nahi den emantzipazio osoko etorkizuna, eta, beraz, jendarte-mugimenduak mugatzen dituzte, emantzipazioko subjektu diren aldetik.

Ildo horretan, ezinbestekoa da autokontzientzia-maila handiagoa lantzea, banaka eta taldeka, antolakuntzen eta mugimenduen barneko aniztasunari buruz, sexu-generoa, adina, ibilbide-motak esperientzia eta abarreak aintzat hartuta. Hori aberasgarria da, ekarriko dizkigun bizipenen eta ekarpenen aldetik. Gainera, onarpena eta begirunea behar zaizkio, betiere, hierarkiarik ezartzen ez bada, edo gutxiesgarria ez bada, eta erronka bat finkatzen du antolakuntza era funtzionamenduari dagokienez.

Erakundeak eta mugimenduen sareak eratzen dituzten pertsonen parte-hartzean eta aktibismo politikoan desberdintasunak sorrarazten dituzten eragileei buruzko autokontzientzia eta lan kolektiboaren bidez, ondo ikus dezakegu adinak, generoak, esperientziak, hezkuntza-mailak, eskuragarritasunak, harreman pertsonalek eta antzeko eragile batzuek zentralitate eta maila edo estatus berezia ematen dutela, eta horrek botereko asimetria inplizituak edo ezkutuak sorrarazten dituela erakundeen baitan.

Desberdintasun horietaz oharturik (hezurmamitzen ditugun baldintza sozialen arabera abantailez eta desabantailez), eta banaka eta taldeka landuz, horietaz jabetu ahal izango gara, botereko asimetrietan duten eragina murrizteko: norik duen eragiteko pisu, zentra-

litate eta indar gehien erakundeetan, eta zeren arabera duen. Bestela esanda, nor dagoen nagusi den joeran, eta nor, berriz, ertzetan. Era horretan, bakoitzak dituen baliabideak eta bitartekoak neurritz jar litezke taldearen zerbitzuan, norberaren zerbitzuan utzi beharrean, horrela norberekeriak edo egozentrismoak azaltzen baitira azkenean. Gainera, desadostasunak eta gatazkak modu eraikitzailean kudeatzeko modua, funtzionamendua, kohesioa eta komunikazioa hobetu litezke, taldea eratzten duten kide guztiei taldeko zati garrantzitsua direla sentiaraztean, eta, horrez gain, harrera hobea egin ahal izango zaie taldera sartzen diren pertsonen.

a.3) Egunerokotasunean pertsonen arteko lotura berriak eraikitzea: kulturaren irakurketa politikoa

Aurreko kontuari lotuta, gure ustez, hauxe da jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen duen eta antolakuntzako praktikei eta kulturei dagokien beste osagai bat: mugimenduak eratzen dituzten pertsonen arteko –eta bertan sartuta ez dauden pertsonen arteko– lotura berriak eraikitzea aldaketa lortzeko lanerako ardatz nagusi gisa zehazteko gaitasuna. Hau da, erakunde edo mobilizazio bat eratzen duten pertsonen artean sortzen diren harremanek erlazio-logika instrumentalekin, patriarkalekin edo bereizkeriazkoekin hausten badute, beste mota bateko lotura sozialak eratzen badituzte (partekatutako agintea, elkarrekiko menpekotasuna, elkarrekikotasuna, desberdintasunekiko begirunea, elkarrekiko laguntza, zeregin eta erantzukizun guztien bidezko banaketa... oinarritzat hartuta), eta, era berean, pertsonen beste modu hori erabiltzen badute beren bizitzako beste esparru batzuetako (laneko, jendarteko, familiako) jendearekin harremanetan jartzeko, hortik sortuko diren harreman sozialek etorkizun askatzaile osoa islatuko dute, beren antolakuntzako praktiken eta kulturen

²⁶ LVC-Honduras mugimenduan antolatutako erakundeen barruan emakumeek betetzen dituzten karguei dagokienez, adierazitakoaren arabera, antolatutako emakume nekazarien lana ikustarazteko eta parte hartzeko guneak eskuratzeko aurrerapen handiak izan badira ere (emakumeak baizik ez dituzten CODINCA bezalako erakundeen zeregina nabarmentzen da), erronka ugari dago oraindik, egiturazko matxismoak indar bizia baitu landa-guneetan. Hala, bada, gizonek erabateko nagusitasuna dute egitura osoan eta, gehienbat, erabakiak hartzen diren guneetan, LVC-Honduras mugimenduan antolatuta dauden nekazarien erakunde misto gehienetan. Bestetik, erronka horren aurrean, erakundeetan eta zuzendaritzetan dauden emakumeen kopurua handitzeaz gain, funtsezkoa da ondo hausnartzea nolakoa izan behar duen parte-hartze horrek, eta emakumeek estrategia oldarkorrak eta autonomoak izan behar dituzte nekazarien mugimenduaren barruan.

bidez lotura soziala aldatzeko saiakera egiten eta lan-tzen ez duten harremanek baino.

Hori mugimenduek berek eraldaketa sozial eraldatzai-leari buruz dituzten ikuspegi berrietan sartuta dago. Normalean, ikusmolde horien xedea ez da izaten “boterea hartzea”, “botere-harremanak eraldatzea” baizik, eta, horretarako, beste era bateko praktika politikoak behar dira, hain zuzen, nagusi diren harreman – eta bizitza-ereduekin liskarrean dauden praktikak, jendar-tean dauden botere-harremanak eta haiek barneratze-ko prozesua era kritikoan berraztertzen dituztenak. Sector de Mujeres itun politikoko kide batek honela adierazi zuen:

“Nire ustez, gure artean ditugun botere-harremanak azpikoz gora jartzeak zerikusi zuzena du norberak zapalkuntza barneratzeko izan duen modua-rekin –nire kasuan ladinoa–, baina, horrez gain, emakume izatearekin du lotura. Izan ere, oraindik nekeza egiten zaigu kontu horietaz hitz egitea, eta gure artean garatu ahal izatea” (EMM-Guatemala).

Hortaz, onartu behar dugu agente eraginkorrak gara-la eguneroko botere-harreman guztietan, eta bereziki azpimarratu behar dugu zein garrantzitsua den gure burua eraldatzea, gero eraldatu ahal izateko; hau da, aktibismoak isla izan dezan etxeko jarreretan, auzoan, ikastetxe edo lantokian, erakundean, etab. Azken batean, hemendik aurrera, behetik gora hasi behar dugu beste era bateko loturak eta harremanak eraikitzen (elkarrekiko laguntza eta partekatutako erantzukizuna/agintea), guri dagozkigun prozesu eta talde guztietan, era horretan, beste era bateko jokae-ra etiko-politikoak, beste harreman-eredu batzuk, eta behetik eraikitako botererako beste alternatiba bat nagusitu ahal izan daitezken. Rauber-ek dioenez, herri-boterea ez da “kontra-boterea”, ezta “anti-bote-rea” ere; izan ere, horrela hartuz gero –ukazio guztie-kin gertatzen den bezala–, arriskua egongo litzateke gertakariak ezeztatzen dituen ezaugarriak implizituki berregiteko. Hortaz, beste mota bateko boterea da,

behetik eraikitzen da osorik, eta beste era bateko balioak eta harremanak hartzen ditu barne, hori dela-eta “... gatazka kulturalak gune nagusia betetzen du” (Rauber, 2011:197).

Egile batzuek kulturaren esparrua bezalako alderdiak aipatzen dituztenean, liskarrean dagoen lurraldea dela esaten dute. Ildo horretan, kulturalaren eta egune-rokotasunaren irakurketa politikoa egiteko gaitasuna izateak jendarte-mugimenduen izaera askatzailea bultzatzen du, eta horrek ere mugimendu horiek dituzten antolakuntzako kulturei eta praktikei egiten die aipu. “Kultura ez da esfera bat, dimentsio bat baizik, instituzio ekonomiko, sozial eta politiko guztien dimentsioa. Esanahiak, balioak eta subjektibotasunak eratzen dituzten praktika materialen multzoa da kultura” (Jordan eta Weedon 1995:8). Hala, beraz, jendarte-mugimendu batek arlo kulturala liskarreko lurralde gisa zehazten badu, eta ahaleginak, baliabideak, denbora eta estrategiak eskaintzen baditu kultura ekoizteko agente gisa duen gaitasuna garatzeko, agerian jartzen ari da “kultura eta politika baterako osagaiak direla”²⁷. Ikuspegi horiei jarraiki, uler genezake jendarte-mugimenduak kultura ekoizten duten agenteak direla, eta, beraz, “nagusi direnen aurka joan daitezken jakintzak eta botereak” ekoizten dituzten agenteak ere bai” (Álvarez, 2009:29).

“Arlo kulturala” ulertzeko modu horrek bultzatuta, jendarte-mugimendu askok praktika politikoen lurralde eta iturritzat hartu dituzte beren praktika kulturalak, eta alderantziz, hortik emantzipazioerantz jo ahal izateko, osorik eta era askotara, erresistentziako eta jakintzak berreskuratzeko ahalegin handia eginda, eguneroko harremanen, hezkuntzaren, komunikazioaren eta osasunaren ikusmolde berriak orain birsortzeko. Hortaz, gure ustez, jendarte-mugimendu batek bere eguneroko praktika kulturalak era horretan ulertzen baditu, eta estrategia desberdinak erabiltzen baditu beste era bateko harremanak eta praktikak eratzeko, gatazka kulturalan aritzen diren aurkako subjektibotasunak finkatzen dituzten bestelako zentzuak eta esa-

²⁷ Sonia Álvarezek, Arturo Escobar-ek eta Evelina Dagninok *Cultures of Politics. Politics of Cultures* (1998) lanean diotenez, “kultura politikoa da, esanahiek eratzen dituzten prozesuek, implizituki edo esplizituki, botere sozialari buruzko definizio berriak eman nahi dituztelako. Hau da, mugimenduek emakume, natura, arraza, ekonomia, demokrazia edo herritartasun bezalako kontzeptuei buruz hautabideak ematen dituztenean, cultural politics [deitzen duguna] jartzen dute abian” (Álvarez, 2009:29).

nahiak eraikitzeko, orduan, garrantzi gehiago izango du subjektu kolektibo askatzaile gisa.

a.4) Nortasunaren eraikuntza kolektiboa

Aurrekoari estu lotuta, jendarte-mugimenduen izaera askatzailea bultzatzen duen beste osagai bat –antolakuntzako praktikei dagokienez– bizikidetzako jardueren eta jarduera ludiko, espresibo eta sinbolikoen zaintza da. Izan ere, jarduera horiek, emozio aldetik duten berotasuna eta trinkotasuna direla-eta, partekatutako oroimena eta zentzu komunak sendotzen dituzte, konplizitatea sortzen dute, eta kide izateko sentimenduak berrindartzen dituzte. Hala, bada, nortasunaren eraikuntza kolektiboa sustatzen dute, praktika komunitarioak eta mobilizatzailerak erabiliz, eta, horietan, partekatutako imaginarioak, mezuak, abes-
tiak, kontsignak eta sinboloak birsortuz.

“Nire ustez, mugimendu bateko kide izateko sentimendua oinarrizkoa da mugimendu hori egon dadin. Horretaz aritu gara hizketan, nola lortu genuen mugimenduekin berriz lotzea, instituzio jakin batekin lotu beharrean. Eta zein den mugimendu horren bereizgarria: boterea lortzeko borrokatzen duela, baina ez dela instituzio, erakunde edo egitura bat. Mugimendu bat da, eta ez du ezinbestez instituzionalizatuta egon behar. Hala ere, kide izateko sentimendu hori funtsezkoa da. Zu hortxe zaude, eta, ildo horretan, mobilizazioek garrantzia dute, topagunea direlako, horrela, mugimenduko kide izateko sentimendua eraikitzen delako” (EMM-Guatemala).

Ekintza kolektiboko erakundeek eta sareek memoria historikoa, partekatutako imaginarioak eta kide izateko sentimendu atsegina eta beroa dituztenean, jendartearen zatiketa, bakardadea eta indibidualismoa ahulduko dituzten agente bilakatzen dira. Era berean, motibazioa eta konpromisoa sendotzen dituzte, bazterkeriak eta menpekotasunak gainditzeko borrokan taldeka eta gogotsu engaiatzeko. Era horretan, gero eta jende gehiagok sentitzen du erakarpena, eta, hala, gero eta gehiago dira beren denbora, energiak eta baliabideak lan kolektibo horren esku uzten dituztenak.

“Martxan egoteak asko aberasten gaitu, jakina; lehenik, ikuspegi subjektibotik, mundu osoko emakumeekin itunak egin ditugula jakiteak beste

sentipen bat ematen baitizu. Badakigu eraldaketa egiten saiatzen ari den mundu osoko mugimendu bateko parte-hartzaileak garelara. Niri asko axola zaidan osagai subjektibo bat da hori, hau da, askoz zabalagoa den zera baten partaide sentitzea” (EMM-Guatemala).

Izan ere, nortasunak eta kide izateko sentimenduak subjektu kolektiboa bateratzen, elkartzen eta indartzen dute, eta, aldi berean, beste agente batzuegan-
dik bereizten dute, hainbat mailatan bereizi ere. Horregatik, hainbat erronka eta zailtasun dakar berekin, kanpoko eta barneko aniztasuna kudeatzeko –hau da, hala erakundeen eta sareen barnean, nola beste nortasun eta alteritate batzuekin dituzten harremanetan–.

Kideak garen erakunde eta sareen barnealdeari dagokionez, batasun eta kohesioarekin tirabiran azaltzen dira autonomia pertsonala eta ekintzaile bakoitzaren bereizgarriekiko begirunea. Hala, beraz, gerta liteke nortasun bateratzailea eta kohesio sortzailea uniformetasunera eta homogeneousaziora lerratzea, kide izateko beste sentimendu batzuk ukatzea (sexu-genero, adin edo hizkuntza bezalako faktoreetan oinarritutako sentimenduak...), eta mailak, eskakizunak edo aukerak finkatzea, ekintzaile/kide izateko eredu itxiegi baten arabera. Horren ondorioz, normalean zailtasunak sortzen dira autonomia pertsonala eta aktibismo-molde eta – estilo desberdinak errespetatu ahal izateko, horrek nagusitasun/gutxiagotasuneko harremanak sorrarazten baititu, eta, horrekin batera, esplizituak ez diren hierarkiak ere bai. Horrela hasten garenean, kide izateko, identifikatzeko eta funtzionatzeko molde oso uniforme eta zurruneekin desbideratzen, nortasun kolektiboa indartzen duten antolakuntzako praktiken izaera askatzailea urtzen da. Hortaz, badirudi autonomia pertsonalaren onarpena, interdependentzia eta aniztasuna erreferentziako ideiak direla nora ezean ez hasteko eta desbideratze horri aurre egiteko. Hala, bada, autonomia pertsonala, interdependentzia eta taldeko kide izateko sentimendua sustatu behar ditugu aldi berean, era horretan, pertsona bakoitzaren (zati autonomoen) desberdintasunekiko onarpena eta begirunea adierazten ari garelako eta, gainera, autonomoak diren zati horiek osotasunaren kide izateko duten sentimendua ere lantzen ari garelako. Azken batean, interdependentziaren kontzientzia, desberdintasunen onarpena eta autonomiaz egituratzeko beha-

rra erronka zaila izaten dira beti, oreka aurkitu ahal izateko.

Beste nortasun eta alteritate batzuekiko harremanei dagokienez, kide izateko sentimendu kolektiboa eta nortasuna sendotzeko bizikidetzako praktiken eta praktika komunitario eta sinbolikoen bidez, erakundea eta bere sareak baino zabalagoa den harreman-esparrua behar da. Hortaz, arreta egin behar diegu beste borroka, nortasun edo kide izateko sentimenduen inguruan (kultura, hizkuntza, ideologia, genero, adinaren inguruan...) egituratu diren beste erakunde eta agente batzuekiko harremanetan izaten diren erronkei, bai eta antolatuta ez dauden pertsonetikiko harremanetan, edo azaltzen ari diren borroketan eta “berezko” edo bat-bateko mobilizazioko prozesuetan aritzen diren eta, beraz, eskema ideologiko eta nortasun politiko lausoagoak dituzten pertsonetikiko harremanetan izaten diren erronka horiei ere. Ildo horretan, nork bere nortasunean tolestura diferentzialistak eta endogamikoak baditu, gerta liteke norberaren nortasuna edo kide izateko sentimendua nagusitasuneko babes-balio gisa hartzea, horrenbestez gutxiagotuta geratzen diren beste nortasun batzuekiko. Hortaz, norberaren nortasuna erdian kokatzeko joera azal daiteke. Era horretan, beste nortasun batzuen onarpen horizontala eta giza aniztasuna eta zehaztugabetasuna galduko dira, berriz piztuko da diferentziak desberdintasun bilakatzeko joera, eta, horren ondorioz, arrazoiari buruzko ikusmolde hierarkikoak sortuko dira. Azken batean, nortasunen aniztasuna onartu eta errespetatuz gero, desberdintasunak onartu eta errespetatuko ditugu. Hargatik, gutxiagotzerik eta bereizkeriarik sortu gabe, ezinbestekoa da hori elkarbizitza demokratiko askatzailearen oinarrian egotea, eta borroka desberdinen artikulazio horizontal eta simetrikoren oinarrian ere bai.

a.5) Antolakuntza, politika eta ekonomiako autonomia

Antolakuntzako praktikei eta kulturei buruzko atal honen barruan, gure ustez, jendarte-mugimenduen irismen askatzailea indartzeko lagungarria den beste osagai bat hauxe da: autonomia politikoari eustea, hala antolakuntzan, nola finantza-arloan. LVC-Honduras mugimendurekin batera egindako laneko hausnarketa askoren arabera, Hondurasko nekazarien mugimendua hausteko eta berregituratzeko prozesu historikoa ulertzeko, ezinbesteko gakoak izan ziren

Hondurasko gobernuak hainbat alditan egin zituen itunak eta ekintzak, lehenik, 90eko hamarkadan, Merkataritza Askeko Itunei dagokienez, eta, gero, 2009an, Estatu-kolpeari eta harrezkeroztik herrialdean abiarazi ziren nekazaritzako politikei dagokienez.

“[...] (Hondurasko nekazarien mugimenduaren) zatiketa 1992an hasi zen, gutxi gorabehera... eta, normalean, nekazarien mugimenduan zatiketak daudenean –Hondurasko beste mugimenduetan bezalaxe– gobernuak esku hartu duelako izaten da [...] Hondurasen zatiketa izan den guztietan –eta ez soilik nekazarien erakundean, maisu-maistren erakundean ere bai–, sindikatuek beti ikusi izan dituzte gobernuaren eskuak tartean” (LVC-Honduras).

Behin baino gehiagotan, guztiz baldintzatuta geratzen dira, hala barneko funtzionamendua, nola borrokarako estrategia politikoak. Hain zuzen, hala gertatzen da elkarteak edo erakundeak menpekotasun ekonomiko edo politikoko harremanen bat duenean instituzio publikoekin, lankidetzako agentziekin, alderdi politikoekin edo beste instantzia batzuekin. Beste instantzia horiek erabiltzen dituzten lan egiteko moldeek eta logikek (erritmoek, epeek, eskakizun formalek, hauteskundeek...) inertziak sor ditzakete (beharbada, nahi gabe edo oharkabea), eta, horren ondorioz, litekeena da jendarte-mugimenduen ekintza kolektibo molde bereziaren ezaugarriak zehazteko aipatu dugun izaera aldatzea, hau da, izaera irekia, parte hartzekoa, horizontala, disidentea, aurkakoa eta hauslea aldatzea.

“Alderdi politikoetan, oso garrantzitsua da alderdiotako feministek parte hartzea, baina kontu handiz jokatzeko dugu elkarlanean aritzen garenean, gure autonomia osoa bermatu behar baitugu. Esate baterako, alderdi politikoek diru-laguntza eman nahi badigute, guk ez dugu haien izena jarriko materialean, ez baita soilik haien izena jartzea, horren atzetik ideologia zehatz bat baitago, eta guk ezin baitugu hori egin. Militante guztiak gara garrantzizkoak [...]; borroka osoak, eztabaida osoak, Martxaren politika feminista osoak, alderdi barruko militanteek ere indartzen dute beren borroka [...] Orduan, garrantzizkoa da ezkerreko alderdietako emakumeen parte-hartzeak iraun dezala, eta areago heda dadila lortzea. Izan ere, hauxe da gure oinarri nagusia, egunero sendotzen eta berresten duguna: kapi-

talismoaren, patriarkatuaren eta neoliberalismoaren aurkakoak gara. Hortaz, alderdi politiko batzuen militanteek ez dute lekurik Martxan parte hartzeko, haiek neoliberalak direlako eta Martxan neoliberalismoaren aurka gaudelako” (EMM-Brasil).

Jendarte-mugimenduek emantzipazioko subjektu gisa duten garrantziari buruz hausnartzerakoan kontuan izan behar dugun beste alderdi garrantzitsu bat hau da: autonomia politikoari eustea eta beste instantzia batzuen eskakizunen ondorioz baldintzatu gabeko barne funtzionamendua izatea. Hala, beraz, alde batera utzi behar dira erakundeari eta jarduerari eusteko dauden finantza-arloko menpekotasunak, bai eta beste edozein agenterekiko menpekotasun politikoak ere.

a.6) Mugimenduen arteko sareak eta elkarguneak

Azkenik, jendarte-mugimenduen antolakuntzako praktiken izaera aldatzailea indartzeko, gaur egun, aski lagungarria den beste alderdi bat aipatu behar dugu: sarean lan egitea, eta era askotako artikulazioetan (feministen, nekazarien, bakezaleen, ekologisten, indigenen artikulazioetan, etab.) agertzea eta jarduerak egitea, hainbat mailatan –tokian, nazioan, estatuan eta nazioartean–. Era horretan, ahalmen gehiago izango dugu mobilizatzeko, eztabaida politikoak aberastuko ditugu, eta beste erakunde batzuen esperientzia praktikoen bidez ikasiko dugu.

Joan den hamarkadatik hona indartu diren artikulazioek –besteak beste, Emakumeen Mundu Martxa, La Vía

Campesina²⁸, Articulación de Movimientos Sociales hacia el ALBA proposamenak²⁹, Boliviako Pacto de Unidad itunak edo munduko edo kontinenteko foro sozialetatik ateratako baterako agendaren ondoriozko dinamikek– argi erakusten dute mugimenduen borrokkak atomizazioa eta sakabanaketa gainditzeko ari direla, eta gero eta joera handiagoa dutela erakundeen eta mugimenduen arteko elkarguneak egiteko, horrela, modernitate/kolonialitate kapitalista eta patriarkalari eusten dion zapalkuntza ugariko sistemari aurre egiteko.

“Itun politiko bat gara, emakumeen eta feministen erakundeen eta erakunde mistoen akordioen emaitza, erakunde horiek, zegokien jarrerara politiko autonomotik abiatuta, beste batzuekin biltzea erabaki baitzuten, beren lurraldeetan, arlo indibidualean eta kolektiboan aldaketa politikorako indar egiteko. Itun honen bidez, dena eraikitzen dugu: proiektua, estrategiak eta ekintzak, norberaren antolakuntzako eredu eta besteekiko itunak. Bizitzaren, askatasunaren eta autonomiaren alde egiten dugu. Tokiko, nazioko, eskualdeko eta nazioarteko emakumeen mugimenduko eta mugimendu feministako kideak gara” (Sector de Mujeres)³⁰.

Prozesu horietan oinarrituta, joeraren arabera, badi-rudi hainbat zapalkuntza-molderen aurka eta helburu desberdinen alde borrokan aritzen diren taldeek eta erakundeek –gutxieneko oinarrien programa prestatu ondoren– akordio zabalak egingo dituztela, hainbat

²⁸ La Vía Campesina mundu osoan dagoen nazioz gairik jendarte-mugimendurik garrantzitsuen delako esan ohi da. Mugimenduak berak honela azaltzen du web orrian: “La Vía Campesina mugimenduk tokiko eta estatuko 150 erakunde inguru biltzen ditu Afrika, Asia, Europa eta Amerikako 70 herrialdeetan. Guztira, 200 milioi nekazarien ordezkaria da”. Sortu zenetik, LVC mugimendua handitu baizik ez da egin, etengabe ari baita mugimenduak antolatzen. Hogeitau urteurrena ospatzean, Jakartako Nazioarteko VI. Biltzarra zela (2013ko ekainean, Indonesian), LVC mugimenduak 33 erakunde berri berretsi zituen, eta guztira 183 erakunde hartu zituen barne mundu osoan barrena. LVC mugimendua eratzeke prozesu historikoa sakonago ezagutu nahi izanez gero, irakurri Borrasen (2004) eta Torres Martínezen eta Rosseten lanak (2010).

²⁹ “Articulación de Movimientos Sociales hacia el ALBA kontinentea integartzeko proposamen antiimperialista, antineoliberal eta antipatriarkala da, antolatutako oinarri sozialeko mugimenduek eratzen dute, eta herri-mobilizazioa lortzeko gaitasuna du, eskualdean (Latinoamerikan) berdintasun, askatasun eta benetako emantzipazioaren alde borrokatzen duten mugimenduak batuz”. Borrokkak antolatzeko prozesu hau 90eko hamarkadaren erdialdetik dago abian. Orain dela gutxi (2013ko maiatzaren 16tik 20ra), Sortze Batzarra egin du, eta bertan kontinente osoan 22 herrialdeko 200 ordezkari baino gehiago bildu dira, antolakuntza organikoarekin aurrera egiteko, eta kontinente osoan ezarriko den ekintza-plana prestatzeko, ardatz hauetan oinarrituta: protesta soziala militarizatzeari eta kriminalizatzeari aurkako borroka, multinazionalen eta pribatizatzeko prozesuen aurkako borroka, eta ama lurraren eskubideen, ongi bizitzeari eta nazioarteko elkartasunaren defentsa. Bereziki nabarmendu behar dugu sortze-batzar horretan EMM eta LVC mugimenduetako ordezkariak izan direla. Informazioa hemendik hartu dugu: <http://www.albamovimientos.org>

³⁰ Lehen adierazi dugunez, EMMk Guatemalan duen ereduak erakunde da Sector de Mujeres. Informazio hau beren web orritik hartu dugu. Ikusi: <http://www.sectordemujeres.org>

eskalatan (tokian, nazioan, eskualdean, kontinentean, mundu-mailan), bere protagonismo eskusiboarekin bere borroka bereziaren arabera gehieneko oinarriak finkatuko dituen sektore batek nagusitasunik izan gabe. Horren ordez, itxuraz, antolakuntzako eta mobilizazioko indarren mailaz mailako metaketa bat da – barneko tirabirak eta eztabaidak izan arren–, eta mugimenduen arteko desberdintasunaren eta autonomiaren onarpena eta begirunea dira bere oinarriak. Hortaz, “internazional” berri baten moduko zera bat dugu, edo “internazionalak”, arin eta malguagoak diren eta deszentralizatuago dauden internazionalak, berriro eratzen baitira egoeraren arabera, desoreka sortzeko izan dezaketen indarraz ondo ohartuta, aurkako izaera duen indar-korrelazio orokor batean. Testuinguru eta egoera jakin batean, helburu edo mugimendu zehatz bati ematen zaio lehentasuna (ekologistari, feministari, langileei, nekazariei, indigenei, bakezaleei, etab.), eta borroka-esparru horretako erakundeak eta sareak arduratzen dira itunak eta sinergiak bultzatzeaz, baterako erantzun zehatz bat prestatzeko aukera emango duen agenda adosteko. Mota horretako sareetan eta sinergietan agertzea eta lan egitea da aipatzeko modukoak iruditzen zaigun beste alderdi bat, jendarte-mugimenduen praktiken izaera askatzailea indartzeari begira.

“Zapaltzailea izendatzea oinarrizkoa da, zeren, adibidez, sindikalistak kapitalismoaz aritzen baitira, herri indigenen esparruan kolonialismoa aipatzen baita, eta emakumeak patriarkatuaz jarduten omen baikara. Horiek horrela, gure ustez, sistema osoa hizpide hartzen ez badugu, orduan, bakoitzak bere zatitxoaren alde egingo du borroka, eta sistemak bere burua birsortzen jarraituko du etengabe, zapalkuntza guztiek sustrai bera baitute” (EMM-Guatemala).

Hurrengo ataletan, sakonago aztertuko dugu gaia.

b) Eraikitzen dituzten ezagutza eta proposamenei dagokienez

Hona hemen, tailerretan, jendarte-mugimenduen ***izaera askatzailearen joera indartzailatzat*** sailkatu direnak:

- Jendarte-mugimenduek botere-harremanak eta harreman horiek sorrarazten dituzten bereizkeriak aztertzen dituzte, finkatuta dauden nagusitasunak eta ezin zurituzko abantailak seinaltzen dituzte,

eta harreman horietako aurkariak zehazten dituzte. Era horretan, beren jakintzak eta proposamenak sortzen dituzte.

- Prestatzen dituzten nagusitasunaren aurkako proposamenak nekez kooptatu ahal dira, etorkizun askatzailea definitzen dutelako eta utopiari bizirik eusten diotelako.
- Jendarte-mugimenduen agenda eta egitura definitzen dituen ezaugarrietako bat dinamismoa da: testuinguruko aldaketei egokitzeko gaitasuna erakusten dute.
- Eztabaida politikoko agendetan arazo berriak sartzeko gaitasuna dute, ekintza-esparru komun eta partekatatu batetik abiatuta.
- Pertsonala dena politikoa da esaera funtsezkoa da: arlo intimoan egin behar diren aldaketak egitea (subjektibotasunak) eta arlo kolektibora eramatea proposatzen dute. Aukera ematen dute arlo emozionala arlo politikoan sartzeko.
- Prestakuntza politikoak mugimendua eraikitzeko eta kontzientzia kritikoa sortzeko prozesuan duen garrantzia nabarmentzen da.
- Beren historiak teorizatze eta idazteko gaitasuna dute.

Bestetik, joera batzuek jendarte-mugimenduen ***izaera askatzailea*** mugatzen dute, errealitateari buruz egiten duten diagnostikoetan eta prestatzen dituzten proposamenean:

- Zailtasunak dituzte ikuspegi orokorra izateko, sektorializaziora eta borrokek zatikatzerara jotzen baitute. Statu quoak errazago xurga ditzake agenda sektorialak eta partzialak.
- Atomizatze eta guneak ugaltzeko joera dago; batzuetan, “norberaren lur-zatia defendatzeko” logikak suma daitezke, batez ere egoek edo protagonismo pertsonalek bultzatutakoak.
- Kontsignetan oinarritutako agendak sortzeko joera dago, eta zailtasun handiak daude sistematizatze.
- Egoeraren eta testuinguruaren azterketan ahulda-deak daude. Batzuetan, ikuspegi historikoa falta da.

- Ahuldadea sumatzen da komunikazioko politikan, mugimenduek egiten eta pentsatzen dutena, haien ideologia eta proposamenak ezagutzera ematerakoan.
- Nola-halako joera sumatzen da mitifikatzeko eta bertan gozo gelditzeko, eta horrek autokritika egiteko gaitasuna murrizten du.

Jarraian, aurreko atalean bezala, zehatzago aztertuko ditugu sumatu ditugun joera horietako batzuk. Horrela, areago sakonduko dugu mugimenduen irismen askatzailea indartzen duten alderdietan, jakintza sortzeari eta prestakuntza politikari dagokienez.

**b.1) “Ezin eztabaidatuzkoa dena” eztabaidatzea:
pentsa eta egin daitekeenaren esparruak
zabaltzea gatazkako logika politikoan**

Lehenik eta behin, sorkuntza kognitibo eta propositiboari dagokionez, jendarte-mugimenduak subjektu aktiboak dira historiaren bilakabidean, gogoeta egiten dutelako eta jardunean aritzen direlako, finkatuta dauden egitura sozialek naturalizatzen dituzten gutxiagozkeak eta menpekotasunak argitaratzeko eta eraldatzeko. Botere-egitura horien izaera kontingentea erakusten digute (giza harremanen sorkuntza historikoa), eta horretan, taldeka eraldatzeko proposamenak prestatu ahal izateko, hain zuzen, pertsona guztientzako bizitza duina bermatuko duten elkarbizitza eta erreproduktio soziala antolatze moldeen utopia bizirik iraunaraziko duten proposamenak.

Azken batean, mobilizazioa pizten duten borroka sozialek sakonki astintzen dituzte dauden abantailak, eta sektore herrikoien beharrian kolektiboak adierazten dituzte –hala emakume, nekazari, gazte, ekologista, antimilitarista gisa antolatzen direnen beharrianak, nola herri-, sexu-, auzo-, langile – edo ikasle-identitatearen arabera beren nortasuna zehazten duten horienak–. Hala, bada, mobilizazio politikoak agerian jartzen du atsekabea eta salaketa adierazteko modu ugari daudela. Era berean, mezuak, eskema kognitiboak eta praktika mobilizatzaileak sortzeko gaitasunaren bidez, arlo zehatz batean finkatuta dauden botere-harremanak eta harreman asimetriko horiek sorrarazten dituzten gehiegikeriak eta bereizkeriak aztertzen dituzte jendaurrean. Zalantzarik gabe, zapatismoa izan

da sormen kognitibo, sinboliko eta propositiborako gaitasun hori argien garatu duen eta nazioartean eragin gehien izan duen mugimenduetako bat, pentsatu eta zalantzan jar daitekeenaren esparrua hedatu baitu. Orain dela gutxi, EZLNek –Askapen Nazionalerako Armada Zapatistak– jakinarazpen batzuk eman ditu argitara, “Ellos y nosotros”³¹ izenburupean, eta, hor, zuzenean aipatu ditu atal honetan aztergai ditugun kontuak.

Gure ustez, jendarte-mugimenduek duten nagusitasunaren aurkako izaera askatzailea areago indartzen da, ez baitira finkatutako egituren koordinatuen barruan eragiteko politika bat ezartzera mugatzen. Horren ordez, sakonki astintzen dute egitura horiek historikoki egituratu dituen boterearen dialektika. Horrenbestez, haien ekoizpen kognitiboak, gatazkako logika politikoari jarraiki, gehiegikeria eta bereizkeria horiek ugaltzen dituzten jarduerak pribatuak eta politika publikoak zehazten ditu, eta erantzukizunak adierazten ditu, eztabaida daitezkeen auzien eta eztabaidatu eta erabaki behar duten sektore/agenteen esparru demokratikoa zabaltzeko aukera emango duten mobilizazioko eta salaketako praktika hausleak erabiliz.

Horren adibide argia dugu, ezbairik gabe, La Vía Campesina mugimenduaren nazioarteko esperientzia. Sortu zenetik, LVC mugimenduak beti aldarrikatu du beren nekazarietako gune bat izatea nazioartean, horrela, beren interesak babestu ahal izateko. Alabaina, nazioarteko hainbat negoziatuziotan beraientzako gune hori eskatu zutenean, gatazka sortu zen zenbait agenteren artean (gehienbat ordura arte nekazarien prozesuetako ordezkari eta buru ziren gobernu kanpoko erakundeekin), horiek ez baitzuten nahi LVC bezalako subjektu bat egon zedin. Horiek horrela, hainbat gatazkari aurre eginez, LVC mugimenduak hartu zuen jarrera politikoa nekazarien eta industrien arteko ereduaren aurkakoa zen, eredu agroekologikoa eta elikadura-burujabetza babesten baitzituen. Nazioarteko LVC mugimenduko ekintzaile batek esan zigunez, elikadura-burujabetza ez zen berrikuntza bat, aspalditik ari baitzen praktikan garatzen ordurako. LVC mugimenduak kontzeptu politikoa sortu zuen, orain dela milioika urtetik hona erabili den eredu bat babesteko.

³¹ EZLNren jakinarazpenak, “Ellos y Nosotros”, 2013ko urtarril-martxoak. Hemen dago eskuragarri: <http://enlacezapatista.ezln.org.mx/>

“[...] La Vía Campesina mugimenduak lortu zuen beste aurrerapen bat da jarrera argi bat egituratu zuela, adibidez... Elikadura Burujabetza agenda. 1996an sortu zen hori, FAOk Erroman egin zuen Elikadura Segurtasunari buruzko Biltzarrean... hau da, dena irauli zuen, FAOk zerabilen elikadura-segurtasunerako eskema hura, nazioarteko erakunde guztiak, gobernuak, dena. Eta LVC mugimenduak gai honi lotuta eskuratu zuen lorpenik handiena da gaur egun mundu osoan eztabaidatzen dela elikadura-burujabetzaren gaia, ez dute egiten soilik nekazariak; eztabaidagaia izan da FAOn eta Nazio Batuen Erakundearen... eta jendartean zabaldu dira kontzeptu, oinarri horiek. Jakina, kasu batzuetan desitxuratu egiten dira, edo gutxi ulertzen dira [...] Garrantzitsuena da eztabaidako mahai gainean dagoela (LVC-Honduras).

Zalantzarik gabe, elikadura-burujabetza kontzeptua adibide gakoetako bat izan da, gatazkako logika politikoan pentsa eta egin daitekeenaren esparruak zabaltzeko prozesua azaltzeko. Horrenbestez, nekazaria subjektu politiko estrategiko bilakatu da, jendartearen eredu kapitalista, kolonial eta patriarkalak duen bideragarritasuneko krisialdiari alternatiba askatzaileak bilatzerakoan.

b.2) Jakintzaren sistematizazio eta eraikuntza kolektiboa, jendeak izandako bizipen eta beharrianetatik abiatuta

Aurreko b.1 puntuan adierazi dugunez, “ezin eztabaidatzeko” dena eztabaidatzeko, jakina, hausnarketa, azterketa, ikuspegi historikoa eta eztabaida behar dira, eta hori guztia diskurtso eta proposamen baten bidez sistematizatu behar da gero. Hau da, herriko sektoreak dituzten kezkatatik eta beharrianetatik abiatuta, historikoki egituratutako nagusitasunak adierazi behar dira, eta elite antagonikoen abantaila horiek gaur egun egituratzeko izan duten prozesua ikusi behar da, era horretan, geure jakintzak eta proposamenak sorrarazteko, eta, horrenbestez, finkatuta dauden nagusitasun ideologikoen ezkutatu dutena argitara eman ahal izateko.

Horri dagokionez, gure iritiz, azterketak eta diskurtsoak egituratzerakoan, aurrez finkatutako uste sendo eta eskema ideologikoetatik abiatzeaz gain, herriko sektoreak dituzten kezka, atsekabeak eta beharrianak entzun eta barneratu behar ditugu, horrek handitu egingo baitu mugimenduen indar askatzailea. Era horretan,

mugimenduek bat egin ahal izango dute eraldaketari begira partekatutako bizipen eta desirekin, eta jendartean aski garrantzitsuak diren esparru diskurtsibo batzuekin.

“Iparraldeko Ibai Handian, horrelako zerbait egin dugu Martxan, emakumeak dituzten berehalako beharrianak oinarritzat hartu, eta, hortik abiatuta, borroka zehatz bat eta proiektuko eztabaida jakin bat sortu. Esate baterako, indarkeriaren gaia hartuta, emakumeen errealitatean oinarritu ginen eztabaida egiteko [...] Martxa eguneroko mugimendua izan dadin lortuz gero, oinarri sozial zabalagoa izango dugu, eta Martxa egunero-egunero egongo da hortxe. Garrantzizkoa da Martxa egunero azaltzea toki-esparruan, gero nazio osoan eta nazioartean ere azal dadin. Nire ustez, hori lortzen badugu, eraikitze ardurak gure artean banatu ahal izango ditugu, eta emakumeak dituzten berehalako arazoak konpondu ahal izango ditugu. Ez du zentzurik ekonomia berdearen gaia ateratzek, aurrez emakumeen errealitatearekin lotura zuzena duen elkarrizketa izan gabe” (EMM-Brasil).

Hori lortu nahi badugu, entzuteko, enpatia izateko, umil jokatzeko eta elkarrizketa horizontala eratzeko ahalegina egin behar dugu etengabe, eta, aldi berean, gai izan behar dugu sintomatikoa dena (eguneroko arazoak eta atsekabeak) atzealdeko asimetria historikoen eta egiturazkoen magmarekin harremanetan jartzeko. Hala, bada, berehalako beharrian horietatik abiatu behar dugu, behar horiek asebeteko dituzten diskurtsoak eta estrategiak taldeka eraiki ahal izateko. Horretan ari garela, alde batera utzi behar ditugu jarrera militanteak, “denetarako erantzunak dituzten” jokabideak, horrelakoek normalean molde harroak eta doktrinatzailak sorrarazten baitituzte harremanetan jartzekoan, aurretiazko esperientzia politikoan oinarrituta, edo aurrez finkatutako eskema teoriko-ideologikoen era dogmatikoan berreginez.

Nolanahi ere, zaila da oreka lortzea, alde batetik, egunerokotasunaren adierazpide desberdinak entzuteko eta haiekin bat etortzeko, eta, bestetik, egiturazko eta nagusitasunaren aurkako irismena duen diskurtso bat taldeka prestatu ahal izateko. Zailtasun horri ekitekoan, azterketa eta hausnarketaren ekoizpena ulertzeko dugun moduan bizipenak nabarmendu behar ditugu gehienbat, eta indukzioa eta parte-hartzea bulztatu behar ditugu, jakintzaren eraikuntza kolektiboko

prozesuak sorraraz ditzaten. Era horretako prozesuak garatu dituzte herri-hezkuntzan, parte-hartzean oinarritutako ikerkuntza-ekintzan, esperientzien sistematizazioan, eta, behin baino gehiagotan, mugimenduek berek dituzten prestakuntzako guneetan. Izan ere, gune horiek herri-hezkuntzaren erreferentzia filosofikoak eta metodologikoak erabiltzen dituzte, parte-hartzea, jakintzaren eraikuntza kolektiboa, konplizitatea eta konpromiso aktibista, eta borroka kolektiboarekiko emoziozko engaiamendua sustatzeko. Gai hori aurrerago landuko dugu berriz.

“Taldeka egindako Martxako dokumentuek [...] Martxaren ekintza nondik nora doan adierazten dute. Hori jasota edukitzeak eta dokumentuak eraikitzeak moduak berak indar handia ematen digute guri” (EMM-Brasil).

“Nire ustez, mugimenduarentzat oinarrizko lana da garena eraikitzea, garenaren jendaurreko ikuspegi eraikitzea gure baitatik abiatuta. 2007tik 2008ra bitartean liburua³² moldatzen aritu nintzen [...] horrek argi islatzen du nola egiten duen lan Martxak, hori da gure erreferentzia. Ondo sistematizatzen du gure praktika” (EMM-Brasil).

Ildo horretan, interesgarria da EMM mugimendurekin izandako lan-bileretan egin diren hausnarketa batzuk, argi adierazten baitute mugimenduko kide batzuek nola ulertzen duten jakintza ekoizteko prozesua. Jakintzaren eraikuntza kolektiboko prozesuetarako probak nola egiten diren erakusten digute, eta adierazten digute zein zailtasun dagoen prozesu horretako zereginetan batzeko, txertatzeko eta oreka lortzeko (behaketa, entzunaldia, egunerokoaren sistematizazioa, jakintza prestatzea, etab.), betiere, mugimenduaren eguneroko dinamikan lehendik dauden zereginekin bateragarri egingez. Horrez

gain, ondoko hausnarketan, jakintzaren arloan dauden botere-harremanak eta beste epistemologia batzuk berreskuratzeko eta ikustarazteko beharra adierazten da.

“Guk (Sector de Mujeres) batzorde feministaren esparruan argi ikusi dugu nola jokatu dugun bi urtez egin genituen hausnarketak sistematizatzeko [...] komunitate epistemikoak egitea pentsatu genuen, hau da, epistemologia akademikoen kontua ez zela onartzea. Eta akademian eta unibertsitate handietan kooptatutako ideia epistemiko hori ere zapalkuntzaren zati bat dela. Aurkikuntza hori oso ideia libertarioa izan zen, eta, hala, komunitate epistemikoak egitea pentsatu dugu. Ez dugu gehiegi aurrera egin, baina ideia hori dugu. Feminismo komunitarioan, berriz, ondo ibiltzen ari da³³. [...] Nik uste dut gune txikitxo batzuk ahalegina egiten ari garela; izan ere, guk geuk ere ausardia izan behar dugu “ezin dut” ideiarekin hausteko, barruan ditugun ideia horiek guztiak bertatik kentzeko, jakintzaren ekoizpenaren kontua beti ikusi baitugu geure baitatik hain kanpo, non gu geu jakintzaren ekoizle gisa irudikatzea ere ahaleginaren zati bat ere bai baita” (EMM-Guatemala).

Era berean, LVC mugimenduak eraikitzen dituen azterketak, diskurtsoak eta proposamenak mugimenduan egituratzen diren elkarte heterogeneo guztien lan kolektibo eta barne negoziazioko prozesu zabal eta konplexuen emaitza dira. Lehen aipatu dugun “Documentos Políticos de La Vía Campesina” liburua da urteen poderioz gaitasun kolektibo hori nola garatu den erakusten duen argitalpenetako bat. Atal honetan nabarmendu dugu, liburu horretan³⁴ ahalegin handia egin baita esperientzian oinarritutako jakintza kolektiboa sistematizatzeko eta eraikitzeak; bertan, zabal

³² Liburu honetaz ari da: *Marcha Mundial de las Mujeres 1998-2008: una década de lucha internacional feminista*. Sao Paulo: Nazioarteko Idazkaritza EMM (2008). Dokumentu hori eta EMMk prestatu dituen beste argitalpen batzuk ikusteko, ikusi hau: <http://www.marchemondivale.org/publications/es/>

³³ Ondoko loturan ikusgai dagoen dokumentuan, aipuan adierazitako aurrerapenak ikus daitezke, Documento en Construcción para aportar a las reflexiones continentales desde el feminismo comunitario, al paradigma ancestral originario del “Sumak Kawsay” – Buen Vivir, Asociación de Mujeres Indígenas de Santa María Xalapán Jalapa –AMISMAXAJ, Sector de Mujeres, Mesoamericanas en resistencia, Asambleas del Feminismo Comunitario eta EMM mugimenduetakoak. http://xa.yimg.com/kq/groups/25174588/1255458108/name/Buen%20Vivir_%20desde%20el%20feminismo%20comunitario.pdf

³⁴ LVC mugimenduaren argitalpen horretan (2009), nazioarteko testuinguruaren azterketa kritiko bat topa dezakegu, alderdi hauek ikertzen dituen: testuinguru horrek LVC mugimenduaren estrategiei begira izan ditzakeen ondorioak, LVC mugimenduak 2004. urtetik egin duen lana, azterketa autokritiko gisa paratua (lorpenak eta, batez ere, etorkizunerako erronkak zehaztuta); gai zehatzei buruz jarrera hartzeko dokumentuen bilduma, eta lan-batzordeek prestatutako dokumentu gakoak. Ikusi amaierako bibliografia.

adostutako azterketak, diskurtsoak eta proposamenak aurkituko ditugu, nazioarteko borroka, zapalkuntza eta eskala desberdinak antolatzeke eta haiei erantzuteko. 2007. urteko azaroan hasi zen prestatzen, eta 2009ko otsailean eman zen argitara. Liburuaren sarrean, prozesuaren zati baten berri ematen da:

“Argitalpen hau gure mugimenduan sakon eztabaidatutako eta La Vía Campesina mugimenduko kideek ekoiztako atzealdeko dokumentuen eta dokumentu politikoaren bilduma handia da [...] testu hauek ez dira perfektuak. Gure erakundeetan sortu ziren, kultura eta hizkuntza aldeko aniztasun horretan eztabaidatzea eta baterako ikuspegi bat sortzea izugarri kontu konplexua izan arren. Liburu hau ez da perfektua, baina gaur egun La Vía Campesina mugimendua eratzen dugun erakundearen artean izandako adostasun zabalaren isla da, eta oinarri garrantzitsua da harantzago eta sakonago joateko, nekazarien nazioarteko ahotsa eraikitzeke lanean” (LVC, 2009:3-4).

Bestetik, jakintza kolektiboa eraikitzeke eta sistematizatzeko prozesu eta argitalpen horiek argi erakusten dute LVC mugimendua, EMM bezala, hasia dela bere historia idazteko gaitasuna duen subjektu kolektibo gisa jokatzeko, ekin baitio bere praktikatik abiatuta jakintzak jasotzeari eta prestatzeari, bere testuak, liburuak, liburuxkak eta bideoak ekoizten eta komunikabideak eratzen, horiek doan eta denbora errealean banatu ahal izateko (batez ere, Internet bidez). Nabarmetzeko moduko beste kontu bat da, edukia edo produktua aipatzeaz gain, bereziki nabarmentzen dela dokumentuak eraikitzeke izan den prozesua, forma. Bi kasuetan, estrategikotzat hartzen da nork bere materialak sortzea, nork bere buruari prestakuntza emateko molde gisa. Antolakuntzako estrategiak aztertuko dituen hurrengo atalean, zehatzago ekingo diogu gai horri.

b.3) Hainbat zapalkuntza eta borrokaren artikulazio diskurtsiboa eta agenda zabalak eta anitzak eraikitzea

Azterketak, diskurtsoak eta proposamenak ekoizteko esparruan, gure ustez, gutxiagotzeko eta bereizteko formen artikulazio diskurtsiboa lantzea oso lagungarria da mugimenduen izaera askatzailea indartzeko. Horrek esan nahi du, gai izan behar dugula, beste borroka askatzaile batzuk lantzen dituzten elkarte eta erakundeekin batera, ikuspegi orokorra edukitzeko aukera emango diguten azterketak egiteko, hau da, zapalkuntza-molde ugariak kritikoki berrikusten ez dituen eta zapalkuntzarik gabeko etorkizun askatzailea elkartasunez eta osorik proposatzen ez duen gehiegizko partzialtasuna eta sektorialitatea saihestuko dituen ikuspegi orokorra.

“Martxa mugimendu iraunkorra izango zela erabaki genuenean, artean kanpaina bat zela Martxan parte hartu zuen jende asko ez zen etorri [...] Guk aurrera jarraitu genuen, eta 2000. urtetik aurrera [...] asko zabaldu genuen, hala mugimendu feministaren egituratzaile gisa betetzen genuen eginkizuna, nola lantzen hasi ginen gaien irismena. Hainbat eztabaida egin genituen: merkataritza askea eta ALCA-Ameriketako Merkataritza Askeko Eremuaren aurkako kanpaina dela-eta egin genuen eztabaida, geuk Martxan dinamizatu genuen gutxieneko soldadari buruzko eztabaida, REMTE ekonomia feministako sare gisa finkatu ondoren dinamizatu genuen ekonomia feministari buruzko eztabaida... eta Foroaren prozesu osoa egin genuen eta, beraz, nazioartean eta Latinoamerikan artikulazioa eratzeko lana ere bai [...] Ekonomia feministak lotura batzuk egiteko eta gaiak sartzeko aukera eman digu, baina, era berean, nire ustez, ekonomia feminista oso lagungarria izan zen indartsuak eta estrategikoak ziren gai batzuei buruzko elkarrizketak bere garaian izateko, hau da, neoliberalismoaren aurrerapenak eragin zuen

³⁵ LVC mugimenduaren Nazioarteko VI. Biltzarraren ondoan argitara emandako Jakartako Deian honelaxe diote (2013ko ekaina): “Guk, La Vía Campesina mugimendua, presazko deia egin nahi dugu landa eta hiriguneetako erakundearen arteko batasun orokorra hariz hari ehuntzeko, horrela, eraginkortasunez, erabakimenez eta modu propositiboan parte hartzeko elikadura-burujabetzan, justizian eta berdintasunean oinarritutako jendarte berriaren eraikuntzan [...] La Vía Campesina nekazarien nazioarteko mugimendu bat da, eta 200 milioi lagun baino gehiago biltzen ditu, nekazariak, herrialde indigenak, arrantzaleak, biltzaileak eta laborantzako langileak barne hartuta –gizonak zein emakumeak–. Emakumeen sormena eta gazteen grina ditugu aldean, eta 70 herrialdeetako 150 erakundeetakoak gara. Orain Asian gaude, munduko nekazari gehienez etxean, borrokatzen eman ditugun lehenengo hogeitau urteak ospatzeko”. Informazioa hemen dago eskuragarri: <http://viacampesina.org>

eredu ekonomikoaren inguruko liskarrak zeudela” (EMM-Brasil).

Nazioarteko LVC mugimenduak, sortu zenetik, erronka hartu zuen bere gain nekazarien (eta ez soilik nekazarien)³⁵ errealitate askotarikoak antolatzeke, eta gero eta zabal eta anitzagoa izango zen borrokako agendaren inguruan egituratzeko. Borrassen ustez (2004), LVC mugimendua subjektua eta eszenatokia da aldi berean, eta auzi hori argi islatzen da agendak eratzeko prozesuan: “La Vía Campesina mugimenduak (aktore gisa) dituen agendek eta helburuek argi islatzen dituzte bere kideak diren erakundeak. La Vía Campesina mugimendua bera osatzen duten erakundeek dituzten agenden eta helburuen batuketa baino askoz gehiago da, haien artean izandako barne negoziazioen emaitza era bada (Vía Campesina como escenario)” (Borras, 2004:10).

Agendak eta borrokak antolatzea LVC mugimenduen oinarritzko estrategiatzat jotzen da, eta oso lagungarria da mugimendua nola sortu zen eta nola hazi eta bilakatu zen ulertzeko. Hona hemen agendaren ezaugarrietako batzuk, mugimenduak berak aditza emandakoak (LVC, 2009): nekazaritza-arloa mundu-mailan lantzen duten azterketa kritikoak eta autokritikoak ditu oinarrian, eta, horien bidez, agenda argia eta sendoa finka daiteke; bere agenda politikoko proposamenek gero eta zabalago egiten diote aurre nagusi den agendari, hau da, ez dute soilik nekazaritza-arloa aintzat hartzen; bere agendaren bidez, aurkariak antzeman eta seinalatzen dira (prozesu globalizatzaile neoliberalak zuzentzen duten agenteak eta erabakitzeko guneak: transnazionalak, Nazioarteko Diru Funtza (NDF), Munduko Bankua (MB), Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA), Hogeiko Lantaldea (G-20)³⁶, agindu neoliberalen zerbitzuan dagoen finantza-sistema eta sistema judiziala); bere agendaren bidez, argitara ematen da nekazaritza-arloan dauden asimetriak menperatzeko sistema desberdinen (patriarkatuaren, kapitalismoaren, inperialismoaren, ko-

lonialitatearen, antropozentrismoaren) arteko loturaren ondorioa direla; eta, azkenik, LVC mugimenduen agenda politikoko proposamenak lagungarriak dira borrokak eta eskalak antolatzeke, eta agendari legezotasun sozial gehiago, osotasun gehiago, eta, beraz, askatzeko ahalmen gehiago emateko. Agendak antolatzeari buruzko hausnarketa horren ildoan, EMMko ekintzaile batek hauxe adierazi zuen:

“Guk ekarpena egiten dugu subjektu politiko emakumezkoa eta feminista izateko, baina era berean egiten diogu ekarpena subjektu politiko eraldatzaileari edo anitzari, hor biltzen baikara besteekin. Izan ere, gure ustez, guk ezin dugu proiektu politiko askatzailea gure kabuz aurrera atera, eta, gainera, ez da gure proiektua. Orduan, hori jakinda, oinarritzkoa da besteekiko artikulazioa lortzea” (EMM-Guatemala).

Izan ere, beste mugimendu batzuekin agendak eratzean, emantzipazioko subjektuen aniztasuna antolatzen da, eta, itun horiek sare zabalagoetan antolatzean, legezotasun handiagoa lortzen dute jendartean, eta, aldi berean, herriak, hizkuntzak eta kulturak hurbildu, eta erdigune eta periferien arteko hesiak hausten dituzte.

“Emakume nekazarien praktikak agroekologikoak ziren, baina haiek ez zuten agroekologiaren kontzeptua buruan. Agroekologiaren gaira hurbildu ginen, Ekonomia eta Feminismoaren Sarea (REF) eta Martxa izan ondoren [...] Esate baterako, hemen, Brasilen, eztabaida bizia dago autoziurtapen agroekologikoaren inguruan, eta landa-inguru-neetako emakumeek eta gizonek berek adierazten dute produktu hau agroekologikoa dela, hori ez du kanpoko ikuskaritza batek erabakitzen. Orduan, Xique-xique sareak³⁷ eztabaida hori egin zuen, eta, ekoizpen bat agroekologikoa zen zehazteko parametroak finkatzerakoan, zera erabaki zuten: familia-unitate batean etxeko indarkeria badago,

³⁶ G-20 taldea 1999 urtean finkatu zen formalki. Talde horretan, kide diren 19 herrialdeetako estatuburuak, banku zentraletako gobernariak eta finantza-ministroak eta Europar Batasuna biltzen dira. Industrializatuen dauden herrialdeetatik zazpik –Alemaniak, Kanadak, Estatu Batuek, Frantziak, Italiak, Japoniak eta Erresuma Batuak (G-7), Errusiak (G-8), eta oraintsu industrializatu diren eta azaltzen ari diren ekonomien artean dauden hamaika herrialdek –Saudi Arabiak, Argentinak, Australiak, Brasilek, Txinak, Hego Koreak, Indiak, Indonesiak, Mexikok, Hegoafrikak, Turkiak– eta Europar Batasunak eratzen dute taldea.

³⁷ Xique-xique merkataritza solidarioko sareari buruzko informazio gehiago izateko, ikusi lotura hau: <http://redexiquexique.blogspot.com.br/>

unitate hori ez da agroekologikoa; eta unitate barruko botere-harremanen bidez merkaturatzen duen bakarra gizona baldin bada, orduan, unitate hori ere ez da agroekologikoa. Emakumei lotutako gaiak gaineratzen hasi ginen, dena osotasun gisa eztabaida zedin...” (EMM-Brasil).

LVC eta EMM mugimenduekin lan eginez, ohartu gara nazioarteko bi artikulazio horiek subjektu kolektiboak direla, eta beren ibilbidean barrena ondo frogatu eta garatu dutela azterketa kritikoak eta proposamen gero eta osoagoak prestatzeko eta ekoizteko duten gaitasuna. Era horretan, mundu osoko nekazarien (LVC mugimenduak) eta emakumeen (EMM mugimenduak) egungo bizitza-baldintzak zehazten dituzte, eta baldintza horietan eragina duten eskala eta zapalkuntza sistemiko ugari hartu dituzte barne. Bi mugimenduek ildo hori garatu dute sortu zirenetik, eta haien indar eta ahalmen bereizgarrietako bat da, mundu osoko nekazarien eta emakumeen mugimenduak antolatzeari begira.

“Martxarekin hasi ginenean, ahaleginak egin genituen MST mugimenduko emakumeak etor zitezten, baina desadostasun batzuk izan ziren tartean –diskordantziak baino txikiagoak– eta ez ziren etorri. Hala ere, urteen poderioz –eta horretan eragin handia izan zuen Jendarte Mugimenduen Koordinakundearekin genuen harremana, bertan batera parte hartzen baikenuen MST mugimendurekin–, elkarrekiko harremanak estutzeari ekin genion. Gero, bestetik, Foroko prozesua ere oso lagungarria izan zen, hor loturak eratu genituen La Vía Campesina mugimendurekin, jarduerak egin genituen batera, eta, horrela, kontuak aldatzen hasi ziren. Batetik, haiekin harreman gehiago izan genuelako, eta, bestetik, gu puntu horri (agroekologiari) arreta gehiago egiten hasi ginelako” (EMM-Brasil).

Hala ere, ezinbestez aipatu behar dugu gaitasun hori garatzeko, indar eta ahalmen handiak behar izateaz gain, erronka izugarriak daudela, sekula amaitzen ez direnak, hein batean LVC eta EMM nazioarteko artikulazioek duten logika eta dinamikatik. Adibidez, prozesuak eraikitzeke ikuspegitik guneak eta egiturak antolatu ahal izateko, onartu behar dugu beti egongo direla erronka batzuk, eta, beraz, etengabe ibili beharko ditugula buruan erronka horiek gainditzeko estrategiak

eta bideak. Ildo horretan, hauek dira zehaztu diren erronka iraunkorrak eta orokorrak: artikulazioak eta itunak egitea hainbat sektoreekin, haien autonomia errespetatuta; baterako arazoak zehaztea gero eta subjektu desberdin gehiago barne hartzeko; agendan arazo gehiago sartzea, bera barreiatu edo zatikatu gabe; gaitasuna izatea subjektu askotarikoei eta eskala desberdinei dagozkien praktikak sistematizatzeko eta teorizatzeke, etab.

Hortaz, ahalegina egin beharko dugu borroka ez zaitzeko eta diskurtsoetan ez hierarkizatzeke, eta norberarenak ez diren beste borroka batzuen ekarpenak txertatzeko eta antolatzeke (hala ikuspegi historikotik, nola egitura eta testuinguru aldetik).

“Agroekologiaren eztabaidan geunden emakume batzuek Martxan eta REF (Red de Economía y Feminismo) sarean parte hartu genuen lehenago, eta, beraz, harreman estuagenuen feminismoarekin. Hasi ginen ohartzen Martxa ezartzen ari zen eredia eta mugimendu agroekologikoaren jarraibideak oso hurbil zeudela [...] Mugimendu agroekologikoak bere burua artikulazio baten bidez antolatzea erabaki zuenean, konturatu ginen Martxak artikulazio horretan egon behar zuela, emakumeen mugimendua zen aldetik, eta, hortaz, hurbiltzen hasi ginen [...] ANAK (Articulación Nacional de Agroecología) eta Martxak aurre egiten diote agronegozioaren kontuari, ANAK eta Martxak jarrera bera dute transnazionalen inguruan [...] Nire ustez, prozesu honetan dagoen berrikuntzarik handiena da mugimendu feminista eraginkortasunez parte hartzen ari dela Brasilgo mugimendu agroekologikoan, eta lehen bi kontu horiek berezita zeudela” (EMM-Brasil).

Jendarte-mugimenduen izaera eraikitzailea sustatzen duen beste alderdi garrantzitsu bat, beraz, hauxe da: borroka eta mugimendu desberdinen arteko ulermenarekin sakontzeko aukera ematen duten guneetan lan egitea, eta, horrela, komunikazioa eta elkar ezaguera handitzen duen eta mugimendu eta borroka desberdinen nortasunak irekiko dituen elkarriketa sortzea. Boaventura de Sousaen hitzetan, “jendarte-mugimenduen elkar ezagutza handitu behar da, eta elkarrekin antolatzeke dituzten aukerak ugaldtu [...] horrela, mugimenduak bereizten eta batzen dituzten alderdiak ageri-agerian egongo dira, eta

gehiago hartuko dira aintzat egin beharreko itunetan eta artikulazioetan” (Aguiló, 2010:144).

“Feminismoaren esparrukoak ez diren pertsonen elkarrizketak izaten ditugunean, Martxa zer den azaltzen dugunean, jendeak zera esaten du: mugimendu hau ez da emakumeen mugimendu bat, mugimendu politikoa da. Guk argi esan dugu ez dugula mugimendu sektoriala izan nahi, osotasun baten gisa jokatzeko duen mugimendua izan nahi dugu. Horrek zerikusi zuzena du nortasunaren arazoarekin eta jendarte-mugimenduaren esanahiaren funtsarekin [...] politika globala hausnartzen ari den mugimendu feminista bat gara. Emakumeen eskubideak barne hartzeaz gain, prozesua era orokorrean aztertu behar dugu. Beste mugimendu batzuek horrexegatik deitzen digute” (EMM-Brasil).

LVC-Honduras mugimenduarekin batera egindako lanaren bidez, Elikadura Burujabetza eta Nekazaritza Erreformarako Ituna ezagutu genuen (SARA Ituna)³⁸. LVC-Honduras mugimendua itun horretan parte hartzen ari da beste erakunde eta ekimen batzuekin batera. Mugimendu horretako kideetako batek itun horren sendotasun eta muga batzuk aipatu zituen:

“LVC mugimenduan SARA ituna egiteko ideia sortu zen. Bertan 16 erakunde inguru daude. La Vía horietako bat da [...] Orduan, gailu bat aurkitu behar da hori guztia antolatzeko, erakunde bakoitzak bere lan-arloa baitu, baina denak elkarri lotuta, ekimen berri bat atera bailiteke, jendea kostu baxuagoko produktuak, oso kalitate onekoak, diru gutxiagoren truke eskuratzeko. Garai hartan, oso proiektu handinahia zen. Ez da erraza antolatzea hain interes desberdinak dituzten erakundeekin. Kontua da ahalegin horiek guztiak koordinatu ahal izatea” (LVC-Honduras).

La Vía Campesina mugimendua Maputon izan zen Nazioarteko V. Biltzarrean (2008), erronka horietako batzuk zehaztu zituzten: “Mugimendu gisa, denbora gehiago hartu behar dugu eta ahalegin handiagoa egin behar dugu beste sektore batzuetako mugimenduen estrategiak eta helburuak ulertzeko, eta zehatz ikusteko nola joka genezakeen gure borrokan barruan elkarri indartzeko. Nazioarteko testuinguru politikoa aztertzeko dugun gaitasuna handitu behar dugu, eta aldaketa onuragarriko aukerak zehazteko ahalmena ere bai” (LVC, 2009:60).

b.4) Prestakuntza politikoko prozesuak

Atal honetan badago mugimenduen irismen askatzailerako bultzatzeko lagungarria den beste alderdi bat: norberaren jakintza sistematizatzea eta horren arabera prestakuntza politikoa. Izan ere, gorago esan dugunez, talde eta sare horien lan-dinamika ikasketa askatzailerako prozesu gisa har daiteke, hala maila pertsonalean nola kolektiboan, botere-harreman asimetricoak eraldatu eta partekatutako aginteko harremanak lortu nahi dituzten subjektibotasun eta praktika inkonformistak eraikitzen dituen ikasketa modura. Jendarte-mugimendu batzuek gidatutako hezkuntzako eta prestakuntzako prozesuak, ildo horretan, funtsezkoak dira subjektu kolektibo protagonista eraikitzeke aukera ematen duten baldintza subjektiboak sustatzeko prozesuan. Batez ere, forma eta dinamika doktrinatzaileratik urrunduz, prozesu askatzailerak behar duten autokonfiantza eta jabetzako dinamikarekin bat datozen metodologia eta alternatiba pedagogikoak sortzen dituztenean.

“Gure prestakuntzak lotura zuzena du emakumeen ekintza eta bizitza zehatzarekin. Prestakuntza dugunean, prestakuntza hori emakumeen bizitzan dagoen eta ekintzarekin deskonektatu gabe dagoen zera horren menpe dago” (EMM-Brasil).

³⁸ Itun hau Nyeleni prozesuaren barruan dago sartuta. “La Vía Campesina sinetsirik dago itunak sortzea ezinbestekoa dela jendartearen aldaketa garrantzitsuak lortu ahal izateko. Elikadura Burujabetzari buruzko Nazioarteko Foroan, Nyeleni 2007, funtsezkoak diren jendarte-mugimendu batzuk bildu ziren, eta ekintza-programa eta baterako estrategia adostu zuten, elikadura-burujabetzarantz aurrera egiteko [...] Nyeleni prozesuaren bidez, prozesu politikoa eta mugimenduen baterako agenda sendotu ditugu, elikadura-burujabetzaren inguruan. Dirudienez, elikadura-burujabetza lagungarria izan daiteke indarrak metatu ahal izateko nekazaritzako ekoizpen eta kontsumoaren inguruko agenda positiboaren inguruan (LVC, 2009:70 eta 118).

Hortaz, prozesu horietan, ikaskuntza eta prestakuntza ez dira ideologia eta kontzientzia historiko edo politikoaren esparrura mugatzen (joera hotzera, Boaventura de Sousaen hitzetan). Horren ordez, era zabalagoan hartzen dituzte eguneroko beharren eta bizipenen esparrua, subjektibotasuna –indibiduala eta kolektiboa–, eta kognitiboak ez diren alderdiak, adibidez, borondatea, konplizitatea, zaintzak, balioak, konpromisoa, emoziozko engaiamendua eta kolektibo askatzaile bateko kide izateko sentimendua (joera beroa, Boaventura de Sousaen hitzetan; borrokaren mistika, Brasilgo MST mugimenduaren arabera). Ildo beretik, Alfonso Torresek gogorarazten digunez, “Freirek behin eta berriz erakusten du jarrera kritikoa bat hartzea ez dela adimen aldeko kontu hutsa” (Torres, 2010:36).

“Batuetan beste alde batuetatik jasotzen duzu jakintza, eta hori lagungarria izaten da zure buruari galde egiteko; batez ere dialektikoa da. Beste jakintza batzuk esperientzia eta eguneroko praktikaren bidez jasotzen dira, eguneroko bizitzak ikuspegi hori ematen baitigu, nola bizi, eta jakintzak ere eguneroko praktika baitu. Batuetan zera gertatzen da, hainbat aldiz esan dugunez: “nik hori egiten nuen, baina ez nekien nola deitu, ez nekien nola deitzen zen, ezta nondik zetorren ere” (EMM-Guatemala).

Bestetik, gure ustez, jakintza, hezkuntza eta prestakuntza politikoa sistematizatzeko prozesuek, funtzionamenduko logika patriarkalez, kolonialez edo kapitalistez eta gutxiagotzeko dituzten molde ugarietz hausnarketa kritikoa egiteaz gain, etorkizun askatzaileantze aurrera egin nahi duten (iraganeko eta oraingo) beste eredu eta praktika batzuez ere hausnartzen duten horiek, indar askatzaile gehiago izango dute. Jakina, betiere, oraingo erronkei aurre egiteko borroka-esperientziak jakintza – eta ikaskuntza-iturri gisa berreskuratzen badira, eta ez aurrez finkatutako dogmatismoak edo eskemak modu orokortzailean berregiteko.

“Guk (Sector Mujeres itun politikokoek) gure tresna politiko-pedagogikoak eraiki ditugu. Ikus-

pegi bat, proposamen politiko-pedagogiko bat, prestakuntzako prozesuak eta egiturazko azterketarako tresnak ditugu” (EMM-Guatemala).

2013ko ekainean Jakartan (Indonesian) izan den LVC mugimenduaren Nazioarteko VI. Biltzarrean, LVC mugimenduak haxe berretsi du: “prestakuntza, hezkuntza eta komunikazioa dira gure tresna nagusiak. Prestakuntza kultural, politiko, ideologiko eta teknikoko eduki eta metodologiaren bidez orain arte metatutako jakintzen trukea sustatzen ari gara; gure eskolak eta gure oinarrien hezkuntzako esperientziak ugaltzen ari gara”. Nazioarteko LVC mugimenduak, sortu zenetik, lehentasunezkoztat jo du prestakuntza, eta funtsezko tresnatzat ere bai, kontzientzia kritikoa sortzeko prozesuan eta nekazarien mugimendua erakitzeke, egituratzeko eta sendotzeko prozesuan. “Documentos Políticos de La Vía Campesina” liburuko kapitulu batean, La Vía Campesina mugimenduaren prestakuntzaren auziari heltzen zaio³⁹. Dokumentu horretan, LVC mugimenduak erronka batzuk zehazten ditu erakundearen maila guztietan aurka jotzeko, prestakuntzako eta lidergoak indartzeko prozesuei dagokienez:

“Ahalegin berezia egin behar da gazteak prestatzeko: prestakuntzako prozesuak aukera eman behar du belaunaldi berriek txanda har dezaten. Prestakuntza eman behar diegu talde eta gazte berriei [...] Emakumeen egoera: desberdintasun handia dago emakumeen eta gizonen artean. Emakumeek hainbat zeregin egin behar dituzte eta zailtasunak dituzte parte hartzeko, batez ere emakume gazteek. Prestakuntzako metodoek ondo kontuan hartu behar dute hori. Informazioa helarazi behar diegu emakumei, laguntza eman behar diegu erakundeetan txerta daitezela” (LVC, 2009:192).

LVC-Honduras mugimenduarekin batera lan egiten ikusi genuenez, erronkek hortxe diraute, eta taldeak prestatzea da erronka horietako bat, baita erakundeak sendotzeko estrategia ere. Prestakuntza gazteei eta emakumei zuzenduta dago bereziki, tresna egokia izan baitaiteke beste erronka batzuei aurre egiteko:

³⁹ Dokumentu honetan, 2007ko ekainean izandako mintegian egin ziren eztabaidak daude sistematizatuta. Mintegia “prestakuntzako metodologiari” buruzkoa izan zen, eta Lurrik Gabeko Langileen Mugimenduaren (MSTren) proposamen bat hartu zuen abiaburuztat. “Prestakuntzak lehentasuna izan behar du gure erakundeetan, eta dokumentu hau lagungarria izango da gure prestakuntzako prozesuen zereginari eta edukiari buruzko eztabaida dinamikoak pizteko” (LVC, 2009:190).

“Taldeak prestatzeko erronka estrategia bat izan daiteke, horrela gazte eta emakume diren kideak landa-gunean geldiaraziko baititugu; prestakuntzarik jasotzen ez badute, berriz, ez baitute beste irtenbiderik: kanporatzea. Hala ere, prestakuntza jasotzen badute, tartean sartu eta erakundeetan antolatuko dira,; horrela, ahaldunduko dira eta, joan ordez, beren ikuspegia aldatuko dute [...] Erronka eta estrategia hori oso garrantzitsua da guretzat; gazteak eta emakumeak. Zergatik ez dugu gizonik aipatzen? Bada, haietako gehienak beren lurrean kokatuta daudelako, eta gazteak eta emakumeak, berriz, ez” (LVC-Honduras).

Eztabaida honetan, bi erronka-mota gurutzatzen dira: alde batetik, Hondurasko nekazarien erakundeen borroka dugu, landa-gunetan hezkuntzarako eskubidea bermatzekoa. Bestetik, galdera honek behar duen erantzuna dugu: zein hezkuntza-mota? Nekazarien mugimenduek politiko eta teknikoki gazteei prestakuntza emateko duten beharrei erantzun estrategikoa emango dien hezkuntza-mota izan daiteke erronka. Hortaz, kontu horiei ematen diegun erantzunaren arabera, oso estrategia desberdinak zehaztuko dira konponbidea emateko.

“Erakundeetan prestakuntza-lana egin da, eta ora-in hauxe falta da, hauxe da ahuldadea: hemen nago nire jakintzari erantzuteko esateko borondaterik ez dagoela. Prestakuntza jaso duen gutako bakoitzak borondatezko zati hori izan beharko luke eta beste adiskide batzuei irakatsiko diet esan beharko luke. Efektu hori biderkatu beharko genuke, oinarriek duten informazio gabeziari aurre egiteko. Nola helarazi informazioa? Nola jokatu prestakuntza jaso duten taldeen praktika eskuratzeko eta egiteko? Estatuko nahiz nazioarteko La Vía Campesina mugimenduak eskolak baititu, adibidez, horra hor Escuela Francisco Morazán, Brasilgoa, Panamako... gune horiek hortxe egotea sendotasunaren adierazgarria da. Prestakuntzako eskola

baten alde egin behar dugu hemen, gure herrian. Gazteen, emakumeen eta helduen ikuspegitik ere, gure erakundeak sendotzeko” (LVC-Honduras).

Hondurasko tailerlean egindako hausnarketa batzuek zuzen aipatzen zuten LVC-Honduras mugimenduak gune bereziak eduki behar dituela estatu osoan kideei prestakuntza emateko prestakuntza politikoko eskolak⁴⁰. Proposamen hori egin zen, argi ikusi zelako hezkuntza formaleko instantziek (eskolek, unibertsitateek, etab.) ez dutela nekazarien erakundeek dituzten prestakuntzako interesak betetzen, eta, beraz, erronkatzat jo zelako hezkuntza formaleko guneek nekazarien interesak ere bete zitzaizkizaten eskatzea.

“Gure herrialdean ez dago prestakuntzako ikastetxe edo eskolarik benetako (nekazaritzako) erreforma egin ahal izateko, ez dago giza harremani buruzko laguntza ematen duen eskolarik. Batzuk erakunde gisa eratu gara, eta hori izan da eskola. Baina eskoletan eta unibertsitateetan ez zaie arretarik egiten giza harremani” (LVC-Honduras).

Horiek horrela, hauxe da prozesu horietan nabarmendu beharreko beste alderdi bat: gobernuaren hezkuntza-sistemak merkaturatzeko eta teknifikatzeko joeren aurrez aurre (ustez neutroa eta aseptikoa), jendarte-mugimenduen hezkuntza eta prestakuntzako proposamen batzuek bat egiten dutela hezkuntza-sistema formalekin, arlo teknikoa, etiko-politikoa eta hezkuntzako egituratu nahian. Alde batetik, horrek jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen du, agerian uzten baitu prestakuntza eta hezkuntza ofiziala ez direla aseptikoak, eta, beraz, ez dutela baliokideak prestatzeko. Horren ondorioz, beren kideen prestakuntzaz arduratzen dira, errealitateari buruzko diagnostikoak egin, eta beren borrokei begira erabilgarriak izango diren proposamenak abiarazi ahal izateko.

“Pertsona batzuek Martxa ikertzeko interesa erakusten dute, eta guretzat kontraesana da hori. Izan ere, zera uste dugu: “zein ondo, batzuk Martxa

⁴⁰ “La Formación en La Vía Campesina” testuan, hauxe proposatzen da (LVC, 2009): “La Vía Campesina eratzen duen mugimendu bakoitzak bere prestakuntza-eskola sortu behar du. Kontua ez da egitura fisikoa eraikitzea; kontua da kideak eta taldeak prestatzeko politika bat garatzea. Prestakuntzako guneak eduki behar dira, plangintza batekin, eta zereginak eta erantzukizunak banatuta, mugimendu guztiak tartean sar daitezten. Prestakuntza erakundearen eta borroken zati bat da, eta, horregatik, zeregin politiko gisa onartu behar du erakunde osoak. Prestakuntza-eskolak hauxe izan behar du: ideia politikoen multzoa; erakundea sortzen, lotzen eta indartzen duten printzipioak; erakundearen eraikitzaileak diren aldetik, kideen eta zuzendarien praxi politikoa zuzentzen duten oinarriak” (LVC, 2009:192).

ikertzen ari dira, hori lagungarri izango zaigu!"; hala ere, irakurtzen dugunean, ez dugu ezer ulertzen. Orduan, pertsona horiei elkarrizketen materiala eta azterketak emateko eskatzen diegu, geuk ere aztertu ahal izateko. Eta uste dugu pertsona horiek ez dutela ezer ulertzen, eta gure denbora alferrik galtzera etortzen direla; eta horrek nolabaiteko tirabira sortzen du. Nire ustez, lan handiagoa egin behar dugu, geure historia idatzi, hortaz hausnartu, eta hori guztia egiteko denbora izan behar dugu" (EMM-Brasil).

Hortaz, mugimenduek, borrokatzeko eta antolatze-ko prozesuetan, argi ikusi dute hezkuntza-sistema ofizialean prestatutako profesionalak teknikariak edo ikertzaileak direla, eta haien prestakuntza paradigma eta metodologia batzuen menpe egon dela gehienbat. Hain zuzen, arautzaileak eta normatibizatzaileak diren paradigma eta metodologiaren menpe egon da, haien-tzat eta harien curriculum eta ibilbide profesional edo akademikoari begira lan egiteko logika manipulatzai-lean eta meritokratikoan sartuta, dagoena berregitera zuzenduta dauden paradigma eta metodologiaren menpe. Gainera, gero eta eskakizun zorrotzagoak bete behar dira, arlo akademikoan oinarritutakoak (eragina duten argitalpenak, biltzar akademikoak, etab.). Hala ere, mugimenduek, prestakuntza teknikoaz gain, beste ikuspegi, jarrera eta metodologia batzuetan pres-takuntza etikoa eta politikoa duten pertsonak behar dituzte –parte hartzean oinarritutako jakintza aska-tzaileak dituztenak–, era horretan, haustura egin, eta alternatibak sortu ahal izateko, adituen jakintzaren esku utzi gabe, hori, maiz, botere-arloko asimetriak sortzeko erabiltzen baita.

"Martxako feminismoaren prestakuntza jaso duen belaunaldi bat dugu, gaur egun akademian gra-duatu ondoko ikasketak egiten ari dena. Akade-miarekin dugun epe erdiko eta luzeko proiektua da hori, eta baliagarria izan daiteke akademiarekin dugun ahuldadea betetzeko. Generoko ikasketetan ikuspegi liberala edo postmodernoa nagusi-tzen da. Gaur egun, prestakuntza feminista eta antikapitalista jaso duen jende asko prestakun-tzako jakintza-arlo horretan ari da ekoizten. Hori aukera bat da, eta gogoan erabili behar dugu" (EMM-Brasil).

Jakintza adituaren eta boterearen artean dagoen ha-rreman estua kontuan izanik, jendarte-mugimenduek egindako esperientzia batzuetan aurkitzen dugun alde teknikoaren, etiko-politikoaren eta hezkuntza for-malaren arteko antolamendu hirukoitz horren bidez, mugimenduei dagozkien metodologia pedagogiko he-rrikoiak harremanetan jartzen ari dira unibertsitate-kin eta prestakuntzako maila ertainekin. Zalantzarik gabe, hori ona da, baina, praktikan, hainbat tirabirari eta zailtasuni egin behar zaie aurre, finkatutakoaren eta finkatzailearen arteko harremana eta lankidetz-a dela-eta.

"Guk harreman dramatikoak dugu unibertsita-tearekin. Oso harreman hurbila genuen, uni-bertsitateko bazkide asko guk jarduten genuen zentrokoak zirelako. Halako batean, instituzio herrikoiago baten gisa jokatzeko hasi ginen, joera klasista izanik, emakumeen beharrezan gogoan erabiliz, guk emakumei ezarritako agendatik abiatu beharrean. Hori gertatu zenean, gu eta akademikoak erabat banandu ginen elkarrengan-dik. Barregarria izan zen, haiek esaten zutelako gu ez ginela feministak, hura ez zela feminis-moaren ardura, feminismoak ez zuela zerikusirik elikadura-burujabetzarekin [...] Gero bekadunak hasi ziren gugana etortzen, elkarrizketak egitera. Elkarrizketak egiten genituen, eta monografiak irakurtzen genituenean poliziakoak ematen zuten. Hemendik aurrera feminismoa zen, eta hemendik horra, berriz, ez. Batzarrean erabaki genuen ez gi-nela berriro unibertsitateko gune feminista horren aztergai izango. Gaur egun, harremanak izan be-har ditugu ezinbestez, harremana berregituratzen ari gara unibertsitateko beste sektore batzuekin. Hala ere, esperientzia hura guztiz traumatikoa izan zen" (EMM-Brasil).

Zailtasunak gorabehera (elkarrizketa eta jakintza guztien onarpena, kodeen, erritmoen eta ikuspegi-aren arteko desberdintasuna...), prozesuetan elkarrekiko lankidetz-a eta horizontaltasuna badago, gure ustez onuragarria da jendarte-mugimenduek egindako pres-takuntza/hezkuntzako praktika horiek hezkuntzako instituzioen esparruarekin harremanetan jartzea edota bertan sartzea, era horretan, gune ofizialean nagusi diren hezkuntza/prestakuntzako ikuspegiak ez diren ikuspegi alternatiboak izateko. Hortaz, gure iritziz, hezkuntzako instituzioekin mota horretako harrema-

nak, elkarriketa, laguntzak eta elkarrekiko lankidetzak izatea guztiz onuragarria da, mugimenduen izaera askatzailea areago indartzeko.

“Guk oso itun sendoa dugu egina unibertsitateko ikasle gazteekin, eta hezitzaile eta masterrak, doktoregoak eta ikerkuntza akademikoa prestatzen aritzen diren irakasle batzuekin ere bai [...] orduan, hori ere garrantzizkoa da, unibertsitatea eta lan hori eraikitzeke ditugun beste gune batzuk. Horrek alde guztietan du eragina, bai batean bai bestean” (EMM-Brasil).

c) Estrategiei eta erakundeekin zein beste eragile politikoekin dituzten harremanei dagokienez

Hasteko, arlo honetan jendarte-mugimenduek duten ***izaera askatzailea indartzen duten*** joerak jarriko ditugu, hain zuzen, tailerretan zehaztutako horiek:

- Gatazka eta konfrontazioko estrategia erabiltzen dute, zehaztutako aurkarien eta menpekotasuneko harremanen aurrean.
- Mobilizatzeko eta baliabideak bideratzeko-abiartzeko gaitasuna dute.
- Erresistentzia handia eta baliabideak abiarazteko gaitasuna dituzte zapalkuntza politikoari aurre egiteko.
- Nolabaiteko presioa eta kontrola egin ditzakete sistema politikoaren eta bere instituzioen aurrean. Beste politikoarekiko ekintza eta harremanak izateko beharra dagoela uste dute, testuinguru eta egoeraren arabera.
- Autonomiako harremanak dituzte –ez menpekotasuneko edo bakartzeko harremanik– beste erakunde, alderdi politiko, sindikatu eta gobernu kanpoko erakunde batzuekin.
- Bere estrategian guztiz funtsezkoa da nazioarteko sareak antolatzea, erdigune eta periferien artean dauden hesiak hautsi, eta hizkuntzak, herrialdeak eta kulturak hurbiltzeko. Aldi berean, beste mugimendu batzuekin batera agendak eraikitzea onuragarria da emantzipazioko subjektuen aniztasuna antolatzeko.

Bestetik, joera batzuk jendarte-mugimenduek duten ***izaera askatzailea mugatu dezakete***, garatzen duten estrategiei dagokienez:

- Batzuetan nola-halako joera sumatzen da hausnartu gabeko aktibismora jotzeko, ikuspegi estrategikoa falta zaie, eta, horrez gain, ekintza politikoa pixka bat barreiatuta dago.
- Hasieran arbuioa sumatzen da, instituzionalizatutako sistema polotikoan sartzearen aurkako jarrera. Bestetik, nolabaiteko joera dago garbizalekeriarako, eta, horren ondorioz, zailtasunak izaten dira artikulazio eta itun zabalagoak eratzeko. Batzuetan, badirudi estrategiak bakartzeko joera duela, ez dutela beste erakunde, alderdi politiko edo sindikatu batzuekin “kutsatu” nahi.
- Gerta liteke arlo ideologikoan (diskurtsoan) adostasun sendoa izatea, baina praktikan jartzerakoan huts egitea. Ekimen berritzaileak praktikan jartzea onuragarritzat hartzen da, baina, praktika horrek dituen alde onak eta txarrak sistematizatzen ez bada, kiribil moduko zera bat izan daiteke.
- Nola-halako geldiera, zurruntasuna, erreflexu-gabezia eta porositatea sumatzen da, azaltzen ari diren borroka berriekin eta “bat-bateko” edo “ustekabeko” mobilizazioko prozesuekin bat egiteko. Prozesu horietako protagonistak aurrez mobilizatzen edo antolatzen ez ziren pertsonak dira gehienbat, hau da, hain “ideologizatuta” ez dauden lagunak, eskema ideologiko eta nortasun politiko lausoagoak dituztenak. Hizkuntza, kode eta modu desberdinak dituzte antolatzeko, eta, batzuetan, horren ondorioz, elkarrekiko susmoak eta estereotipoak ager daitezke, baita komunikatzeko eta ulertzeko zailtasunak ere.
- Testuinguru batzuetan, batez ere iparraldeko jendarte-mugimenduei dagokienez, nolabaiteko ahuldadea sumatzen da, kuantitatiboki eta mobilizatzeko duten gaitasun aldetik (kaleko ekintza politikoak geldiarazita daude, sormen gutxikoak dira, etab.). Horrek lotura zuzena du eragiteko gaitasunarekin eta borrokatzeko estrategiak zehaztearekin.
- Autofinantzatzeko zailtasunak nolabait baldintzatu ditzake lehentasunezkoztat jo diren estrategiak, eta zuzeneko eragina izan dezake haietan.
- Zapalkuntza politikoa eta kontrol soziala oso indartsuak badira, gerta liteke mugimenduak ahulduta eta zatikatuta geratzea.

Aurreko ataletan bezala, jarraian, zehatzago aztertuko ditugu sumatu ditugun joera horietako batzuk. Horrela, areago sakonduko dugu mugimenduen irismen askatzailea indartzen duten alderdietan, instituzioekiko eta beste agente politiko batzuekiko harremani dagokienez.

c.1) Mugimendua vs. Instituzioa: finkatutakoa eta finkatzailea

Lehenik eta behin, beste agente politiko batzuekin estrategiak eta harremanak izateari dagokionez, instituzionalitatearekin, sistema politikoarekin eta beste erakunde eta errealitate –alderdi politiko, sindikatu, gobernu kanpoko erakunde, etab.– batzuekin autonomiazko harremanak izateko erronka dugu aurrean –ez menpekotasuneko, ez bakartzeko harremanik–.

Jakina denez, tentsio osatzailea dago, alde batetik, oldarka sartzen diren indar eta praktika politikoak diren jendarte-mugimenduak baitaude, ezarrita dagoena mugitu, eta beren mugetatik harantz eraman nahi dutenak, eta, beraz, zentzu hauslea dutenak –mugimendu sortzen duten indarrak baitira, ohikoak ez diren errepertorio propositiboak eta ekintzak dituzten– eta, bestetik, joera arautzaileko eskakizun juridiko, prozedurazko eta administratiboetan sartuta dauden indar eta praktika politikoak daude, finkatutako instituzionalitatearen barruan.

Gorago adierazi dugunez, jendarte-mugimenduak nagusi diren instituzioen gainean “behetik” hasitako gainezkatze demokratikotzat har daitezke (hainbat baldintza sozial direla-eta gutxiagotutako sektore herrikoiek abiarazia). Horrek aditzera ematen du hasiera-hasieratik jendarte-mugimenduak gatazkako tentsioan daudela estatuko ordezkari politikoekin, eta alderantziz.

Horrez gain, testu honetan aipatzen ditugun eta jendarte-mugimendu askok lortu nahi dituzten eraldaketa askatzaileak ez daude lege edo politika publikoen menpe. Izan ere, nagusi dien jendarte-harremanak eta bizitzeko ereduak ezinbestez eraldatu behar dira, eta jendarteko botere-harremanak era kritikoa berrikusi behar dira. Mugimendu horien ustez, arreta eta borroka bizitzaren hamaika gunetan daude, ez soilik gobernuaren boterea lortzeko liskarrean. Boterearen eta eraldaketa askatzailearen ikuspegia ez da mugatzen

arlotan politiko-instituzionalean eragina izatera –are gutxiago, botere hori eskuratzera–. Hortaz, era horretan, urrundu egiten gara ezker alderdikoiak botereaz eta jendarteko eraldaketaz duen imaginariotik.

Mugimenduek lortu nahi duten emantzipazioak goitik behera eraldatu nahi ditu gutxiagotuta eta menpe hartuta dauden pertsonen harremanen eta bizitzeko baldintzen egunerokotasuna; eta norberaren eguneroko praktiketatik abiatuta eraldatu nahi ditu, ez promestutako egiturazko aldaketa osoko etorkizuna amestuz. Hortaz, amaierarik gabeko zeregina da, eta ez dago beste egiteko batzuen menpe. Elkarbizitzako hainbat esparrutan egunero izaten diren praktikak eta harremanak ez dira garrantzi gutxiko kontua. Aitzitik, funtsezko arlo politikoa da, mundu eta bizitza hobekia lortzeko begira.

Aldi berean, jendarte-mugimenduek instituzionalizatutako sistema politikoa egituratzen duten eskemak iraul ditzakete, indar-korrelazioen eta lehia politikoaren garapenaren arabera. Izan ere, demokratizatzeko edo demokrazia biziagotzeko prozesuetan, lehia politiko bizia izaten da. Nagusi diren sektoreek beren burua zabaldu behar izaten dute, eta lehen eztaba-daezinak ziren gaiak eztabaidatzen hasi behar dute, lehen bazter utzita zeuden subjektu politikoenkin.

EMM mugimenduaren esperientziaren bidez, ondo jakin ahal izan genuen nola eta zein testuinguru desberdinetan eratu diren harremanak era askotako agenteekin. Tentsio osatzailea dago, alde batetik, EMM baitago, ezarrita dagoena sakonki astindu eta mugiarazi nahi duen indar eta praktika politiko gisa, eta, bestetik, ezarritako instituzionalitateak erabili ohi dituen indar eta praktika politiko arautzaileak baitaude (alderdi politikoak, sindikatuak eta gobernu kanpoko erakundeak). Hausnarketa batzuek indar gisa aipatzen zuten Martxak instituzionalitatearekin eta agente politikoekin ahalik eta harremanik autonomoenak izateko duen gaitasuna, kooptatzen duen menpekotasunik, bakartzerik edo norberaren bazterkeriarik izan gabe. Izan ere, kontu horiek nabarmen ahulduko lukete eragin politikoa eta agenden intersektorialitatearekin aurrera egiteko duen gaitasuna. Harreman horren mugak eta porositateak aski lausoak dira, eta oso harreman-molde desberdinak izaten dira, testuinguru eta une bakoitzean dauden indar-korrelazioen arabera.

“Gaur egun, Martxa mugimendu bakarra da, barnean hainbat alderditan jarduten diren lagun-multzo bat badu ere [...] Izan ere, Martxan denak esertzen gara gogoeta egiteko eta gauzak prestatzeko. Martxak autonomia horri eusten dio, alderdien, gobernuen eta zentralen aurrean...” (EMM-Brasil).

Hainbat adibide daude, jendarte-mugimenduak sistemaren makineriako zati bat izatera nola heldu diren erakusten duten kasuak. Hori gertatu denean, hainbat erronka hartu behar izan dituzte beren gain, era askotako erronkak, testuinguruak zehaztutakoak. Hala ere, esan genezake, normalean jendarte-mugimenduen parte-hartze politikoko guneak bereganatzen dituztela horren bidez (adibidez, politika publikoen irismenak, zentzuak eta edukiak negoziatu daitezke), baina, betiere, instituzionalitateak emandako esparruan sartuta, eta, gehienetan, esparru horrek ez ditu barne hartzen mugimenduen dituzten aldarrikapen eta eztabaidarik garrantzitsuenak. Ezbairik gabe, prozesu horiek areago zabaltzen dute esparru demokratikoa, eta azpikoz gora jartzen dituzte bertan zeuden botere – eta nagusitasun-harremanak. Hala ere, prozesu politiko horietan, nagusi diren sektoreak kontrola birdoitzten saiatzen dira, beren nagusitasunari eutsi ahal izateko. Ildo horretan, azaltzen ari diren subjektu politikoak instituzio-testuinguruetan txertatzen dituzte, horrela, subjektu horiek esparruaren oinarrian zeuden botere – eta nagusitasun-harremanak azpikoz gora jartzeko zuten indarra ahultzeko.

Desbideratze kooptatzaile horiek arriskutsuak dira politika aldetik. Era berean, aurkako hautu politikoak eginez gero, bakartzeko, ikusezin bihurtzeko edo politikan ezdeusa izateko arriskuak ditugu. Hortaz, norberarenak ez diren logika politikekin ez hasteko edo ez “kutsatzeko”, instituzionalitateari eta bere agente politikoei uko egitea oinarritzat hartzen denean, arrisku politikoak nork bere burua bakartzeko joerari eta eraldatzeko prozesu agerikoak eta iraunkorrak sortzeko edota jendartearen sektore garrantzitsu bat mobilizatzeo dauden zailtasunei egongo litzateke lotuta. Adamovskyk esaten duenez, jendartearekin lotzeko gaitasuna galduko litzateke, jendarte osotasun gisa hartuta. Horren ondorioz, gerta liteke mugimenduak beren ahultasunaren edo kontrol eta zapalkuntzaren biktima izatea, edo kapsulan sartutako talde bilakatzea, eragin politiko urriko kidego-talde ia,

baina behar adina legezketasun eta duintasun duena eraldaketa askatzaileerako bilaketei sormenez ekiteko.

Aurreko paragrafoetan zehatz azaldu ditugun alderdi batzuk lagungarriak izan daitezke jendarte-mugimenduen eta instituzionalitatearen artean dagoen harreman zaila eta tirabiratsua ulertzeko, bai eta mugimenduen instituzionalitatearekin eta haien agente politikoekin izaten duten arbuiozko jarreraz, urruntasunaz edo konfiantza ezaz jabetzeko. Ondo neurtutako urruntasuna da hori, eta aldakorra egoeren eta gatazken arabera, herri-mobilizazioaren bidez mugimenduen instituzionalitatearen aurrean duten indar-korrelazioa eta legezketasuna aldatu ahal badira.

Horregatik, gure ustez, jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen duen beste alderdi bat hau da: instituzionalitatearekin eta bera zuzen edo zeharka kudeatzen duten agente politikoekin autonomiako harremanak izateko gaitasuna, kooptatzen duten integrazioerik, bakartzerik edo politikan eragina izateko gaitasuna ahultzten duen autobazterketarik gabe.

c.2) Aurre egiteko gaitasuna eta zapalkuntza politikoari aurre egiteko baliabideak abiaraztea

Aurka aritzeko molde politiko horrek erantzukizunak adierazten ditu, aurkari galdetzen die eta gainezka egiten du (hala praktika hauslean, nola etorkizun askatzaileen proposamenean) botere-nagusitasunekiko eta finkatutako egitura politiko-juridikoekiko bateragarritasunaren mugetatik. Erantzun gisa, zapalkuntza sorrarazi ohi du, legezko nahiz legez kanpoko jazarpen, infiltrazio eta zigor itxuraren azpian. Ildo horretan, gure ustez, hau da jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen duen beste alderdi bat: abantailak eta finkatutako botere-egiturak zalantzan jartzeak sorrarazten dituen kontrol eta zapalkuntza politikoari aurre egiteko baliabideak abiarazteko eta aurre egiteko gaitasuna.

LVC-Honduras mugimenduarekin egindako lanean, aurkako aritzeko ekintza politikoaren adibide bat aurkitu dezakegu, zehazki, Hondurasko nekazarien erakunde batzuek 2009ko estatu-kolpearen ondortik izan zutena. Horri dagokionez, lan-saioretan eta tallerretan, aurre egiteko eta baliabideak abiarazteko gaitasunak eta erronkak adierazi ziren: ekonomikoak,

antolakuntzakoak, segurtasun eza, kriminalizazioa, jazarpenak, hilketak, etab.

“Une hauetan kezka handia piztu da, adierazpen-askatasuna murrizteko lege ugari onartzen ari direlako, terrorismoaren aurkako legeak, honezkeron onartuta dagoen telefonozko entzuketan legea [...] Hori guztia oso kezagarria da, hala jendarte-mugimenduentzat, nola zuzendarientzat edota biztanle guztientzat oro har [...] Lege hori mugimenduei zuzenduta dago gehienbat, desegin nahi ditu-eta...” (LVC-Honduras).

Adierazi ditugun erronka horiek zerikusi handia dute nekazarien mugimenduak berregituratzeko ahaleginarekin, mugimendu horrek aurre egiten baitio Estatu-kolpeari, eta, beraz, Hondurasko oraingo gobernuaren legezkotasuna ukatu, eta ezetza ematen baitio gobernu horrekin harremanak eratzeari. Hona hemen zein diren adierazi ditugun erronketako batzuk: herrialdeko eskualde batzuetan dagoen militarizazio handiak sortzen duen muga, eta kolpeari aurre egiten dioten mugimenduen aurka dagoen zapalkuntza; Hondurasko nekazarien erakunde batzuetan izan diren zatiketek eta hausturek eragin duten muga, kasu batzuetan, LVC-Honduras mugimenduan geratu den zatiak –hau da, kolpeari aurre egin dion zatiak– legezkotasuna eta baliabide gehienak galdu baititu (ekonomikoak, materialak, etab.), eta horrek, gainera, herrialdetik kanpo beste baliabide batzuk eskuratzeko aukera mugatzen baitu; kolpea eman duen gobernuak nekazarien mugimendua kooptatzeko egin dituen ahaleginei aurre egitea; nekazarien mugimenduaren prestakuntza etiko-politiko indartzeko beharra; eta mugimendu batzuen barnean dagoen komunikazio – eta demokratizazio-gabezia. Horrez gain, egoera arago larritzeko, kontuan izan behar da Hondurasko nekazarien mugimendua barnetik ahultzeko/zatikatzeko izan den prozesu historikoa.

“Nekazarien mugimenduan dagoen zatiketa da sumatzen dugun ahulguneetako bat. Jakina denez, estatu-kolpearen ondoren, zatiketa handia izan zen [...] sei erakunde multzokatu dira La Vía Campesina mugimenduan, eta hori, behintzat, bada zerbait. Beste ahulguneetako batzuk honako hauek dira: baliabide ekonomikoen gabezia, nekazarien mugimenduan dagoen analfabetismo politikoa, mugimenduaren demokratizazio eza eta

egiturak oinarriarekin duen komunikazio gabezia, lanak edo proposamenak entzun ahal izateko, eta oinarriak ere horretaz jabetzeko” (LVC-Honduras).

Zalantzarik gabe, erronka horiei heltzeko egin diren ahalegin guztiei esker, Estatu-kolpearen ondoan LVC-Honduras mugimenduan sartuta jarraitu duten erakundeek –edo erakundeen zatiketek– erresistentzia eta sorkuntzarako gaitasun handia lortu dute, egoera horri erantzungo dioten baliabideak abiarazteko. Egin ziren hausnarketa askoren arabera, LVC mugimenduak Hondurasko nekazarien mugimendua sendotzeko prozesuan zuen ahalmena mugatua izan da eta horrelakoa da gaur egun ere. Hala ere, zalantzarik gabe, erakunde horiek indartuta atera dira estatu mailako eta eskualde mailako artikulazio-prozesuetatik (La Vía Campesina-Honduras eta La Vía Campesina-Erdialdeko Amerika, hurrenez hurren), eta, beraz, lortu den indarra nabarmendu behar da: indarrak bildu eta lan egin da mugimenduak bateratzeko (eta ez bakarrik nekazarien mugimenduak); ahalmen gehiago lortu da baliabideak eskuratzeko (baliabide teknikoak, ekonomikoak, aholkularitza legekoa eta juridikoa, ekoizpen organikoari buruzko aholkularitza tekniko-politikoak, etab.); sinesgarritasun gehiago lortu da nazioarteko erakundeen aurrean; ahalmen gehiago lortu da itun estrategikoak bultzatzeko eta merkaturatzeko alternatibak pizteko, besteak beste.

c.3) Jendartearen erantzunaren espazialtasun berria: tokiak, eskalak eta sareak

Sarritan, mugimenduen eraikuntza eta ekintza interpretatzerakoan, tokiko-estatuko-eskualdeko-mundu mailako arloak zeharkatzen dituen logika linealetik abiatzen gara. Hala ere, Bringelek dioenez (2011), gaur egungo jendarte-mugimendu asko espazioko alderdi edo esparru horietan guztietan aritzen dira aldi berean. Hala, bada, haien ekintza-esparrua eskala artekoa da, baina ez heldutasunerako egindako urrats gisa. Eskala arteko-tasuna mugimenduen eraikuntza-prozesuetan agertzen da, eta gero eta gehiago bereizten ditu mugimendu horien erantzuteko eta mobilizatzeko estrategiak.

Azken urteetan, hainbat egilek aipatu dute kontu hori. “Ekintza kolektiboaren espazialtasun berria(k)” direla-eta sortu den eztabaida dago tartean (Bringel, 2011), eta lurralde, toki, eskala eta sare nozioekin du zerikusia. Testu honetan barrena, lehenago azaldu

dira nozio horiek, baina, gure ustez, goitik behera zeharkatzen eta bereizten dituzte jendarte-mugimendu gehienen estrategiak eta beste agente politiko batzuekin harremanetan jartzeko duten modua. Horiek horrela, testuaren alde honetan areago sakontzeko beharra sumatu dugu.

Hortaz, jendarte-mugimenduen ekintzaz eta eraikuntzaz modu berri batean eta konplexutasun gehiagoz egin behar da gogoeta. Gure ustez, auzi hori oinarrikoa da mugimenduek hainbat eskalatan garatu dituzten estrategia ugariak ulertzeko, eta, era berean, mugimenduek eskala horietako bakoitzean agente politikoeekin eratzen dituzten harreman askotarikoez jabetzeko. Hori da dagoen modu bakarra haietatik ateratzen den indar askatzailearen konplexutasuna ulertzeko.

Zalantzarik gabe, egungo jendartearen erantzunaren espazialtasuna askoz ere konplexuagoa da orain dela 30 urte baino, lurraldetasuna gainditzen baititu eta aldi berean ekiteko dauden beste eskala edo arlo batzuetan aritzen baita. Azken urteetan, teknologian eta komunikazioko tresnetan izan den aurrerapenaren ondorioz, areago zaildu da kontua, eta konplexuago bilakatu dira jendarteak erantzuteko dituen aukerak⁴¹.

EMM mugimendurekin batera lan egin genuenean, sakonago eta era konplexuago batean jakin genuen mugimendu horrek, hasieratik bertatik, nazioarteko antolakuntza eta funtzionamenduko estrategiak abiarazi zituela, maila desberdinetan (tokian, eskualdean, estatuan, eta nazioartean) egituratzen den mugimendu bati dagokion aniztasun handia eraginkortasunez elkartu ahal izateko.

“EMM mugimenduan parte hartzen duten oinarriko taldeak era askotakoak dira, eta bakoitzak bere dinamika du. Nazioarteko ekintzak eratzean, oso kontuan hartzen da sare bat ehundu behar dela, dinamika askotariko horiek lotzeko, ikuspegi feministatik abiatuta, era horretan, tokiko eta

estatuko testuinguruetan erantzuteko duten gaitasuna indartze aldera” (Nobre eta Roure, 2012:2).

Zalantzarik gabe, LVC eta EMM mugimenduak adibide onak dira, argi erakusten baitute ekintza kolektiboko espazialitate berriek praktikan zein eragin duten. Inter-eskalaritatea ezinbesteko ezaugarria da, nola sortu ziren, eta prozesuak, egiturak, praktikak eta antolakuntzako kulturak nola eraiki zituzten ulertu ahal izateko. Argitalpen honek espazio aldetik dituen mugak direla-eta, ezin dugu adibideekin azaldu gai hori alderdi guztietan nola gauzatzen den, ezta LVC eta EMM mugimenduek zein indargune eta zein erronka izango duten. Hala ere, saiaturiko gara azaltzen nola zehazten den LVC mugimenduak garatzen dituen estrategiei begira, hain zuzen, nazioarteko LVC mugimenduak mobilizatzeko dituen estrategiei begira.

LVC mugimenduari buruz oraintsu egin diren azterlan batzuk oso lagungarriak izan zaizkigu mugimendura hurbiltzeko eta ikuspegi horretatik ulertzeko. Rossetek eta Martínez-Torresek (2010) LVC mugimenduaren sorrera eta bilakaera aztertzen dute, nazioz gaindiko jendarte-mugimendu gisa hartuta. Azterketa zehatzagoak ere badaude, LVC mugimenduak nazioz gaindiko landa-giroko jendarte-mugimendu gisa mobilizatzeko dituen estrategiak aintzat hartzen dituztenak. Jun Borrassen txostenaz ari gara (2004), txosten horrek sakon aztertzen baitu nekazaritzako erreformaren aldeko mundu-mailako kanpaina. Borrasesk honelaxe dio azterlan horretan: “La Vía Campesina mugimenduak aurrean dituen erronketako bat da ekintza kolektiboak aldi berean abiaraztea globalizazio eta deszentralizazioko prozesuak izaten ari diren maila guztietan: nazioartean, eskualdean, estatuan eta tokian bertan” (Borrás, 2004:24).

Ziurrena, erronka hori hortxe egongo da denbora luzez, baina azken urteetan LVC mugimenduak parte hartuta izan diren mobilizazioko ekintza askok aurrerapen nabarmenak ekarri dituzte ildo horretan, eta aukera

⁴¹ Hala LVC nola EMM mugimenduak (eta beste mugimendu eta artikulazio askok) Internet bidez argitaratzen eta banatzen dituzte buletinak, albisteak, ekintzak eta kanpaina. Internet oinarriko tresna da mota horretako mugimenduek antolakuntza-, prestakuntza-, mobilizazio – eta komunikazio-arloan dituzten estrategiei begira. Ezbairik gabe, komunikazioaren teknologia berriak erabiltzeak aukera berriak eman ditu jendartearen erantzuna antolatzeke, baina, aldi berean, erronka izugarria da oso errealitate heterogeneoak eta kultura – eta hizkuntza-aniztasun handia biltzen duten artikulazioentzat. Ildo horretan, LVC mugimenduak 2013ko martxoaren 8an inauguratu duen La Vía Campesina TV oraintsu izandako lorpen handienetako bat izan da. <http://tv.viacampesina.org/?lang=es>

eman dute agerian jartzeko gaur egungo ekintza kolektiboaren “espazialtasun ugarien” gaitasuna eta dimentsioak; hain zuzen, hauek: kanpaina global batzuen eraginkortasuna, besteak beste, Munduko Merkataritza Antolakundearen aurkakoa (MA), Merkataritza Askeko Itunen aurkakoa, zehazki, Ameriketako Merkataritza Askeko Eremuaren aurkakoa (ALCA), mundu-mailako kanpaina iraunkorrak⁴², Nekazarien Borrokaren Nazioarteko Eguneko⁴³ –apirilaren 17ko– mobilizazioak, Nekazarien Eskubideen Gutuna eraikitze eta eragin politikoa izatea lortzeko prozesua. LVC-Honduras mugimenduari lanean aritu garenean, hainbat ekintzailek aipatu dizkigute mobilizazioko prozesu horiek eta beste batzuk, indargune handiak ekarri dizkioteko LVC mugimenduari, baina, aldi berean, erronka handia izan direlako eta ikasbideak atera dituztelako. Orain dela gutxi, nazioarteko LVC mugimenduak “Agrotoxikoen aurkako eta bizitzaren aldeko mundu-mailako kanpaina” abiarazi du. Horren bidez, gogor salatu nahi du zein harreman estua dagoen agrotoxikoen eta eredu agroindustrialak osasunean, planetaren kutsaduran eta menpekotasun ekonomikoan dituen ondorioen artean.

“Kanpaina honen bidez, La Vía Campesina mugimenduak areago sakondu nahi du transnaziionalen aurka egiten duen borroka, agroekologia proposatu nahi du, agronegozioaren aurreko hautabide gisa, eta batasuna eratu nahi du landa eta hiriguneetako erakundeen artean. Kanpaina iraunkorra izango da, eta, haren bidez, prestakun-

tza, zabalkundea, mobilizazioa eta artikulazioa landuko dira. CLOC koordinakundeko idazkari betearazlea den Diego Montónen ustez, kanpainak duen beste alderdi garrantzitsu bat da aukera ematen duela itunak eratzeko kontsumitzaileekin, ikertzaileekin, zientzialariek, artistekin eta beste jendarte-erakunde batzuekin” (LVC)⁴⁴.

Ekintza kolektiboak dituen espazialtasun berriei arreta eginez, gaur egungo jendartearen erantzunaren espazialtasuna era konplexuago batean ulertuko dugu. Hala ere, horrek ez du esan nahi borrokan lurralde-tasuna aintzat hartuko denik. Izan ere, horrek ez luke batere zentzurik izango, batez ere kontuan izanik EMM, LVC eta ALBA lurraldean txertatuta dauden mugimenduen artikulazioak direla. Horregatik, Bringelek egindako hausnarketako ariketari jarraiki, bat egingo dugu jendartearen erantzunaren espazialtasunaz era zabalean berriz hausnartzeko erronka teoriko eta politikoarekin.

“Jendartearen erantzunaren espazialtasunaren alderdi zabalago bat aipatzean, bereziki nabarmendu nahi dut zein garrantzitsua den gaur egungo espazialtasun konplexu, anitz eta teilkatuez hausnartzea, tokiaren lurralde-ikuspegia izatea ez baita aski haiek ulertzeko. [...] Gainera, ekintza kolektiboaren eta jendarte-mugimenduen “espazialtasun askotarikoak” ardatz gisa hartzean, ekarpena egin nahi dugu mendebaldeko modernitatean ohikoak diren aurkakotasun bitarrak gainditzeko, esate baterako, hauek: espazioa (orokor eta arinagoa den

⁴² LVC mugimenduak bultzatutako “Basta de Violencia contra las mujeres (Aski da, emakumeen kontrako indarkeria gehiagorik ez)” mundu-mailako kanpaina 2013ko ekainean Jakartan (Indonesian) izandako Nazioarteko VI. Biltzarren esparruan izan zen LVC mugimenduko emakumeen IV. Batzarren balioetsi eta antolatua da.

⁴³ Egun horretan ehunka ekintza antolatzen da (mobilizazioak, unibertsitateko hitzaldiak, tailerrak, lurak eta gobernuaren instituzioak okupatzeko ekintzak, etab.). 2013. urteko ekintzarako deiak honela esaten zuten: “La Vía Campesina nekazarien nazioarteko mugimenduak mobilizazioak egingo ditu aurten, nekazariei –emakumei nahiz gizonei– mende luzez landu dituzten lurren jabetza kentzeko estatu batzuek eta multinazional handiek mundu osoan barrena egin duten erasoari aurka egiten jarraitzeko. Horrez gain, aurka egingo diogu natura eta ondasun komunak merkaturatzeari, praktika horren ondorioz, lurtean modu soilean bizi ziren herriak samaldaka hutsarazten ari direlako”. Lotura honetan, 2013an egindako ekintzen mapa dago ikusgai: <http://www.viacampesina.org/map/17april/map.html>

⁴⁴ Kanpaina eraikitze prozesuaren berri izatea ere lagungarria da ekintza kolektiboaren espazialtasun berriak ulertzeko. “1997ko II. Biltzarrean, CLOC Landa-guneko Erakunde Latinoamerikako Koordinakundeak ezetz borobila eman zien pestizidei, eta haiei aurka egiteko plan bat prestatzeari ekin zion. Gero, 2010ean, V. Biltzara egin ondoren, kontinente-mailako kanpaina bat egitea erabaki zuen. Gaur egun, kanpainak antolakuntza eta salaketako esperientzia onak ditu zenbait herrialdetan, adibidez, Brasilen, Paraguaian eta Argentinan. 2013ko ekainean egindako VI. Biltzarrean, La Vía Campesina mugimenduak kanpaina hori bere gain hartzea erabaki zuen”. Kanpainari buruzko informazio gehiago jakiteko, ikusi hau: <http://viacampesina.org/es/index.php/temas-principales-mainmenu-27/biodiversidad-y-recursos-gencos-mainmenu-37/1778-la-via-campesina-lanza-la-campana-mundial-contra-los-agrotoxicos-y-por-la-vida>

zerbait) versus lekua (berezi eta finkoagoa); lurraldea versus sareak, edo tokiko versus globala, guztiz desberdinak diren eta loturarik ez duten esfera gisa hartuta. Izan ere, alderdi horiek ez dira aukera baztertzailak, eta etengabeko tentsioan aztertu behar dira, egungo aktibismo sozialaren espazialtasunen esparruan (Bringel, 2011:9).

Ezbairik gabe, jendarte-mugimenduek sortu dituzten borroken lurraldetasun berria da haien ezaugarriak behinetako bat eta haien indargunerik nagusietako bat, alde batetik, bizirik irauteari begira, eta, bestetik, beren espazio horietan antolakuntza sozial, politikoa eta kulturaleko molde berriak taldeka eraiki ahal izateko, besterik ez bada ere, “beste era bateko lurralde-antolakuntza baten aukerak, kapitalista eta harrapatzailea ez den antolakuntza baten aukerak” neurri batean marraztuta (Ceceña, 2012:126).

Azken batean, berezko espazio horiek, txikiak eta mugatuak izanagatik, aukera ematen dute herrialdeek beren burujabetzak (energetikoa, politikoa, soziala eta finantza-, elikadura-, kultura-, hezkuntza – edo osasun-arlokoa) eraikitzeke eta erabiltzeko duten eskubidea aldarrika dezaten. Kontu hori oso garrantzitsua da, eta lurraldean antolatutako egungo jendarte-mugimendu gehienen ildo estrategikoan eta proiektu politikoetan agertzen da. Lurraldetasunen dinamika, liskar ekonomikoa izateaz gain, eztabaida politikoa da gehienbat (Ceceña 2008, 2012). Izan ere, lurraldetasunak etengabe ari dira sortzen eta birdefinitzen, eta, beraz, gaur egun, sekula baino gehiago, zibilizazioaren liskarrerako espaziorik sakonena da lurraldea.

“Kapitalismoak bere lurraldetasuna eraikitzeke izan duen moduak irmo finkatzen ditu jabetzeko baldintzak eta botere-harremanak, eta ezinezko bihurtzen ditu erresistentziak, edo lurraldeetan eta lurraldeekin bizitzeko dauden bestelako moldeak. Erresistentziak ugaltu, eta metaketa kapitalistaren euskarriak diren arpilatzea eta harrapaketa gala-

raziz gero, era askotako agerpen militar aktiboak sartuko dira lurraldeetan, baliabide natural edo giza baliabide bilakatutako osagaiak eskuratzeko sarbidea bermatze aldera” (Ceceña, 2012:126).

Azken urteetan, gora egin du sistema kapitalistarentzat balio handikoak diren lurraldeetan oinarrituta dauden jendarte-mugimenduenganako zapalkuntzak eta behartutako leku-aldaketak (biodibertsitatea eta iturri energetiko aberatsak dituzten lekuak, edo maiz nazioz gairikoen enpresek bultzatzen dituzten megaproiektuen ibilbidean dauden horiek dira balio handiko lurraldeak). Joera hori ez da berria eta, gure ustez, gora egingo du datozen hamarkadetan. Oraindik orain, Rio+20 Konferentziaren⁴⁵ ondoren, instituzioek baliabideez (ondasun komunetz) jabetzeko aukera monopolizatu dute, “kapitalismo berdearen” etiketaren azpian, kapitalismoaren zibilizazio-krisialdiaren eta bere irtenbide faltsuen ondorioz. Ezbairik gabe, planetan erabilgarri dauden baliabideak kontrolatzea (lurra, ura, basoak, mineralak, biodibertsitatea, etab.) ezinbestekoa da kapitalismoa eta bere korporazioak bizirik atera daitezten. Hori erabat baldintzatzen ari da jendarte-mugimendu askok beste agente politiko batzuekin eratzen duten harreman-mota.

Hortaz, beren lurraldetasuna (hirikoa edo landa-gunekoa, behin betikoa edo noizbehinkakoa) eraikitzea edo babestea erabakitzen duten jendarte-mugimenduak dinamika edo logika bikoitzean sartzen dira, testuinguruaren arabera, batzuetan estrategikoagoa eta besteetan taktikoagoa izango den logikan. Alde batetik, beren mugimendua eta mugimendua eratzeko prozesuak eraiki behar dira; bestetik, kokapen geografikoaren eta garrantzi biostrategikoaren arabera, mugimenduak harremanak eratzen ditu beste agente politiko batzuekin, eta harreman horiek antagonikoak, negoziaziokoak edo itunekoak izango dira, tartean sartuta dauden agenteen eta testuinguruko aukeren arabera.

⁴⁵ Rio+20 Konferentzia –era ofizialean “Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentzia deitutakoa– 2012ko ekainaren 20tik 22ra izan zen Brasilgo Rio de Janeiron; hau da, 1992ko Rio de Janeiroko lehen konferentzia historikoa izan eta hogeitau urte igarota, eta 2002ko Johannesburgoko Konferentzia izan eta hamar urte igarota. Konferentzia hori huts egin duen Nazio Batuen ahalegin berria izan da, planetaren harraparitza geldiarazteko estatuak eta munduko komunitateak hartutako konpromisoarekin aurrera egiteko. Konferentzia ofizialari erantzuteko, “Jendarte eta ingurumeneko justiziaren aldeko, ondasun komunak babesteko eta bizitza merkaturatzearen aurkako Rio+20 Herrialdeen Konferentzia” izan zen Rio de Janeiron, 2012ko ekainaren 15etik 22ra bitartean (eta beste leku batzuetan hainbat ekintza egin ziren, modu deskokatuan). Gai honekin sakontzeko, ikusi hau: <http://cupuladospovos.org.br/es/>

**c.4) Eraikuntzarako eta borroka politikorako
 esparru: I) instituzionala ez den
 autoantolakuntza eta ekintza politikoa;
 II) instituzionalitatearekiko harremanak,
 nagusitasuna lortzeko liskarrean dagoen
 lurralde gisa**

Testu honetako aurreko orrialdeetan ikusi dugunez, mugimenduek praktika politiko autonomoa izaten dute, instituzioen egituratik eta sistema politikotik bereizita dagoen praktika. Politika autonomo horrek gero eta gehiago jotzen du autoantolakuntza sozialeko prozesuetan sartzerara, alternatiba askatzaileak eraikitzeko. Hala ere, aldi berean, mugimendu horiek behin eta berriz eskatzen dute instituzionalitateak (liskarrean dagoen lurralde politiko gisa) eta botere publikoek beren eskumenak erabil ditzaten, gutxiagotutako eta menpean hartutako sektoreek dituzten interesen arabera. Era horretan, funtzionamenduan eraldaketa sakona egitea proposatzen dute. Hala, beste mota bateko instituzio politikoa behar direla adierazten dute, gobernatzeko molde elitistak, burokratizatuak eta teknokratikoak gainditzeko. Hortaz, bada, parte-hartzea sustatzen duten gobernatzeko molde irekiak eraiki behar dira, alde batetik, autoantolakuntza sozialeko herri – eta komunitate-ekimenei laguntza eman diezaieten, eta, bestetik, parte hartzeko eta demokrazia zuzenean oinarritutako benetako prozesu erabakitzaileak gara daitezten arlo publikoaren kudeaketa politikoan.

I) Autoantolakuntza eta instituzionala ez den ekintza politikoa

Energia askatzaileak katalizatzen dituen oinarri gisa hartuta, autoantolakuntzak indarra ematen dio itxoiten ez egoteko eta harreman eta alternatiba askatzaileak eraikitzen jarduteko ideari. Hala, bada, kontuak aldatu ahal izateko, beste modu batean eraiki behar dira, behetik hasita. Arlo politikoa zabaldu, eta egunerokotasunean sartu behar da, autonomia eta desmerkantilizazioa eraikiz (arlo politikoa lotura du jaten dugunarekin, kontsumitzen dugunarekin, erabiltzen ditugun komunikabideekin, ikasten dugunarekin, harremanetan jartzeko dugun moduarekin, eta etxean, auzoan edota erakundeetan zaintzeko dugun moduarekin, besteak beste). Horrek berezko molde autonomoak sortzen ditu bizitza kolektiboa antolatzeko, oinarri / logika solidarioetatik abiatuta, eta sare eta komunitate kooperatiboan bidez. Zaintzaren etika, berdintasuna

eta pertsona zehatzekiko –hurbil nahi urruneko, tokiko nahiz global– erantzukizuna.

Azken batean, sareak eta espazioak eratzeko joera dago, horien bidez merkatu eta estatu liberala ordezkatu ahal izateko, jendarte-antolakuntzako arautzaile nagusiak izan ez daitezten. Hortaz, oso garrantzitsua da instituzionala ez den ekintza politikoa, oro har jendarteari beste molde batzuk proposatzeko, eta herriaren ekimenez zentralizatuta ez dauden eta merkataritzakoak ez diren guneak eta zerbitzu publikoak eraikitzeko.

Instituzionala ez den ekintza politiko horrek autoantolakuntza sozialeko prozesuak ditu oinarri gisa, eta bere erronka nagusia da boterea behetik sortzea, berezko praktika eta diseinu politikoen nagusitasuna lortu nahian borrokatzeko gaitasuna izan dezaten, eta beste mota bateko instituzio politikoa azal daitezten, ezagutzen dugunaz bestelakoa izango den instituzionalitatea berriz diseinatuta. Hortaz, alternatibak bilatu behar dira herriaren protagonismoa eta haren ordezkari instituzionala antolatzeko, botere instituzionala tresna egokia izan dadin, jendeak era antolatuan eta ezagueraz izandako parte-hartzeak eragiten dituen eraldaketa sozialak sustatu ahal izateko. Horretarako, gure ustez, jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen duen beste elementu bat behar da: harremanak izan behar dira indar-korrelazioen arabera eta testuinguruko aukera politikoa aintzat hartuta era autonomoan estrategikoki zehaztutako alderdi, sindikatu, gobernu kanpoko erakunde eta instituzio publikoekin.

Isabel Rauber-ek dioenez, lortu nahi den jendarte berria ez da bat-batean sortuko, ezta dekretuz ere. Herriak parte hartu behar du jendarte hori diseinatzeko eta prestatzeko lanetan. Izan ere, boterea ez da betetzen den instituzio, eraikin edo lurralde zehatz bat, ez da gobernu edo estatuko instituzioen arloa murrizten –XX. mendeko praktika iraultzaile ekonomizisten eta abangoardiakoek ezaugarria izan zen ikusmolde kosifikatua eta murriztailea da hori–. Aitzitik, orientabide etiko-politiko jakin batzuen eta horiekin bat datozen praktika materialen nagusitasunak zuzentzen dituen jendarteko harreman guztien gainean sortzen eta berregiten da. Horregatik, kontu bat da gobernuan egotea eta arlo instituzionalaren kudeaketaz arduratzea,

eta beste kontu bat da nagusitasuna aldatu ahal izatea, horrek arlo kulturala, ideologikoa, subjektibotasuna eta beste esparru batzuk hartzen baititu barne. Eta hori ez da “hartzen”, ez “konkistatzen” edo “dekretatzen”; hori eraiki egiten da (Rauber, 2011).

Horiek horrela, Rauber-en arabera, prozesu askatzaileek ezinbestez uztartu behar dituzte bi guneak: behetik eraikitako jendarteko harreman berrietatik sortutako boterearen gunea, eta gobernuaren eta administrazioaren arlo instituzionalena. Hortaz, beharrezkoa da instituzionalitatea liskarrean dagoen lurralde gisa hartzea, ahal dela herriko sektore sozialekin –eta ez abantailak dituzten eliteekin– eta beren erakundeekin elkarrizketan aritu, eta eragin-trukea eduki ahal izateko, eta, era horretan, haien protagonismoa bermatu, eta, parte hartuz eta era demokratikoan, arlo publikoa berriz eraiki ahal izateko. Jarraian ikusiko dugunez, gai horiek oso egokiak dira (eta aski konplexuak), “lagunak” diren gobernuen eta mugimenduen arteko harremanetan; hau da, mugimenduen eta gobernuaren artean nolahalako kidesun ideologikoa dagoenean.

II) Instituzionalitatearekiko harremanak, nagusitasuna lortzeko liskarrean dagoen lurralde gisa hartuta

Proposatzen duten logika politikoa eta arlo publikoaren parte hartzeko berreraikuntza demokratikoaren bidez, mugimenduek gobernuko ateak ireki nahi dituzte gehiengoek parte har dezaten, hala jendarteko hausnarketan eta eztabaidan, nola erabakiak hartzean, betetzean eta ebaluatzean. Kontua da nola egin daitekeen politika gaur ezagutzen duguna ez bezalakoa den modu batean eta eduki desberdin batez, sare garrodun inguratzailuetan erori gabe, eta eliteen artean kontuak “goitik” konpontzeko “sukaldeko lanik” egin gabe, edo teknikari, aditu edo aholkularien botere burokratiko eta ez-esplizituaren kulturak irentsia izan gabe.

Ildo horretan, mugimenduek parte-hartzean oinarritutako prozesuak, metodologiak eta dinamikak aipatzen dituzte, herriaren protagonismo kolektiboa eraikitzeko; hau da, kontzientzia, borondatea eta antolakuntza izatea eztabaidetan, proposamenetan eta hautabideetan parte hartzeko, horrela, subjektu kolektibo hori indartzeko eta prozesu horiek bultzatzeko eta sostengatzeko gai izan dadin lortzeko. Azken batean, ordezkariak politikoa eta protagonismo sozialaren

artean dauden tarreak ezabatu nahi dira; horretarako, eratzen diren gobernuetan, herriko sektoreek eta jendarte-erakundeek beste era bateko protagonismo politiko bat izan behar dute, bestelako legezkoatasuna, instituzionalitatea eta bidezkoatasuna eraikitzeko, herriaren parte-hartzean eta erabaki politikoak hartzeko estrategian oinarrituta.

Puntu horri dagokionez, jakintza teknikoaren zeregin nabarmentzen da bereziki, jakintza izatea boterea izatea baita. Administrazio publikoa ezin da parte hartuz eta modu demokratikoan eraiki, langile teknikoaren eta adituen zentralitatea eta protagonismoa ardatz gisa hartuta. Haren diagnostikoak, azterketa eta proposamenak eraikitzeko, jendarte-erakundearen eta herriko sektorearen parte-hartzea behar da ezinbestez; hau da, jakintzaren eraikuntza kolektiboa behar da, autoantolakuntzako eta subjektu herrikoien protagonismoa indartzeko prozesuen zerbitzuan.

Hala, bada, jendarte-mugimenduek behetik eraiki nahi dituzte prozesu politikoak, eta, horregatik, ez dira batere fidatzen goitik abiarazitako dinamikez eta metodologiez, horiek eliteei, abangoardiei, despotismo ilustratuari edo agintekeriak baliatzen diren gutxiengoei dagozkielako. Behetik eraikitzeko –komunitatearen eta mugimenduetako sarearen herri-ekimenez, edo instituzionalitatearen borondate politikoz–, arazo zehatzean eta tartean sartuta dauden agenteengan arreta jartzen duen praktika politiko-metodologikoa behar da, hautabideak batera aztertu, diseinatu eta gauzatu ahal izateko. Izan ere, herritarrek eta herriko sektoreek mobilizazioak egiten dituzte eta parte hartzen dute, beren ekintza alferrikakoa izango ez dela sumatzen dutenean, besteren interesek manipulatu ez dutela, edota bizitzeko baldintzak aldatu eta hobetu ditzakeen prozesu batean parte hartuko dutela uste dutenean.

Horregatik, eginkizun politikoa ez da jakintza, egia eta prozesu politikoko protagonista izatea, egia ideologikoa edo jakintza adituaren egiatik abiatuta zer egin behar den dekretuz esanez. Aitzitik, eginkizun politikoa da parte-hartze askotarikoa erraztea eta gauzatu dadin lortzea, ordezkariarik gabe, partekatutako erantzukizuneko eta herri-protagonismo kolektiboko prozesuetan erabaki ahal izateko.

Ildo horretan, Isabel Rauber-ek dioenez, Chiapaseko altxamendu zapatista, MST mugimenduak Brasilen

egindako okupazioak, edo “bartolinak” deitutako Boliviako emakume indigenen eta nekazarien jarduera politikoa ezinezkoa izango lirateke ekintzaileak jabetu ez balira beren errealitatean genero, jendarte-maila, eta arraza aldetik dauden bidegabekeriez (Rauber, 2011:239-240). Izan ere, kontzientzia hori ez dator subjektuen kanpoaldetik. Parte-hartzean oinarritutako eztabaidako dinamiken bidez (talde handian eta talde txikian) beren bizitzako baldintzei buruzko hausnarketa kritikoko praktikak eginez eraiki da ordea, bizipenak eta esperientziak erkatzeko aukera ematen duten praktiken bidez, praktika horiek bizipen horien balioa nabarmentzen baitute, eta pertsona bakoitzak duen autokonfiantza handitzen baitute, bakoitzak barruan dituen kezkek nola esaten dituen entzunda eta bakoitzak dituen ideiak eta proposamenak legezkatuz emanda. Era horretan, subjektuak inguruan duten munduarekin harreman dialektikoa izanik jarduten dute, eta eraldatzen dira: subjektu politiko bilakatzen dira, beren errealitatea eraldatuz.

Ildo horretan, Herri Hezkuntzak, Esperientzien Sistematizazioak, Bizitzako Ahozko Historiak edo Parte-hartzeko Ikerketa Ekintzak dituzten proposamen metodologikoak aintzat hartuta, ezinbestekoa da kontzientzia eta jakintza askatzaileak eraikitzeko prozesuak garatzea, hau da, jakintza eta prestakuntza ofizialaren esparruan izaten diren menpekotasuneko harremanak askatzeko prozesuak. Prozesu horietan ikuspegi jakin bat agertzen da, bizitzeko baldintzak eratzen dituen botere-jakintza harremanez, haietan

izaten den praktikaz, eta praktika zalantzan jartzen duten baldintza kultural eta materialetan esku hartuta praktika horretaz berriz jabetzeko kontzientziaz (pertsonal eta kolektiboaz). Hortaz, prozesu horiek jakintza desberdinen arteko harreman inklusiboa eta horizontala behar dute:

“...eta elkarrizketa hori ez da lortzen aulkiak zirku bat eratuz jarrita [...] parte hartzea ez da aulkiak areto batean kokatzeko modura murrizten, ez eta hitz egiteko modu batera, edo erakusteko formatu batera ere [...] alde batetik, ezinbestekoa da jakintza eta boterearen eta horren ondorioz eratzen diren menpekotasuneko harremanen artean ezarrita dagoen egitura zurruna eta hierarkikoa haustea; eta, bestetik, esatearen eta egitearen arteko koherentziari eustea. [...] Herri-hezkuntza tresna eta jarrera politiko sine qua non bat da, arrazoiaren eta bihotzaren ateak zabaltzen baititu, bestea onartzeko, balioesteko, entzuteko eta entzunak izateko [...] eta horiek funtsezkoak dira beste pentsamendu askatzaile mota bat sortzeko-eraikitzeko” (Rauber, 2011:241).

3. Ondorio batzuk elkarlanean bidean jarraitzeko

Jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen duten osagaiei eta joerei buruz, eta, orobat, mugimendu horien prozesuen indar askatzailea mugatzen eta ahultzen duten joerei buruz (ahuldadeei, gabeziei eta erronkei buruz) egin dugun hausnarketa partziala eta mugatua da. Alde batetik, hausnarketa hori eztabaidatuz, subjektu politiko horiek indar daitezten lortu nahi dugu; eta, beste aldetik, ekarpen bat egin nahi diogu, bestelako nazioarteko lankidetzaz jendarte-mugimenduak eta zapalkuntza-moldeak gainditzeko dituzten borroka-prozesuak indartzearekin lotu nahi dituen lan zabalagoari.

Hona hemen lan honen asmoak laburbiltzen dituen eta orri hauetan azaldu ditugun gai batzuk laburtzeko gida moduan erabiliko dugun galdera: zein osagai eta joera dira lagungarriak jendarte-mugimenduen prozesu askatzaileetan duten prestasuna sustatzeko, hau da, zein prozesu dira askatzaileak jendarte-talde batzuek beste batzuen gainean duten menpekotasuneko harreman eta egoeretatik ateratzeko?

Kontu horri erantzuna emateko, era sintetikoan zerrendatuko ditugu zehaztu ditugun osagaiak eta joerak:

- Lehenengoa izaera irekia eta adeitsua zaintzea da, izaera horrek, baldintzarik jarri eta bazterkeriarik egin gabe (egoera politikoak horretarako aukera ematen duen bitartean), harrera egiten baitu edozein pertsona mobilizazio, elkarte eta prozesu politikoetan sar dadin, gizarteratze politikoko gu-

neak baitira horiek, eta subjektibotasun kritikoak, aktiboak eta engaiatuak indartzen baitituzte.

- Bigarrenik, informazioari, barneko eztabaidari, erabakitze prozesuei, erantzukizunak banatzeari eta lana antolatzeko moduei dagokienez, erakundeek eta sareek denik eta funtzionamendurik horizontalena eta berdintasunezkoena duten heinean, orduan, ereduak izango dira elkarlaneko eta baterako lan horizontaleko dinamikan sakontzeko, lehiakorra ez den eta era hierarkikoan zentralizatuta ez dauden laneko dinamikan.

Azpimarratubehar dugubotere-harremanasimetrikorik inplizituki edo ezkutuan sor ez dadin, ezinbestekoa dela batzarretako dinamiketan eta mugimenduen ohi dituzten funtzionamenduko egitura informaletan edo gutxi formalizatueta dauden desberdintasunak aztertzea. Hortaz, ez dugu jakintzat eman behar denak berdinak gabela edo batzarrak eta horizontaltasunak berdintzen gaituela. Horren ordez, hausnarketa egin behar dugu barneko aniztasunari buruz, eta taldean aritu behar dugu lanean, autokontzientzia-maila handiagoa egon dadin, erakundeak eta mugimenduen sareak osatzen dituzten pertsonen parte-hartzean eta aktibismoan desberdintasunak sorrarazten dituzten faktoreei buruz. Hala, desberdintasunak adinaren, generoaren, esperientziaren, hartutako trebetasunen, eskuragarritasunaren, harreman pertsonalen eta bestelako alderdien arabera ikusgai jartzen eta ahultzen diren heinean, funtzionamendua, kohesioa, komunikazioa eta

desadostasunen eta gatazken kudeaketa eraikitzailea hobetu ahal izango ditugu.

- Ildo beretik, hauxe da jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartu dezakeen beste osagai bat: mugimenduak eratzen duten pertsonen eta, orobat, mugimenduetan sartuta ez dauden pertsonen arteko harreman-lotura berrien eraikuntza lan-ardatz gisa zehazteko gaitasuna izatea. Hala, bada, erakunde edo mobilizazio bat eratzen duten pertsonen artean sortzen diren harremanek erlazio logika instrumental, patriarkal edo bereizkeriazkoekin hausten badute, eta bestelako lotura bat sortzen badute pertsonen artea, hain zuzen, interdependentzia, elkarrekikotasuna, desberdintasunetikiko begirunea, elkarrekiko laguntza, partekatutako agintea eta zereginen eta erantzukizunen banaketa orekatua bezalako harremanetan oinarritutako lotura bat, orduan, sortzen diren jendarte-harremanek menpekotasunik gabeko etorkizun askatzailea irudikatuko dute. Horren eragin soziala eta politikoa are handiagoa izango da, mota horretako loturak eta harreman-moldeak gainerako afekzio-, lan – eta jendarte-arloetara zabaltzen diren heinean.
- Aurrekoari loturik, gure ustez, nabarmentzeko moduko beste osagai bat da jarduera ludikoak, adierazkorak, sinbolikoak eta bizikidetzarako jarduerak zaintzea. Izan ere, jarduera horiek, duten berotasuna eta emoziozko sakontasuna direla-eta, konplizitatea sortzen dute, konpromisoa indartzen dute eta partekatutako oroimena eta zentzu komunak sendotzen dituzte (ilusioa eta borroka kolektiboarekiko engaiamendua pizten dituen joera beroa). Hau da, nortasun, balio eta kide izateko sentimenduaren eraikuntza kolektiboa zaintzea, imaginarioak, mezuak, abestiak eta partekatutako sinbologia (bir)sortzen dituzten praktika ludiko, artistiko edo adierazkorren bidez. Kontuan hartu behar da beti aktibismoan dauden molde eta estilo ugariak onartu, eta haiekiko eta begirunea erakutsi behar dela; hau da, taldeko kide izateko sentimendua sustatu behar da, homogeneizatzeko asmorik gabe, eta autonomia pertsonalari kalterik egin gabe. Hortaz, alde batetik, begirunezko harremana izan behar dugu beste identitate eta alteritate batzuekin –norberaren nortasuna besteekiko nagusitasuneko babes-balio gisa eraikiko duten tolestura

endogamikorik gabe–, eta, bestetik, elkar hartu behar dugu mobilizatzeko inimizia-uhinak egiten dituzten pertsonekin, hau da, gutxiago antolatuta dauden eta lausoago dauden eskema ideologikoak edo nortasun politikoak dituzten pertsonekin.

- Jendarte-mugimenduen subjektu askatzaile gisa duten garrantziari buruz hausnartzean kontuan izan behar den beste osagai nabarmen bat autonomia politikoari eusteko gaitasuna da, hala antolakuntza-mailako autonomia nola maila ekonomikokoa. Hortaz, finantza-arloko menpekotasunak saihestu behar dira, erakunde eta jarduerari eustean, eta, era berean, ez da beste mota bateko agenteekiko menpekotasunik egon behar. Azken batean, lehen-tasuna eman behar zaie independentzia bultzatzen eta laguntzarik gabe modu autarkikoan jarduerari eusteko aukera ematen duten ekintzei, hau da, beste instantzia batzuen baliabide, erritmo, epe eta eskakizun formal edo informalen azpian jarri gabe: instituzio publiko, alderdi politiko, lankidetzako agenda eta bestelako menpe egon gabe.
 - Era berean, jendarte-mugimenduen antolakuntzako praktikak indartzen dituen beste alderdi bat aipatu behar dugu: sarean lan egitea, eta mugimenduen arteko era askotako artikulazioetan agertzea eta jarduerak egitea, hainbat mailatan –tokian, nazioan, estatuan eta nazioartean–. Era horretan, ahalmen gehiago izango dugu mobilizatzeko, eztabaida politikoak aberastuko ditugu, eta beste erakunde batzuen esperientzia praktikoen bidez ikasiko dugu. Azken batean, garrantzia eman behar zaio borroka desberdinen arteko ulermenarekin sakontzeko aukera ematen duten guneean egindako lanari; eta, horrela, elkarrizketa sortu behar da, komunikazioa eta elkar ezaguera handitzen duen eta mugimendu eta borroka desberdinen nortasunak eta eskalak irekiko dituen elkarrizketa.
- Hori guztia lagungarria izan daiteke, mugimenduaren beraren eta bere eskala arteko ekintza politikoaren erakuntzan, eskualde, estatu edo nazioarteko eskala desberdinetakoak diren korporazioko edo instituzioetako beste agente batzuei aurre egiteko estrategiak garatzeko.
- Bestetik, gure ustez, jendarte-mugimenduen izaera askatzailea eta nagusitasunaren aurkakoa areago indartzen da, ez baitira finkatutako egituren

koordinatuen barruan eragiteko politika bat ezartzera mugatzen. Horren ordean, sakonki astintzen dute egitura horiek historikoki egituratu dituen boterearen dialektika. Horrenbestez, haien ekoinpuzpen kognitiboak, gatazkako logika politikoa, esparru hori eratu duten abantailak eta bereizkeriak berregiten dituzten jarduera pribatuak eta politika publikoak zehaztu behar ditu. Horrela, erantzukizun politikoak adierazten dituzte eta aurkariak zehazten dituzte, eragin demokratizatzailea izan nahi duten mobilizazio eta salaketako praktiken bidez, hau da, eztabaidatu daitezkeen auzien eta eztabaidatu eta erabakiak hartu behar dituzten sektore / agenteen esparru demokratikoa zabaltzeko aukera emango duten praktikak erabiliz.

- Aurka aritzeko molde politiko horrek erantzukizunak adierazten ditu, aurkariei galdetzen die eta gainezka egiten du –hala praktika hauslean, nola etorkizun askatzaileen proposamenen– botere-nagusitasunekiko eta finkatutako egitura politiko-juridikoeikiko bateragarritasunaren mugetatik. Erantzun gisa, zapalkuntza sorrarazi ohi du, legezko nahiz legez kanpoko jazarpen, infiltrazio eta zigor itxuraren azpian, hala legezkotzat jotzen denaren esparruan, nola para-legalitatearen eremuan. Ildo horretan, gure ustez, hauxe da jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen duen beste alderdi bat: baliabideak abiarazteko eta aurre egiteko gaitasuna, abantailak eta finkatutako botere-egiturak zalantzan jartzeak sorrarazten dituen kontrol eta zapalkuntza politikoari aurre egiteko.
- Azterketa, diskurtsoa eta proposamena eraikitzean, gure iritziz, aurrez finkatutako uste sendo eta eske-ma ideologikoetatik abiatzeaz gain, herriko sektoreek dituzten kezka, atsekabeak eta beharrianak entzutean eta barneratzean sortutako mezuak eta diskurtsoak egituratu behar ditugu, horrek handitu egingo baitu mugimenduen indar askatzailea. Era horretan, mugimenduek bat egin ahal izango dute eraldaketari begira partekatutako bizipen eta desirekin, eta jendartean aski garrantzitsuak diren esparru diskurtsibo batzuekin.
- Arlo horretan, hauxe da gure hausnarketan nabarmendu dugun beste osagai bat: gutxiagotzeko eta bereizkeria egiteko molde desberdinen antolakuntza diskurtsiboa. Horrek esan nahi du,

beste borroka askatzaile batzuk lantzen dituzten elkarte eta erakundeekin batera, gai izan behar dugula ikuspegi orokorra edukitzeko aukera emango diguten azterketak egiteko, hau da, zapalkuntza-molde ugariak kritikoki berrikusten ez dituen eta zapalkuntzarik gabeko etorkizun askatzailea elkar-tasunez eta osorik proposatzen ez duen gehiegizko alderdikeria eta sektorialitatea saihestuko dituen ikuspegi orokorra.

- Norberaren jakintza sistematizazioa eta jakintza horretan oinarritutako prestakuntza politikoa da nabarmendu dugun beste osagaietako bat. Ildo horretan, jendarte-mugimendu batzuek gidatutako herri-hezkuntzako eta prestakuntza politikoko prozesuak funtsezkoak dira eraldaketa askatzaile eta antagonismoko prozesuetako subjektu kolektibo protagonista eraikitzeo aukera ematen duten baldintza subjektiboak sustatzeko prozesuan. Batez ere, forma eta dinamika doktrina-tzaileetatik urrunduz, kontzientzia kritikoa pizten duten eta prozesu askatzaileek behar dituzten autokonfiantza eta jabe-kuntzako dinamikarekin bat datozen metodologia eta alternatiba pedagogikoak sortzen dituztenean.

Gure ustez, kontu onuragarria da jendarte-mugimenduek egindako prestakuntza / hezkuntzako praktikak hezkuntza-arloko instituzionalitatearekin harremanetan jartzea edo harekin lehian aritzea eta barnean sartzea. Izan ere, horrela, metodologia eta ikuspegi alternatiboak eramango dituzte gune ofizialetera, nagusi diren ikuspegiak ez bezalakoak, eta, onarpen eta horizontaltasuneko baldintza egokiak daudenean, laguntza emango dute eta elkarlanean jardungo dira unibertsitateekin edo hezkuntza-arloko beste instituzio batzuekin.

- Proposamenak gauzatzen aurrera egiteko estrategiei dagokienez, hauxe da mugimenduen izaera eta indar askatzailea garatzen duen osagai bat: protestan eta salaketan ez geratzeko gaitasuna, hau da, itxarote oldarkorren geratu beharrean, aldarrikatzen diren alternatiba horien eraikuntza prefiguratibora jotzea, autoantolakuntzaren bidez. Horretarako, lankidetzako sareak eta komunitateak eratu behar dira, merkatua eta estatu liberala jendartearen antolakuntzan nagusi diren arautzaileak izan ez daitezten. Horrez gain, herriaren eki-

menez, gune eta zerbitzu publikoak eraiki behar dira, merkataritzakoak eta homogeneizatzailerak ez diren, eta zentralizatuta ez dauden guneak.

- Instituzionalitate eta bere agente politikoekiko harremani dagokionez, erronka askatzailea da mugimenduak sistema politikoarekin, instituzionalitatearekin eta bere agenteekin (alderdi politikoekin, sindikatuarekin, gobernuz kanpoko erakundeekin, etab.) autonomiako harremanak eratze duen gaitasuna, hau da, segizioaletasunik gabe eta bakar-tuta geratu gabe. Harreman horiek estrategikoki zehaztuko dira, modu autonomoan, indar-korrelazioen eta egoera bakoitzean dauden aukera politikoaren arabera. Haien ondorioz, ez da integrazio kooptatzailearik izango, ez eta bakartzeko prozesurik edo autobazterketarik ere. Izan ere, lehia politikoaren garapenaren arabera, aukerak izan daitezke instituzionalizatutako sistema politikoaren eskema egituratzaileak iraultzeko.

Ildo horretan, erronka hau dugu aurrean: behetik abiatuta, itunak eta boterea sortzea, norberaren praktikak eta diseinuen ahalmena izan dezaten sistema politikoko nagusitasuna lortze aldera lehian aritzeko eta beste mota bateko instituzio politikoak eta diseinua sorrarazi ahal izateko. Arlo publikoa parte hartuz eta era demokratikoan berreraiki behar da, eta gobernuko ateak zabaldu behar dira, gehiengoek parte har dezaten, hala eztabaida sozialean, nola erabakiak hartzean.

Ildo horretan, parte-hartzean oinarritutako prozesuak, metodologiak eta dinamikak eratu behar dira, kontzientzia askatzailea pizteko eta herriak rol nagusia izateko; hala, bada, borondatea eta antolakuntza behar da eztabaidetan, proposamenetan eta hautabideetan parte hartzeko, indartutako subjektu kolektibo horiek prozesuak bultzatzeko eta sostengatzeko gai izan daitezten lortzeko. Azken batean, ordezkari politikoaren eta protagonismo sozialaren artean dauden tartek ezabatu nahi dira. Horretarako, herriko sektoreek eta jendarte-erakundeek beste era bateko protagonismo politiko bat izan behar dute gobernuak eraikitzeko, bestelako legezketasuna, instituzionalitatea eta bidezketasuna eraikitzeko, herriaren parte-hartzean eta erabaki politikoak hartzeko estrategia oinarrituta.

Gure ustez, oraintxe laburbildu ditugun osagai eta joera horiek guztiek, jendarte-mugimenduen izaera askatzailea sustatzeaz gain, ekarpen ona egin diezaiekete egungo egoeran egiten diren eztabaidei, eztabaida horiek hasiak baitira jendarte – eta herri-mugimenduak subjektu politiko estrategikotzat hartzen, zibilizatorako beste aukera batzuk eta gure jendarteek aurrean dituzten krisialdi askotarikoei bestelako irtenbideak bilatzeko eta garatzeko.

Ildo horretan, garrantzitsua iruditzen zaigu jarraian krisialdiaren bi alderdi aztertzea. Bi Lan Koadernoetan aipatu ditugu, baina, gure ustez, ez dira behar bezala eztabaidatu, eta ez daude oso agerian: krisialdi demokratikoa eta krisialdi epistemikoa. Egokia iruditzen zaigu argitalpen honi buru ematea bi krisialdi horiei buruzko hausnarketa bat eginez. Izan ere, neurri handi batean, jendarte – eta herri-mugimenduak dira bi alderdi horiek ikusgai jartzeko lan gehien egiten ari diren subjektu politikoak.

Krisialdi demokratikoa eta herri-mobilizazioa

Azken puntu honi dagokionez, gure azken hausnarketaren ildoan, bereziki azpimarratu dugu demokraziak –beti eraikitzen ari den prozesu historiko gisa ulertuta– erronka zailak dituela merkantilismo eta kapitalismo globalizatuko egungo egoera honetan. Eta erronka nagusi horietako bat ez da parte-hartzearen gabezia, generikoan adierazita, baizik eta herriaren (demos-aren) parte-hartzearen gabezia, ekonomia eta politikako zenbait agentek politika publikoak diseinatzerakoan duten parte-hartze abantailatsuen aurrean (nazioz gairikoen enpresek, finantza-eliteek, egitura politikoetako teknokazietatik eta nazioarteko erakundeek). Parte-hartze abantailatsu hori lobbien eta beste forma are ilun eta ustelago batzuen bidez gauzatzen da –eroskeriak, gutun-azalak, prebrikazioa, dietak, nepotismoa, etab. erabiliz–, era berean erabiltzen baitituzte hala galtzaile pribatuek nola usteldu publikoek. Biztanle gehienek gero eta ahalmen gutxiago dute erabaki estrategikoko prozesuetan eta haiei dagozkien politiketan benetako eragin politikoa izateko.

Horregatik, lan eta ekintza kolektiboari buruz egin dugun lanaren eta hausnarketaren ikuspegitik, nahiago dugu legezketasuneko krisialdi politikoa aztertzea, botere politikoa erabiltzeko herri – partaidetzako prozesuen beharrezanarekin harremanetan jarrita. De-

mos-aren parte-hartzea ez dugu ordezkatzeko arazoetatik ulertzen, demokrazia ordezkatzailak gobernatuen eta gobernatzaileen artean finkatzen duen harremanari dagokionez dituen hutsuneak gainditzeari lotuta. Horren ordez, eskuordetza emateko arazoak hartzen ditugu kontuan. Hala, bada, herriaren parte-hartzea egituratzeko erronkatik helduta egingo diogu aurre krisialdi politikoari, eskuordetzaren inertzia eraldatuz, herriko sektoreen inplikazio-, antolakuntza – eta autogobernu-maila handiagoak lortzeko, eta, horrela, lobbyaren bidez edo presio egiteko dauden beste logika ilun batzuen bidez, merkatuko eta politika profesionaleko elite ekonomiko jakin batzuek monopolizatu ohi dituzten (boterean) eragiteko gaitasuna eskuratzeko.

Ikuspegi demokratizatzaile horretatik, herriaren protagonismoa prozesu politikoetan indartzeko, ez guke soilik mugatu behar herritarrak instituzioen sistemak duen funtzionamendu politikora hurbiltzera, horrela inbertsioko politiken eraginkortasuna edo herritarrek instituzio publikoekiko duten atxikimendu legitimatzailea hobetzeko. Arlo instituzionalean egiten den politika interes kolektiboaren (arlo politikoaren) definizioan eta gauzatzeko prozesuan eragina duten botere-harremanetan bitartekaritza egiteko dagoen modu bat dela uste badugu –besteak beste–, orduan, sistema instituzionala beste modu bat da (asmo monopolizatzaileak dituen) erabaki kolektiboak gauzatzeko gune publikoko parte-hartzea prozesatzeko.

Ikuspegi horretatik, herriaren parte-hartzea ezinbestekoa da estrategia demokratizatzaile gisa, dauden botere-harreman asimetrikoetan esku hartzeko, era horretan, erabaki politikoak “gehienen” interes kolektiboaren isla izan daitezen, “gutxi batzuen” interes partikularra izan beharrean. Horrek, bestalde, eragin demokratizatzailea izango du, eta aukera emango digu eztabaidatu daitezkeen gaien esparrua eta gogoeta egin, negoziatu eta erabakiak hartu behar dituzten agenteen arloa areago zabaltzeko.

Mugimenduak ikusezin bihurtzeko prozesua eta bazterkeria epistemikoa

Orain arte aipatu dugun bezala, mugimenduen izaera askatzailea sustatzen duten osagai gisa zehaztu ditugun alderdiak ulertzeko, gaur egungo sistema eta zibilizazioaren krisialdiaren testuinguruan kokatu behar ditugu. Krisialdia aukera berriak irudikatzen

eta eraikitzen akuilu eta pizgarri da, eta, aldi berean, bera ikusita sekula baino gehiago izan behar dugu gogoan Claudia Korolek adierazitako arriskua: “herri-dinamismoa programa kapitalistaren oraingo mugak hausten dituzten proiektuekin, eta proiektu horiei eutsiko dieten herriko indar antolatuekin uztartzen ez badugu, prozesuak arin jarriko dira azpikoz gora, atzera egingo da lortutakoarekin eta, gainera, eskuineko indarrek egingo dute aurrera, indar horiek aldi hori erabiltzen baitute beren burua antolatzen” (Korol, 2007:230). Eta, bestetik, beti amaitu gabe dagoen prozesuaren izaera dago, testu honetan prozesu askatzailetzat jo ditugun horiek berez duten izaera.

Menpekotasun kolonial, heteropatriarkal eta kapitalistaren gailuak ikusezinak direnez, ezkutuan gertatzen da sexu-genero, jendarte-maila, arraza, etnia, sexu-orientabide, hizkuntza, gaitasun funtzional edota naturarekiko harreman-molde aldetik dagoen aniztasuna sistematikoki bilakatzen dela desberdintasun, zehazki, botere, baliabide eta bizitza-aukera aldeko desberdintasun. Eta giza aniztasun hori desberdintasun bilakatzen da, hain zuzen, bereizkeria horien funtsezko zati bat Virginia Vargasek isiltasuneko konspirazio sozialak deitutakoak ezartzea delako, horiek zapalkuntza naturalizatzen dute-eta:

“Sueli Carneiro feminista beltzak dioenez, oinarriko eta egiturazko osagaietako bat estaltzeko gaitasun gehiago duen heinean, are kaltegabeagoa da aniztasunaren diskurtsoa: arrazakeria eta arrazako bereizkeria, isiltasuneko konspirazioa baitaigo haren inguruan” (Vargas, 2012:115).

“Beijing+15 plataforman lortutako aurrerapenak ebaluatuta, nabaria da bazterkeriako mailarik altuenak kontinenteko (amerikarreko) biztanle-gune indigenetako eta beltzetako emakumeen artean metatzen direla” (Vargas, 2012:115).

Hortaz, menpekotasunekin eta zapalkuntzekin hausteko, isiltasuneko konspirazio sozial horiekin bukatu behar da, bai eta gutxiagotzeko eta bazterkeria egiteko dauden molde ugarien ikusezintasun epistemiko edo kognitiboarekin ere. Eta horrek gatazka dakar, baina gatazka da demokraziaren motorra, ez neutraltasuna edo asepsia kognitiboa: jarrera etiko-politikoaren gatazka (non kokatzen garen, nor hautatzen dugun: gutxiagotutako eta bazter utzitako pertsonak eta jendarte-mailak, edo nagusitu direnak eta ondo kokatuta

daudenak), eta, era berean, jarrera epistemologikoen gatazka (gauzak adierazten ditugun lekutik, horren ondoriozko azterketak eta hausnarketak zein prozesu eta agenteren zerbitzuan dauden). Hortaz, ikuspegi teoriko eta kognitiboen gatazkak dira, eta errealitatera hurbiltzeko moldeen eta liskarrean eragin-trukea duten agenteekiko lanaren gatazkak ere bai.

Errealitatea eta bere ondoriozko borroka epistemikoak ezagutzeak duen izaera gatazkatsua ez onartzea, kategorien eta praktiken arteko ezinezko neutraltasunean kokatuta, boterezko leku batean kokatzea bezalakoa da: “zure historiak markatu du hitz egiten ari zaren tokia, ezin duzu alde batera utzi, eta inon kokatu gabe hitz egin”⁴⁶ (Vargas, 2012:102). Pentsamendu feministak egindako ekarpenen esku-tik, gure ustez, genero, jendarte-maila, arraza edota hizkuntza aldetik dauden abantailak eta zapalkuntzak gainean jartzen dira, era askotara hezurramitzen dira gure gorputzetan, eta, horrela, gure adierazpen-lekua markatzen dute. Horregatik, gure iritziz, ez dago ez-lekurik errealitatea behatu eta aztertzeke, jakintza kokatuta baitago, gure begirada erabat baldintzatzen duen adierazpen-leku sozio-estrutural eta historiko batetik behatzen baitugu. Begirada kokatu, partzial eta mugatu hori beste edozein begirada bezain zile-gizkoa da, betiere, izaera kokatua onartzen badu eta talaia batean (kokatu gabeko leku batean) jartzen ez bada, jakintza objektibo eta neutralaren mozorroa jantzita. Azken batean, behatzeko eta lan egiteko hartzen dugun oinarria ez da aurrez zehaztutako zoru irmo bat (kanpoko errealitate / egia bat, objektiboa eta behatzailearen begiradatik independente dena). Aitzitik, gure ibilbide eta kokapen sozio-estruturalak baldintzatzen duen oinarri bat da, modu pertsonalean eraiki duguna, aztergaiaren aurrean hartzen dugun jarrera etiko-politikoaren bidez, oinarri horretatik be-

hatzen eta aztertzen dugu (eta aztertzea esku-hartzeko modu bat da). horiek guztiak ez du esan nahi oinarri-zko printzipio zientifikoak kontuan hartu behar ez dugunik jakina, sistematizitatea, zorrotasuna, ireki-era, zuhurtzia eta umiltasuna bezalako printzipio zientifikoak hartzen dira kontuan. Izan ere, printzipio horiek zentzu eta sakontasun gehiagoz hornitzen dira, gure hasierako begirada kokatu eta mugatuak uzten diguna baino askoz ere konplexuagoak eta beteagoak diren azterketak eta hausnarketak egiteko erronkari heldu ahal izateko; eta azterketa eta hausnarketa horiek egia balira bezala aurkeztu beharrean, gonbidapen gisa aurkezteko, elkarbizitza eta bizitzari eusteko gure ustez onuragarrien eta desiragarrien den eran begiratzeko, ulertzeko eta kokatzeko gonbit moduan.

Jendarte-mugimenduek abiarazi dituzten eztabaida eta lehia epistemikoen eta politikoen berez dakarte beraien errealitatea ikusteko eta ulertzeko dugun modua era kritikoa berraztertzea; eta gonbit egiten digute mugimenduak jakintza teoriko eta praktikoa subjektu sortzailatzat hartzen dituen jakintzen ekologiara (Santos, 2006; 2009)⁴⁶ hurbil gaitezen:

“Jendarte-mugimenduen jakintzako praktikak botere-esparruetan sortzen direnez, politikoki oso esanguratsua da mugimendu horiek jakintzaren sortzailatzat hartzea. Jendarte-mugimenduen praktika teorikoa mugimendu horiek eraldatu nahi dituzten erregimen historikoen (epistemiko eta ontologikoen) harremanetan sortzen da. Ildo horretan, mugimenduen jakintzako praktiken garrantzia, alde batetik, adierazten diren leku bakan horietan sortzen da –haien kokapenean–, eta, bestetik, egia edo nagusitasunezko erregimen menperatzaileen (eta zapaltzaileen) aurka duten borrokan ere bai” (RETOS, 2011)⁴⁷.

⁴⁶ Boaventura de Sousa Santosek Jakintzen ekologia terminoa erabiltzen du, unibertitateak ekoizten duen jakintza zientifikoaren eta jendartean dauden jakintza herrikoien, tradiziozkoen, hirikoen, nekazaritzakoen eta mendebaldekoak ez diren kulturetako (indigenen) artean elkarriketak sustatzeko prozesuari deitzeko, jakintza zientifikoak erkatu eta mendebaldeko modernitateak alde batera utzi dituen jakintza-moldeak barne har daitezten.

⁴⁷ Beste Jakintzen Nazioz gaidiko Sareak (RETOSek) honela definitzen du bere burua: “eraikitzen ari den gune bat da, sare gisa antolatutako ahalegin kolektibo bat, akademiko-ekintzaileek eta Abya Yala / Ameriketako barrena dauden hainbat mugimendu, erakunde eta elkartetako kide diren ekintzaileek eratua [...] Ez ginen elkartu, ohiko proiektu baten moduko ikerketa-agenda bat egiteko asmoak bultzatuta. Aitzitik, gure gorputz, gogo eta bihotzetan izandako lankidetzako esperientzietatik sortutako kritikek eta ohiko galderek eraman gintuzten horretara. Esperientzia horien ondorioz, ahalegin kolektibo bat eraikitzeke gogo piztu zitzaigun, ohiko “ikerketa-proiektu” klasiko bat eratu beharrean” (RETOS, 2011). Ekimen honi buruzko informazio gehiago izateko, ikusi hau: <http://encuentroredtoschiapas.jkopkutik.org/index.php/es/que-es-la-retos>

Mugimenduak, beren ekoizpen diskurtsiboarekin eta praktika politikoeekin, beste molde batzuk sortzen ari dira ezagutzak eta gauzak jakiteko / egiteko, aukerak zabaltzen dituzte, kontzeptuak eta berrikuntza teorikoa eta epistemologikoa sortzen dituzte, eta, horrenbestez, era kritikoan berrikusten dituzte unibertsiaterean eta jendartearen artean dauden ohiko zatiketak, teoria eta praktiken, edota ikerketa-talde eta ekintzaileren artean dauden ohiko zatiketak. Agerian jartzen digute errealitatea ikastea eta ikertzea haren baitan esku hartzeko modu bat dela (ekoizten dituen diskurtsoak errealitatea hitz eta ikuspegi batzuekin edo besteekin definitzeko egiten diren borroka sinbolikoen zati bilakatzen dira; era horretan, errealitatera hurbiltzeko kategoriak eta proposamenak sortzen ditu, eta litekeena da horiek liskarrean dauden agente batzuk gehiago legitimatzea beste batzuk baino). Era berean, aditzera ematen digute agente politiko gisa errealitatean esku hartzeko, hausnarketa, diskurtsoa eta jakintza ekoitzi behar direla, hala teoriko-ideologikoa nola praktikoa.

Lehen esan dugunez, mugimenduen indarrean dagoena (ezarritakoa, finkatutakoa) mugitzen dute edo mugiarazi nahi dute, elite politikoeak eta ekonomikoeak saihestezin eta beharrezko gisa aurkezten dizkiguten errealitateak gaindituz. Mugimenduen bidez, ikerketan aritzen diren pertsonentzat, aktibismo politikoan jarduten diren horientzat, eta bien arteko konbinazio teilakatuak direnentzat zeregin garrantzitsua da haiei dagozkien gaien buruzko kategoria, teoria eta hurbilpen epistemologikoak eta metodologikoak berriz pentsatzea.

Gure jakintza-moldeak berrikusi behar ditugu, subjektu / objektu, agente ikertzaile / agente ikertu logika kartesiarra eta logika horrek objektuak eta egiak finkatzen dituzten jakintzak ezartzeko duen modua

sakonki astintzeko. Izan ere, hori da egin behar dugun lehen urratsetako bat, a priori logika desberdinak dituzten espazioen artean loturak eta sinergiak piztuko dituzten hausnarketa eta praktikako guneak zabaltzeko, subjektuak eta prozesuak askatzeko lagungarriak izango diren sormenezko prozesuak abiaraziz.

“Objektiboa eta neutrala” izateko ahalegina bazter utzita, eta inon ez kokatzea ezinezkoa dela jakinda, begirada hori esplizituki kokatzen da ertzetan, kontra-hegemonietan kokatuta dauden agenteekin, eta ez nagusi diren joeretan dauden horiekin. Azken batean, gogoeta zorrotzak ere era kritikoan astindu behar ditu nagusitasunez finkatuta dagoen jakintzaren oinarriak, eta, horretarako, jakintza-moldeen aniztasuna onartzea eta legezkatzat jotzea da ibil daitekeen bideetako bat. Hortaz, jakintzen ekologiara zabaldu behar dugu gure burua, horrek onartu egiten baititu historian barrena ikusezin geratu diren, eta gutxietsiak edo zapalduak izan diren jendarteko sektoreen jakintzak eta proposamenak.

Bibliografía

- ADAMOVSKY, Ezequiel (2009): “Problemas de la política autónoma: pensando el pasaje de lo social a lo político”, hemen: HOETMER, Raphael (koord.): Repensar la política desde América Latina. Cultura, Estado y movimientos sociales, Programa Democracia y Transformación global (PDTG). Universidad de San Marcos, Lima.
- AGUILÓ BONET, Antoni Jesús (2010): “La democracia, un proyecto para el siglo XXI (Boaventura de Sousa Santos egindako elkarrizketa)”, Revista Internacional de Filosofía Política, 35, Madril.
- ÁLVAREZ, Sonia E. (2009): “Repensando la dimensión política y cultural desde los movimientos sociales: algunas aproximaciones teóricas”, hemen: HOETMER, Raphael (koord.): Repensar la política desde América Latina. Cultura, Estado y movimientos sociales, Programa Democracia y Transformación Global (PDTG). Universidad de San Marcos, Lima.
- BORRAS, Saturnino M. (2004): La Vía Campesina: un movimiento en movimiento. TNI, Amsterdam (2013ko ekainaren 10ean kontsultatua). Hemen dago eskuragarri: <http://r1.ufrj.br/geac/portal/wp-content/uploads/2012/11/BORRAS-La-Via-Campesina-espanhol.pdf>
- BRINGEL, Breno (2011): “El estudio de los movimientos sociales en América Latina: reflexiones sobre el debate postcolonial y las nuevas geografías del activismo transnacional”, hemen: FALERO, Alfredo et al. (arg.): Pensamiento crítico y sujetos colectivos en América Latina, Facultad de Ciencias Sociales de la Universidad de la República, Montevideo.
- CASTRO-GÓMEZ, Santiago eta Ramón Grosfoguel (arg.) (2007): El Giro decolonial: Reflexiones para una diversidad epistémica más allá del capitalismo global. Siglo de Hombre Editores; Universidad Central, Instituto de Estudios Sociales Contemporáneos (IESCO-UC), Pontificia Universidad Javeriana, Instituto de Estudios Sociales y Culturales, Pensar, Bogotá (2013ko ekainaren 10ean kontsultatua). Hemen dago eskuragarri: <http://www.lapetus.uchile.cl/lapetus/archivos/1307460584CastroGomezSantiago-ElGiroDecolonial.pdf>
- CARRASCO, Cristina (2013): “El cuidado como eje vertebrador de una nueva economía”, hemen: Los Cuidados entre el trabajo y la vida, Cuadernos de relaciones laborales 31, 39-56 (2013ko ekainaren 20an kontsultatua). Hemen dago eskuragarri: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4198207>
- CECEÑA, Ana Esther (2008): Hegemonía, emancipaciones y políticas de seguridad en América Latina: dominación, epistemologías insurgentes, territorio y descolonización, Programa Democracia y Transformación Global (PDTG), Universidad de San Marcos, Lima.
- CECEÑA, Ana Esther (2012): “Dominar la naturaleza o vivir bien: disyuntiva sistémica”, Revista Debates Urgentes. Investigación desde y para los movimientos sociales, 1, Centro de Estudios para el cambio social, Argentina.
- DAZA, Mar; Raphael Hoetmer y Virginia Vargas (arg.) (2012): Crisis y movimientos sociales en Nuestra

- América: cuerpos, territorios e imaginarios en disputa. Programa Democracia y Transformación Global (PDTG), Coordinadora Interuniversitaria de Investigación sobre Movimientos Sociales y Cambios Político-Culturales, Lima.
- ESCOBAR, Arturo (2003): “Mundos y conocimiento de otro modo. El Programa de investigación Modernidad/Colonialidad”, Revista Tabula Rasa 1, 56-86. Hemen dago eskuragarri: www.unc.edu/~aescobar/text/esp/escobar-tabula-rasa.pdf
- KOROL, Claudia (2007): “La formación política en los movimientos populares latinoamericanos”, hemen: OSAL, VIII. urtea, 22, CLACSO, Buenos Aires (2012ko martxoaren 10ean kontsultatua). Hemen dago eskuragarri: <http://bibliotecavirtual.clacso.org.ar/ar/libros/osal/osal22/EMS22Korol.pdf>
- LA VIA CAMPESINA (2009): Documentos políticos de La Vía Campesina. Hemen dago eskuragarri: <http://www.viacampesina.org/downloads/pdf/policydocuments/POLICYDOCUMENTS-SP-FINAL.pdf>
- LAO-MONTES, Agustín (2012): “Des/colonialidad del poder, crisis de la civilización occidental capitalista y movimientos antisistémicos”, hemen: Crisis y movimientos sociales en Nuestra América: cuerpos, territorios e imaginarios en disputa. Programa Democracia y Transformación Global (PDTG), Coordinadora Interuniversitaria de Investigación sobre Movimientos Sociales y Cambios Político-Culturales, Lima.
- MARTÍNEZ, Zesar; Beatriz Casado eta Pedro Ibarra (2012): Movimientos sociales y procesos emancipadores, Lan Koadernoak, 57. zk., Hegoa, Bilbo.
- MIGNOLO, Walter (2003): Historias locales/ diseños globales: Colonialidad, conocimientos subalternos y pensamiento fronterizo, Akal, Madril.
- NOBRE, Miriam eta Sarah de Roure (2012): “La construcción de la Marcha Mundial de las Mujeres: formas organizativas y sostenimiento de nuestro movimiento”, hemen: PIRIS, Silvia (koord.), Movimientos Sociales y cooperación: ideas para el debate, Hegoa, Bilbo.
- RESTREPO, Eduardo eta Axel Rojas (2010): Inflexión decolonial: Fuentes conceptos y cuestionamientos. Editorial Universidad del Cauca Instituto de Estudios Sociales y Culturales Pensar; Universidad Javeriana, Popayán, Kolombia. Hemen dago eskuragarri: www.ram-wan.net/restrepo/documentos/Inflexion.pdf
- RAUBER, Isabel (2006): Movimientos Sociales y representación política, FBMD, La Paz.
- RAUBER, Isabel (2011): Dos pasos adelante, uno atrás: lógicas de superación de la civilización regida por el capital, Ediciones desde abajo, Bogotá.
- RETOS (2011): “Acerca de la Red Transnacional Otros Saberes (RETOS). Entre Las Crisis y Los Otros Mundos Posibles. Documento para el debate”. RETOS sarearen Nazioarteko II. Biltzarrean aurkeztua, uztailearen 30etik abuztuaren 1era CIDECI Las Casas/ UNITIERRA-Chiapas, San Cristóbal de Las Casas, Mexiko (2013ko maiatzaren 4an kontsultatua). Hemen dago eskuragarri: <http://encuentroretoschiapas.jkopkutik.org/index.php/es/que-es-la-retos>
- ROSSET, Peter eta María Elena Martínez-Torres (2010): “La Vía Campesina: the birth and evolution of a transnational social movement”, The Journal of Peasant Studies, 37, Issue 1, 149-175 (2013ko ekainaren 10ean kontsultatua). Hemen dago eskuragarri: www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1080/03066150903498804
- SANTOS, Boaventura de Sousa (2006): Conocer desde el Sur. Para una cultura política emancipatoria, Fondo Editorial de la Facultad de Ciencias Sociales, PDTG, Universidad de San Marcos, Lima.
- SANTOS, Boaventura de Sousa (2009): Una Epistemología del Sur: la reinención del conocimiento y la emancipación social, Siglo XXI, Mexiko.
- TORRES, Alfonso (2010): “Educación Popular y paradigmas emancipatorios”, Revista Alternativas, 39, Managua.
- VARGAS, Virginia (2012): “Democracia con tiempos de beligerancia: los retos en la construcción de la ciudadanía de las mujeres en el siglo XXI”, hemen: Crisis y movimientos sociales en nuestra América: cuerpos, territorios e imaginarios en disputa. Programa Democracia y Transformación Global (PDTG), Coordinadora Interuniversitaria de Investigación sobre Movimientos Sociales y Cambios Político-Culturales, Lima.

ZIBECHI, Raul (2008): “Ecos del subsuelo: Resistencia y política desde el sótano”, hemen: Autonomías y emancipaciones: América Latina en movimiento, Bajo tierra ediciones, Mexiko.

EGILEENTZAKO ARAUAK

Jatorrizko lanak bidaltzea

Erredakzio Kontseiluak zehatz aztertuko ditu aldizkariak duen xedeari loturik bidaltzen dizkioten lan guztiak. Artikuluak argitaragarbeak izango dira, beste hedabide batean argitaratu emateko inoiz aurkeztu gabek.

Posta elektronikoko helbide honetara bidali beharko dira: hegoa@ehu.es. Posta elektronikoa bidez harremanetan jarriko gara artikulua sinatzen duen pertsona batekin (lehen egilearekin, berariaz bestelakorik adierazten ez bada), eta bidalitako lana hartu izanaren agiria igorriko diogu.

Aurkeztutako lanak ebaluatzea

Jasotako artikulua ebaluatzen hasteko, behar bezala bete beharko dira Hegoa Lan-koadernoen ediziorako arau guztiak. Ebaluazioaren bidez, kalitate gehien duten lanak hautatuko dira, aldizkariaren izaera dela-eta jatorrizko lanen kopuru mugatua baizik ezin baita argitaratu. Prozesu horretan, Erredakzio Kontseiluak hasierako aukeraketa egingo du, eta Argitalpen Kontseiluko kide aditu batek edo kontseilu horrek izendatutako lagun batek berrikusketa egingo du gero. Azken kasuan, kanpoko beste aditu batzuek egin ahal izango dute berrikusketa. Erredakzio Kontseiluak artikuluen egileei jakinaraziko die testua onartu ala baztertu den, eta, era berean, berrikusi behar ote den.

Argitaratzeko arauak

Egileei berariaz eskatzen zaie arreta handiz berrikusi ditzaten testua eta erabilitako terminologia, eta alde batera utz ditzaten formulazio nahasgarriak eta espezializatuak den jargoia ere bai. Horrez gain, sexista ez den hizkera erabiltzea gomendatzen dugu.

Testua 12 zenbakiko Arial letrarekin idatziko da, gehienez 50 orri izango ditu (DIN-A4 tamainakoak), eta orri bakoitzean 3.000 karaktere sartuko dira gehienez (espazioak ere barne hartuta), oharrak eta bibliografiako aipamenak aintzat hartu gabe. Oharrek ez dute 5 orri baino gehiago hartuko, eta aipamen bibliografiakoek, berriz, 7 orri. Oharrak orriaren oinaldean jarriko dira, eta zenbakituta joango dira, elkarren hurreneko zenbaki arabiarrekin. Testua doc (Microsoft Office Word) edo odt (OpenOffice Writer) formatuan aurkeztuko da.

Ez da ezer azpimarratuko, ez eta letra lodiz idatziko ere, izenburuetan izan ezik: izenburuak letra lodiz idatziko dira, 14 tamainan, eta 1., 1.1., 1.1.1., 2... eskemaren arabera zenbakituta. Testuko esaldi edo hitzen bat nabarmendu nahi izanez gero, letra etzanez idatziko da. Dezimalak idazteko, koma erabili beharko da beti.

Bidaltzen diren artikuluen lehenengo orrian, izenburuaren eta egilearen edo egileen aipamenaren ondoren, datu hauek azalduko dira: izena, abizenak, posta elektronikoa eta instituzioko datuak edo lantokia. Laburpen bat jasoko da, gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz; gehienez bost hitz gako hautatuko dira, artikuluen edukien

adierazgarri, eta horiek ere gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz jarriko dira.

Euskaraz edo ingelesez idatzita dauden testuei dagokienez, egileek berek aurkeztu beharko dute gaztelaniazko itzulpena.

Sartzen diren koadroak, irudiak, taulak eta mapak testuan ondo txertatu beharko dira, behar bezala ordenatuta, eta jatorrizko iturrien identifikazioa zehaztuta. Izenburu egokiak izango dituzte, edukiaren adierazgarri. Koloreak erabiliz gero, erabili grisena eskala, eta bereizi lerroak sinbolo edo trazadura desberdinekin, aleak zuri-beltzean inprimatuko baitira. Hauek guztiak, gainera, pdf, xls (Microsoft Office Excel) edo ods (OpenOffice Calc) formatuetan bidali beharko dira bakoitza bere aldetik. Irudiekin batera, oinarritako datuak dituzten fitxategiak bidaliko dira.

Egileak egokitzen jotzen duenean, formula matematikoak zenbakituko ditu, zenbaki arabiarrek erabiliz, kortxete artean jarrita formularen eskuinaldean. Formula matematikoen eta testuaren gainerako sinbolo guztiak, pdf formatuan bidali beharko dira.

Aipamen bibliografiako testuan sartuko dira, parentesi artean, eta egilearen abizena, eta, jarraian (koma baten ondoren) argitalpen-urtea (a, b, c, eta abar bereizita, elkarren hurreneko ordenan, zaharretatik berrienera, egile beraren urte bereko lan bat baino gehiago aipatuz gero), eta, hala behar denean, orria adieraziko dira.

Adibidez:

(Keck eta Sikink, 1998)

(Keck eta Sikink, 1998; Dobbs et al., 1973)

Oharra: et al. erabiliko da hiru egile edo gehiago direnean.

(Goodhand, 2006: 103)

(FAO, 2009a: 11; 2010b: 4)

(Watkins eta Von Braun, 2003: 8-17; Oxfam, 2004: 10)

Lanaren amaieran, zerrenda bibliografiko osoa jarriko da, egileen araberako hurrenkera alfabetikoan, eta ondoko formak erabiliz, artikulua aldizkarian, liburuan edo liburu bateko kapituluaren atera den bereiziz. Hala behar denean, parentesi artean jarriko da lehen edizioaren edo jatorrizko bertsioren data.

Aldizkariako artikulua:

SCHIMDT, Vivien (2008): "La democracia en Europa", Papeles, 100, 87-108.

BUSH, Ray (2010): "Food Riots: Poverty, Power and Protest", Journal of Agrarian Change, 10(1), 119-129.

Liburua:

AGUILERA, Federico (2008): La nueva economía del agua, CIP-Ecosocial y Los libros de la catarata, Madril.

LARRAÑAGA, Mertxe eta Yolanda Jubeto (arg.)

(2011): La cooperación y el desarrollo humano local. Retos desde la equidad de género y la participación social, Hegoa, Bilbo.

Liburuko atala:

CHIAPPERO-MARTINETTI, Enrica (2003): "Unpaid work and household well-being", hemen: PICCHIO, Antonella (arg.): Unpaid Work and the Economy, Routledge, Londres, 122-156.

MINEAR, Larry (1999): "Learning the Lessons of Coordination", hemen: CAHILL, Kevin (arg.): A Framework for Survival. Health, Human Rights and Humanitarian Assistance in Conflicts and Disasters, Routledge, New York eta Londres, 298-316.

Webetik hartutako baliabideei dagokienez, behar diren datuak aipatuko dira, liburua, liburuko artikulua, aldizkaria edo egunkariko artikulua den kontuan hartuta. Argitalpen elektronikoa den data eta aipua hartu zen eguna jasoko dira, parentesi artean, bai eta helbide elektronikoa edo url-a ere, < > ikurren artean, "hemen dago eskuragarri" esaldiaren atzetik. Adibidez:


NDF (2007): "Declaración de una misión del personal técnico del FMI en Nicaragua", hemen: Comunicado de Prensa, 07/93 zk., 2007ko maiatzaren 11 (2007ko abuztuaren 8an kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.imf.org/external/np/sec/pr/2007/esl/pr0793s.htm>>.

ELGA (2001), The DAC Guidelines: Helping Prevent Violent Conflict, Development Assistance Committee (DAC), Paris (2010eko irailaren 10ean kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.oecd.org/dataoecd/15/54/1886146.pdf>>

Sigla edo laburdura bat lehenengo aldiz erabiltzean, bere esanahi osoa adierazi beharko da eta, horren ondoren, parentesi artean, gero baliatuko den sigla edo laburdura jasoko da.

COPYRIGHT-AREN OHARRA

Hegoa Lan-koadernoa sailean argitaratzen diren artikulua guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratuko dira:



Orri honetan aurkituko dituzun agiriak Creative Commons lizentziaren babestuta daude.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Artikuluaren egileak edo egileek berariaz onartu beharko dute horrela.

- Hamar Urteko Euskal Lankidetzaren azterketa. Ekuador, Guatemala, Peru eta SEAD: 1998-2008. Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
56. El Desarrollo Humano Local: aportes desde la equidad de género. Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna. Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
57. Movimientos sociales y procesos emancipadores. Zesar Martinez, Beatriz Casado, Pedro Ibarra.
Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak. Zesar Martinez, Beatriz Casado, Pedro Ibarra.
58. Los procesos de desarme, desmovilización y reintegración de excombatientes desde la perspectiva de género. iker zirion landaluze.
- Borrokalari ohien desarme, desmovilizazio eta gizarteratze prozesuak ikuspegi feministatik. iker zirion landaluze.
59. Justicia transicional: dilemas y crítica feminista. Irantzu Mendia Azkue.
Trantsiziozko justizia: dilemak eta kritika feminista. Irantzu Mendia Azkue.
60. Acerca de opresiones, luchas y resistencias: movimientos sociales y procesos emancipadores. Zesar Martinez y Beatriz Casado.

30. Desarrollo y promoción de capacidades: luces y sombras de la cooperación técnica. José Antonio Alonso.
31. A more or less unequal world? World income distribution in the 20th century.
¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX. Bob Sutcliffe.
32. ¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX.
Munduko desbertasunak, gora ala behera? Munduko errentaren banaketa XX mendean. Bob Sutcliffe.
33. La vinculación ayuda humanitaria - cooperación al desarrollo. Objetivos, puesta en práctica y críticas. Karlos Pérez de Armiño.
34. Cooperación internacional, construcción de la paz y democratización en el África Austral. Eduardo Bidau-rmazaga y Jokin Alberdi.
35. Nuevas tecnologías y participación política en tiempos de globalización. Sara López, Gustavo Roig e Igor Sábada.
36. Nuevas tecnologías, educación y sociedad. Perspectivas críticas. Ángeles Díez Rodríguez, Roberto Aparici y Alfonso Gutiérrez Martín.
37. Nuevas tecnologías de la comunicación para el Desarrollo Humano. Alfonso Dubois y Juan José Cortés.
38. Apropiarse de Internet para el cambio social. Hacia un uso estratégico de las nuevas tecnologías por las organizaciones transnacionales de la sociedad civil. Social Science Research Council.
39. La participación: estado de la cuestión. Asier Blas, y Pedro Ibarra.
40. Crisis y gestión del sistema global. Paradojas y alternativas en la globalización. Mariano Aguirre.
¿Hacia una política post-representativa? La participación en el siglo XXI. Jenny Pearce.
41. El Banco Mundial y su influencia en las mujeres y en las relaciones de género. Idoie Zabala.
42. ¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al desarrollo. Miguel González Martín.
43. Los presupuestos con enfoque de género: una apuesta feminista a favor de la equidad en las políticas públicas. Yolanda Jubeto.
Los retos de la globalización y los intentos locales de crear presupuestos gubernamentales equitativos. Diane Elson.
44. Políticas Económicas y Sociales y Desarrollo Humano Local en América Latina. El caso de Venezuela. Mikel de la Fuente Lavín, Roberto Viciano Pastor, Rubén Martínez Dalmau, Alberto Montero Soler, Josep Manel Busqueta Franco y Roberto Magallanes.
45. La salud como derecho y el rol social de los estados y de la comunidad donante ante el VIH/ SIDA: Un análisis crítico de la respuesta global a la pandemia. Juan Garay.
El virus de la Inmunodeficiencia Humana y sus Colaboradores. Bob Sutcliffe.
46. Capital social: ¿despolitización del desarrollo o posibilidad de una política más inclusiva desde lo local? Javier Arellano Yanguas.
47. Temas sobre Gobernanza y Cooperación al Desarrollo Miguel González Martín, Alina Rocha Menocal, Verena Fritz, Mikel Barreda, Jokin Alberdi Bidaguren, Ana R. Alcalde, José María Larrú y Javier Arellano Yanguas.
48. Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz
Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra. Irantzu Mendia Azkue.
49. Microfinanzas y desarrollo: situación actual, debates y perspectivas. Jorge Gutiérrez Goiria.
50. Las mujeres en la rehabilitación posbélica de Bosnia-Herzegovina: entre el olvido y la resistencia. Irantzu Mendia Azkue.
51. La acción humanitaria como instrumento para la construcción de la paz. Herramientas, potencialidades y críticas. Karlos Pérez de Armiño e Iker Zirion.
52. Menos es más: del desarrollo sostenible al decrecimiento sostenible. Roberto Bermejo, Iñaki Arto, David Hoyos y Eneko Garmendia.
53. Regímenes de bienestar: Problemáticas y fortalezas en la búsqueda de la satisfacción vital de las personas. Geoffrey Wood.
54. La incorporación de la participación y la equidad de género en las cooperaciones autonómicas. María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.
Genero-ekitate eta partaidetza, autonomia erkidegoen lankidetzetan. María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.
55. Análisis sobre Desarrollo Humano Local, equidad de género y participación de una década de Cooperación Vasca. Los casos de Ecuador, Guatemala, Perú y la RASD: 1998-2008. Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.

LAN-KOADERNOAK
CUADERNOS DE TRABAJO
WORKING PAPERS

0. **Otra configuración de las relaciones Oeste-Este-Sur.** Samir Amin.
1. **Movimiento de Mujeres. Nuevo sujeto social emergente en América Latina y El Caribe.** Clara Murguialday.
2. **El patrimonio internacional y los retos del Sandinismo 1979-89.** Xabier Gorostiaga.
3. **Desarrollo, Subdesarrollo y Medio Ambiente.** Bob Sutcliffe.
4. **La Deuda Externa y los trabajadores.** Central Única de Trabajadores de Brasil.
5. **La estructura familiar afrocolombiana.** Berta Inés Perea.
6. **América Latina y la CEE: ¿De la separación al divorcio?** Joaquín Arriola y Koldo Unceta.
7. **Los nuevos internacionalismos.** Peter Waterman.
8. **Las transformaciones del sistema transnacional en el periodo de crisis.** Xoaquin Fernández.
9. **La carga de la Deuda Externa.** Bob Sutcliffe.
10. **Los EE.UU. en Centroamérica, 1980-1990. ¿Ayuda económica o seguridad nacional?** José Antonio Sanahuja.
11. **Desarrollo Humano: una valoración crítica del concepto y del índice.** Bob Sutcliffe.
12. **El imposible pasado y posible futuro del internacionalismo.** Peter Waterman.
13. **50 años de Bretton Woods: problemas e interrogantes de la economía mundial.** Koldo Unceta y Patxi Zabalo.
14. **El empleo femenino en las manufacturas para exportación de los países de reciente industrialización.** Ido-ye Zabala.
15. **Guerra y hambruna en África. Consideraciones sobre la Ayuda Humanitaria.** Karlos Pérez de Armiño.
16. **Cultura, Comunicación y Desarrollo. Algunos elementos para su análisis.** Juan Carlos Miguel de Bustos.
17. **Igualdad, Desarrollo y Paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres.** Itziar Hernández y Arantxa Rodríguez.
18. **Crisis económica y droga en la región andina.** Luis Guridi.
19. **Educación para el Desarrollo. El Espacio olvidado de la Cooperación.** Miguel Argibay, Gema Celorio y Juanjo Celorio.
20. **Un análisis de la desigualdad entre los hombres y las mujeres en Salud, Educación, Renta y Desarrollo.** Maria Casilda Laso de la Vega y Ana Marta Urrutia.
21. **Liberalización, Globalización y Sostenibilidad.** Roberto Bermejo Gómez de Segura.
Bibliografía Especializada en Medio Ambiente y Desarrollo. Centro de documentación Hegoa.
22. **El futuro del hambre. Población, alimentación y pobreza en las primeras décadas del siglo XXI.** Karlos Pérez de Armiño.
23. **Integración económica regional en África Subsahariana.** Eduardo Bidaurrezaga Aurre.
24. **Vulnerabilidad y Desastres. Causas estructurales y procesos de la crisis de África.** Karlos Pérez de Armiño.
25. **Políticas sociales aplicadas en América Latina. Análisis de la evolución de los paradigmas en las políticas sociales de América Latina en la década de los 90.** Iñaki Valencia.
26. **Equidad, bienestar y participación: bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro.** Alfonso Dubois.
27. **Justicia y reconciliación. El papel de la verdad y la justicia en la reconstrucción de sociedades fracturadas por la violencia.** Carlos Martín Beristain.
28. **La Organización Mundial de Comercio, paradigma de la globalización neoliberal.** Patxi Zabalo.
29. **La evaluación ex-post o de impacto. Un reto para la gestión de proyectos de cooperación internacional al desarrollo.** Lara González.